



Bertsio elektroniko honen jatorria: Bizkaiko Foru Aldundia:
Idazlan guztiak, Frai Bartolome Santa Teresa (Julen Urkizaren eta
Luis Baraiazarraren edizioa), Euskaltzaindia / Bizkaiko Foru Aldundia, 2000.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/F/FraiOgetabost.htm>

**JANGOIKUAREN LEGEKO
LELENGO BOST AGINDUBEN
OGETA BOST LEZINOE
TA SERMOE BAT**

Frai Bartolome de Santa Teresa

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,
eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

BIZKAI GUZTIZ NOBLE TA GUZTIZ LEIJALEKO KURA JAUNAI

Kura jaunak

Errazoe guztiagaz eskatuten dau euroen meseden eikuzun altubak eta santubak, nik borondate osuagaz eta bijotz pinagaz amar mandamenduben lelengo parteko dotrinak euroen ebanjeljoko zelo egijazkuari ta agirijari oprezidutia geure Bizkai guztiz noblia ta guztiz leijala bada Europa osuan ta arutzago bere pama andikua bai gobernuban, bai eutsi-indartsuan, bai peliadaan, bai iraun-onian, bai asmo-biarrian, bai jakiturrian ta bai leijaltasunian, oraindino argijago, ikusgarrijago ta erabagijago da kristandadian, Elexako egitaden osotasunian, oitura santubetan, pede-koo sinistute egijazkuuan, lege santubaren erakustian ta bizkaitarrak euren ez leez gauza onerako, zuzenerako, errukiorrerako ta maiteena errazuazko-rako daukeen jaijokera ta bijotz prestian ta zabalian.

Santijagok, san Pablok eta areen ondorengo obispo santubak zorrijonian geure gurasuai ekarri eutseen Jangoikuaren ta Jesukristoren sinistute egijaz kua ; gaurko egunian gordeetan da España bazterreko Bizkai guztiz noblian lelengo egunian sartu zan baixen zuzena, argitsuba, eutsija, bizija ta obra ongina. Bizkai ditxoso onetan ez dau sekula illuneko agintarijak atzi txaarra erinda, pruturik batu. Ez dau geure erri nobleetan inos oinagaz luurrik berotu ez judeguk, ez morok, ez sinistute-barrikok, ez burubagako-elexadunek, ez jakitun-deskuidotarrek ta ezda, juizijo oneko askoren eitzijan, Jangoiko-askodunek bere. Munduko baztar gitxik buruba jasota esan leije bizkaijak leez ainbeste gizaalditan illundu bagarik, lausotu bagarik ta naastau bagarik beti eutsijaz, beti zietz, beti zintzoro, beti bardin ta beti garbiro gorde dabeela Jangoiko bakarraren ta Jesukristo geure Jaunaren pede santuba.



Geure Bizkai pamaubaren illargi beteko argi une guztiz altu onek euroen mesedeetan dauka, jaunak, bere arrimuba, edertasuna, sendogarrria, aurrerabidia ta atseena. Eurok jasoten dabee geure kristandadeko obra grazijazko au. Eurok janarija emoten deutsee Jangoikuaren berbiagaz Jesukristoren bijotzeko ardi aldra oni. Eurok erakusten deutsee Jangoikuari, proximuari ta noberari zor deutseena. Eurok zaintu ta gordeetan dabee otso gaistuetati. Eurok osatuten ditubee pekatubaren sarniagaz gaixotutenean dirianak, irakoiten ditubee jausijak, aurreratutenean ditubee zutinik dagozanak, gogo biztutenean ditubee guztiak ta eruaten ditube beti ondo izateko zeruko bizitzara.

Nire poz eta ondrarik andijena izango litzaateke, jaunak, euroen mesedioi daukeen eikuzun altuban, jangoikozkuan ta pisutsuhan zelanbit lagundutua. Neke guztiagaz aaztuko nintzaateke, ditxa au jadiistiagaiti. Txito zorrijonian salduko nituke neure indarrak, jakite puskia ta alegin gogozkua euroen mesedieen ondra jasuaren apur bategaz geratutua gaiti. Nire borondate onak ta entendimentu laburrak lelengo argitara etaratenean dabentzen prutuba da amar mo Mandamentuen lelengo partia, ogeta bost lezinoetan zabaldua, sermoe bat erdijan dabeela. Ta oneek eskintzen deuteeedaz oan euroen mesedioi, mandamentuen bigarren partia, sakramentuen ta kreduaren lezinoiak zerbaitek geijagogaz laster etarateko ustian geratuta. Ojala, nire desia egijazkua dan leez, euroen jakituriaren altubaren ondo eitxikuak balira oneek! Artu beige bada, jaunak, nire bijotz zintzuak eta samurrik euroen mesedioi egiten deutseen neke labur au. Begiratu beige ez onen balijo txikijari, ezpada gustoz eskintzen dabenen borondate pinari, zeñegaz eukiko dabentzen neurribagako poza euroen kapillau humilde ta prestu.

Prai Bartolome Santa Teresak

IRAKURLIARENZAT

Liburubak poz geijagogaz erozi ta irakurri ditezan, euren asieraean imi[ni] oi jakuez lora andi batzuk *irakurlarenzat*. Onako asierai begiratutenean bajakue (Kebedo batenak itxi ezkerro), liburu guztiak dira onak edo oneenak. Alperrik gero mundu guztiak diadar egingo dau liburu a gati: bapere gauza ez dala edo irakurtia merezietan ez dabela; asierako berbeetan txito guztizkua izango da. Esaten dotsut bada, *irakurria*, bene benetan neuri au jazo dakidan ez dodala gura. Neuk argitara etaratako liburuba txaarra dala esatia etxat niri tokeetan. Baña ona dala bere ez dot esango. Esango dot geure euskeraan oraindino onetarikok urten ez dabela. Esango dot palta asko daukazala. Esango dot obatu leijala. Esango dot Kipuz-erri askotarako bere ez dala. Ta dinot mandamentuen bigarren partia, sakramentuen ta kreduaren dotrinak ta beste sermoe gauza batzuk argitara etarateko txito nai neukiala lelengo onen paltaak ezautia. Ez neuk asko ikusten ez deutsadazalako, ezpada bestiak zein paltzat eukiko dabeen ez dakidalako. Dotrinak laburrak badira, luzatuko nituke. Berbeeta astuna badauka, arinduko neuskijo. Arina badauka, pisu geijago emon bere bai. Kipuz aire bategaz oba balitz, a bere emongo neuskijo, guztiz ondo ez arren. Enpin, edozein bere modutara jirau lei esku betan dauen arti-artian, baleki batek guztienean edo geijenaren gustua zein dan. Klaru gauzia esatiarren (bada ez da etara jakitunai erakusteko, ezpada jakitunak dakijena ez dakijenai euskeraz erreztuago erakutsi daijuen) ta Bizkaiko berbeetiar daukan indarra emotiarren, letra batzuk doblauta imini dira, gainian erraijagaz baño obeto eitxita. Gauza onik badauka, Jangoikuari eskerrak emon; bapere ezpada dauen, inori bere ez. Agur.



JANGOIKUAREN LEGEKO MANDAMENTUBEN ASIERARAKO LEZINOIA

zenetan erakusten dan
dotrinia ikasteko dauen preminia.

Munduba galdua dauana ta ya inok iraun ezin dabena Eskritura Sagradubak leku askotan esango ezpaleusku bere, geuk sarri esaten dogun gauzia da, neure entzula onak. Geuk esaten dogu kasik isildu bagarik kristinauben artian dauala pede txaarra, konpifiantza gitxi, kodizija asko, malezija andija, munduko gauzeen amodijo itsuba, inoren gauzeen inbidija, alkari ikusi ezina, panparrerija, banidadia, okasinoiak, entzute txaarra, murmurazinoia, neurribagako desonestidadia, pekatubaren bildurizeza ta konzienzia arinonak. Gatz oneek eta geijago kristinauben artian ugari dagozana guztiok autor doguna da. Ya esan ginai Dabid erregiagaz, jente guztia bide zuzenetati apartau dala ta gauza ona egin gura dabeniak inor bere ez dauala. Edo san Juan Ebanjelistaigaz, mundu guztia malezijaren ta gatxaren gañian iminita dauala.

Oh, zeinbat estimauko litzatekian gatz oneek erremedijeta! Ta menturaz ez da askok uste dabentz baised obra gatxa mundubaren erremedijetia. Bakotxak beretzako ona dan moduban, edolabere erremedijau lei. Baña onetarako, ezautu biar dau kristinaubak lelengo, zegaiti daukan edo zetati jatorkon mundubari ain itxura ezaña ta errukarrija. Ta au da dotrina onetan lelengo erakutsiko dodana; ta gero esango da, zelan erremedijau leijan bakotxak berari tokeetan jakona.

I.

Exodoko liburuban Espiritu Santubari entzuten deutsadazan berba batzuk irakurten ditudan guztian, neure entzula onak, ikara egiten deust bijotzak. Irugarren ta laugarren belauneraño, dino Jangoikuak, kastigauko ditubala gurasuak umeen kontra egiten dituben pekatubak. Gurasuak umeen kontra egiten dituben pekatubetati andijena dala deitxat, kristinaubak, guztiz engañetan ezpanas, umiak dongaro aztia. Seme alabak

lotsa txaarragaz, libertade andijagaz, banidade osuagaz, doctrina on bagarik, Jangoikuaren bildur santuba bagarik mundubarentzat ta munduko aixe paltsuarenzat aztia da guraso batek Jangoikuaren aurrian eukiko dabentz kargu ikaragarrija. Ta gurasorik gejenak, guztiak ez esatiarren, dirian leez gauza onetan ardura bagakuak, ara emen zelan dauan beti oñian Jangoikuak ainbeste gorroto deutsan pekatubak, zeñegati dinuan irugarren ta laugarren belauneraino kastigauko ditubala geure gurasuen pekatubak. Ta onako gurasuen pekatubak beti dirauber leez, Jangoikuaren kastigubak bere badirau gure kontra. Izan leiteke, bada, gurasuak lotsa bagarik ta Jangoikuaren bildur santuba bagarik seme alabak azten ditubentz artian, mundubak daukan baisen itxura ezaina ta galdua eukitea. Ara emen munduko gatxen asiera bat.

Oraindino esan lei Jeremias propeta santubagaz pensamentu on baten paltiak daukala mundu guztia galdua. Bakotxak bere artian ondo pensauko balitu gauzaak, erremedijauta leokiala munduba. Egija esateko gizon ta emakume guztiak pensauko balebee ondo ta sarri zer dirian, zetati dirian, nor gaiti dirian, zetaraño dirian ta zetan parauko dirian, ez leukee egiten dabeen beste zaata munduban egingo ta ez leukee emoten dabeen beste zeregin, sentimentu ta zeresan emongo. Pensamentu on baten paltiak apartetan ditu kristinaubak bide zuzenetati ta ekarten ditu luurreko gauzeetan euren gogo, amodijo ta desio guztia imintera. Ta ara emen beste sustrai bat mundu ko jentia beti naastauta, okertuta, sosigu bagarik ta alkaregaz bat egin bagarik, zer eiten dabeen ta nora duazan ez dakijen inurri pilo bat leez bizi izateko. Ara emen asiera bi, sustrai andijkak daukeezanak ta munduba dauan oñian eukiteko asko dirianak. Seme alaben aziera txaarra ta zer garian ondo ez pensetia. Oneek erremedijetan ez dirian artian, ez da munduba asko onduko.

Bañan oraindino beste gauza bat deitxat, neure entzula onak, dala munduko bake txaarrari, bizi izateko nekiari, arimako kezkiari ta larrijari, gorputzaren penai, nasaitasunari, usadijo gaistuai ta illteko peniari lekurik gejen emoten deutseena. Au da, kristinau izaten ez jakitia. Kristinau asko dagoz, baña ez dakije gejenak zer dan kristinau izatia. Ez dakijez naturaleziak, errazoia eta Jangoikuak imini deutseezan obligazioiak; ez dakijean artian, kunplidu ezin lejiez ta bakotxak bere obligazioiagaz kunpliduten ez dabentz artian, munduba leengo bestian egongo da; edo gero baño gero txaarrago izango da. Alperrik da intenzinoe ona ta desio ona eukitia. Ez dakijenak deskuiduan baño azertau ezin lei ta gaurko egunian kasurik gitxien egiten jakon gauzia da kristinaubaren obligazioiak ikastia. Mundubaren usadijo paltsuak eta lege zorigestokuak zortzi amar urte-



ko umiak bere bakijez; baña kristinaubaren obligazinoiak eskolau andijkak bere askok ez. Ez dau inok kansau gura Jangoikuari, proximua ta bere burubari zer zor deutsan jakiten. Ez dau inok dendatu gura, Jangoikuak geugaiti zer egin dabentzat eta geuri zer agindutzen doskun ikasten.

Berba baten, neure kristinaubaak, ez dau inok ardurarik imintzen dotrinia biar dan moduban ikasteko. Dotrinia biar dan moduban ez daki-jenak Jangoikua serbidu ezin lei. Jangoikua serbietan ez dan artian, munduba leen dauan baiseduztenean, okerra ta naastauba egongo da. Jangoikua serbietan ez dan artian, geure bizitzak izango dira penazkuak, atsekabazkuak, priisazkuak, gusto bagakuak, sosisu bagakuak, sugia leez luurreko gauzeetan tatarraska ta arrastaka gabizanak. Jangoikua serbietan ez dogun artian, geure arimaak egongo dira pekatuz naastauta, ilunduta, loittuta diabruben aginduban; geure erijotzia izango da estuba, larrija ta ika-ragarrija; ta geure betiko despeida, despeida bagakuak, inpernuko suba. Au da dotriniaren paltiak kristinaubari ekartzen deutsan prutu mingotxa. Au guztia Espiritu Santuabak sarri predikeetan dosku. Orregaiti bada, neure entzula onak, dago txito premina andija dotrinia ondo ikasteko. Gauza onetan kristinauben artian dauan paltia ta dotrinia ondo jakin ezak dakan negargarrijak esan ezin leiz.

II.

Jangoikuak beti erakutsi dosku gizonaren entendimentuba berez laburra dana zeruko misterijuak ezaututeko. Beraren Majestadia etorri da guri zerurako bidiak erakustera. Adan, lelengo geure gurasuari Jangoikuak berak erakutsi eutsan inozenzijako estaduban beti ditxoso izateko asko eban dotrinia. Naturalezian legian patriarka santubai erakutsi eutseezan Jangoikuak, jazo baño askozaz leenago, guk oan entzuten ditugun ta sinistutzen ditugun pedeko gauzaak. Moisen legiak iraun eban artian, denporarik denporara bialdutzen eutseezan Jangoikuak isrraeltarrei propeta santubak, bere legia ta dotrinia erakusteko. Jesukristo geure Jauna etorri bazan zerutti mundura, Aita Eternuak bialdu eban. Ta zetarako? Munduko gizon eta emakume guztiai zer sinistu biar dabeen, zer egin biar dabeen, zer eskatu biar dabeen ta zer errezibidu biar dabeen erakusteko. Apostoluben, obispo ta kura jaunen kargubeetati andijen bat edo bakarra da kristinau pielei dotrina egijazkua ta zerurako bide zuzena erakustia. Esan lei kristinaubak, Jangoikuak Eskritura sagraduban esaten doskunari

ta Elesa Ama santiaren legiai begiratu ezkerro, Elesa gizonen zereginik andijena dala kristinaubei dotrinia erakustia. Lekuban lekuban berba gogorrekizamaitutzen gaitu Jangoikuak ta pena andijekin Elesiak gauza onetan koroedunok egiten ditugun paltaak gaiti. Zegaiti au guztia? Ez beste gauza gaiti, neure kristinaubak, ezpada Jangoiko onak eta bere Esposa Elesa Ama santiak ezaututen dabeelako dotriniaren paltiak dakan negargarrijak ze andijkak dirian.

Ene Erlijinoe sagraduba, Jangoikuaren ta Elesa Ama santiaren intenzinoiari ta espiritubari jarraituta, ez da kontenteetan orazinoiagaz, penitentziagaz ta beste piedadezko ta karidadezko obra onekin kristandadiari lagundubagaz. Ezaututen dau dotriniaren paltia dala munduko gatz askoren ta nekez erremedijetan dirianen sustrai indartsu. Ta alegin guztiai lagunduteko kristinau pielei ta kura jaunei dotriniaren paltia erremedijetan, agindutzen dau ene Erlijinoe sagradubak; domeketako arratsalde guztietan prediketako ordu erdian pulpiti dotrinia, geure komentubetako eleseetara datozen kristinaubei, desiertubez osterantzeko guztietan.

Gauza jakina da, neure entzula onak, dotrinia ondo daki-jenak dukan Jangoikuaren ezaubera geijago. Ta zeinbat Jangoikuaren ezaubera geijago dukan kristinaubak, ainbat dago urrinago pekatubeetati ta kon-denetako bideti. Bada, jakin ezkerro ondo Jangoikuak geugaiti egin dituban amodijozko obraak; Jangoikuak geugaz dukan ontasuna, pinezia ta pazientzia; geuri zeruko Erreñuba emoteko dukan desio bizija; Jesus geure Salbadore maitiak bere jaiotzan, bizitzan, pasinoian, erijotzan ta altarako sakramento santuban erakusten doskun biguntasuna, humildadia ta karino laarregija; jakin ezkerro kristinaubak bere ezereza, miseria ta argaltasuna; berba egingo bidaudau, pausu egingo bidaudau, arnasa artuko bidaudau ta biziko bidaudau, popuertza Jangoikuaren grazija ta sokorruba biar dabena; erremedijo bagarik ill bia[r]ko dabena; erijotzako ordu estuban bere bizi guztiko pensamentu, berba ta obren kontu zuzena ta gogorra artuko deutseena; oneentzako zeruba ta dongentzako inpernuba dauana, dinot neure entzula onak, kristinaubak ondo jakin ezkerro ta ezautu ezkerro dotrinalako egia oneek, nor azartuko litzaateke pekatu egiten, bertan ilgo edo edo ez daki-jela?

Onezaz ostian, dotrinia biar dan moduban ez daki-jena beti dago pekatu mortalian. Nai izan arren, ondo konpesau bere ezin leiteke, zelan ez daki-jelako. Inok asolbidu bere ezin lei ta salbau bere ezin leiteke. Dotrinia ondo ez daki-jenak pekatu etitia zer dan ez daki. Bera da lelengo pekatuban jausten dana ta nekezeen jagiten dana edo sekula jagiten ez



dana, pekatubaren ezaintasuna, pekatubaren kaltiak, Jangoikuari egin deutsan injurja ta pekatuti jagiteko zer biar dan ez dakijelako. Dotriñaren paltaz dira konpesinoe paltsuetati gejenak. Dotriñaren paltaz dagoz kristinaubak engañauta, itsututa, zerura zuzen duazalakuan, inpernurako bideti pausu bat bere uts egiten ez dabeela.

Ta ez dauka inok zetan pensau kristinaubak bakijela salbeetako duin dotrina. Gejen dakijenari bapere sobreelan etxako; ta palta dabeenak milla bidar geijago dira, popuertzakua dakileenak baño. Aitageuria, abemarija, kredua, mandamentubak, nipekatarija, neure Jesukristo jaun, salbia, sakramentubak ta beste onako umetan ozta buruz ikasi zian orazinoe batzuk aoz esatia ez da biar dan moduban dotrina jakitia. Umeentzako popuertzakua da orazinoe areek buruz ikastia, baña nausijentzako ez da asko buruz jakitia, maisu askok esaten dabeen leez. Aitu biar dabee ta jakin biar dabee berba areek zer esan gura dabeeen ta zetarako dirian, itandu ezkerro, edozeini kontu emoteko tertziuan. Ta zeinbat kristinaudira au egingo leukeenak? Atrebietan nas esaten: ezda erdijkak bere.

Imini daigun exenplu bat ta ez gitxitan jazoten dana. Kristinaurik gejenak aoz esango ditubee ondo konpeseetako bost gauzaak. Esaminia, doloria, proposituba... Ta aituten ditubee zer dirian? Bakijee zer dan doloria edo damuba? Bakijee zer biar dan damuba eukiteko? Bakijee damubaren paltaz konpesinoia zetan geratutenean? Bakijee damuba jadiisteko zelan prestau biar dabeeen? Bakije proposituba zer dan? ze premina andikua dan? Eukiteko zer egin biar dan? ta egijazkua danian ariman zer egiten dabean propositubak? Bigarrena doloria, irugarrena proposituba; aoz esaten guztiak edo gejenak dakije, baña zer esaten dabeeen ta esaten dabeena aituten erdijkak bere ez.

Gauza jakina da bada, neure kristinaubak, dotriñaren paltiak mundubari itxura txaarra emoten deutsala ta ikasiko balitu kristinaubak bere obligazinoiak ondo, mundurako ta eternidaderako gatz asko erremedijauko litzaatekiala. Dendatu gaitezan bada, kristinaubak, dotrina ikastera ta ikasteko juan gaitezan erakusten dan lekura. Eskatu daijogun Jangoikuari bere berba santuba entzuteko ta arimeetan gordeetako grazia. Amen.

JANGOIKUAREN LEGEKO MA[N]DAMENTUBEN ASIERARAKO BIGARREN LEZINOIA

*zeñetan erakusten dan
mundubaren asieria, gizonaren noblezia ta kristanda-
diaren balijuia.*

Jangoikuak geu gaiti egin dituban obraak euki biar ditu kristinaubak beti begijen aurrian, bere obligazinoiak ikasteko. Eurak dira geure bijotzetan Jangoikuaren errespetua ta amodijua onduen iminten dabeenak. Andi andika, edo salto saltoka leez esango dotsut bada, kristinaubak, dotrina onetan: *Mundubaren asieria, geure izatiaren noblezia ta kristandadiaren balijuia.*

I.

San Pablo apostolubak esan ezkerro munduko gauzei begiratuta ezaututenean diriala zerkuak, txito gauza biarrakua da mundubaren asierako obra arrigarrija kristinaubak jakitia. Onetarako sinistu biar dogu, neure kristinaubak, oan zazpi milla ta sei urte artian (Elesiaren kontubari jarraituta), ez euala kriaturaren errasturik Jangoikuaren entendimentuti kanpora. Jangoikuak bera euan bakarrik beragan ta beste gauzarik ezer bere ez euan. Jangoikuak ezer bere ezetzi eta zituban bere birtute edo nai bategaz zerubak eta luurrak, eta zeruban eta luurrian agiri dirian ta agiri ez dirian gauza guztiak.

Lelengo egunian edo instantian egin eban Jangoikuak argija ta apartau eban ilunaganik; imini eutsan argijari egunaren izena ta ilunari gabarena. Bigarren egunian edo instantian egin zituban zerubak ta apartau zituban zero gañeko urak zerupekuetati. Irugarren egunian edo instantian batu zituban Jangoikuak zerupeko urak guztiak leku batera ta agertu eban liorra. Liorrari imini eutsan luurrearen izena ta urak egozanari itxasuarena. Ta egun atan egin zituban luurreko arbola ta bedar jenero guztiak. Laugarren egunian edo instantian egin zituban Jangoikuak euzkija, ilargija ta izarrak ta imini eutseezan euren ibilerako legiak, egunak, illak eta urtiak neurtuteko.



Euzkija egunari argi egiteko ta ilargija gaberako. Bostgarren egunian edo instantian egin zituban Jangoikuak uretako arrain jenero guztiak ta egaan dabizan txori jenero guztiak. Ta emon eutseen Jangoikuak onei guztioi, baita arbola ta bedarai bere, euren erikuak sortuteko edo ondorengetara azija iragoteko birtutia, beti munduban iraun daijen jenero guztiak. Ta bedeinkatu zituban Jangoikuak guztiak esanagaz: *Azí zaite ta geitu zaite.*

Seigarren egunian edo instantian egin zituban Jangoikuak luurreko alemanija guztiak ta emon eutseen arei bere birtutia euretaikuak sortuteko. Aingerubak zein egunetan kriadu zituban Jangoikuak ez dabee Elesako erakusla guztiak bardin esaten. Baña pedeko gauzia da Jangoikuak mundubaren asieran ezer bere ezeti egindako espirituzko kriaturaak dirala aingerubak. Areetati batzuk, san Migel aingeruba aurrerengo zala, obeidu eutseen Jangoikuari, errazoa zan leez, ta dira zeruban Jangoikua gozeetan dagozan aingerubak. Beste batzuk, Luziper aurrerengo zala, euren andiarijk arrotuta, soberbijaz beteta, ez eutseen Jangoikuari obeidu gura izan; ta Jangoikuak soberbijazko pekatuba à gaiti bota zituban inpernubetara ta dira ango diabrubak eta demoninuak.

Luurreko kriatura guztiak zuzen ta artez gordeetan ditubee, neure entzula onak, Jangoikuak imini eutseezan ordena, lege ta egite edo izate modubak. Alemanijaak, arrañak, txorijak, zerubak, luurrak eta luurreko gauza guztiak dagoz beti pirme, Jangoikuari obeiduten deutseela ta Jangoikuaren anditasuna, jakituria ta probidenzia prediketan dabeela. Au da kristinaubak beti goguan euki biar dabena. Arrimutubetaranoko guztiak Jangoikuari obeiduta, berak ez obeidutia. Oh, zelan lotsatuko dan Jangoikuaren aurrian pekatari errukarrija, beste guztiak euren moduban Jangoikua ziur serbiduta, berak serbidu ez dabelako!

II.

Seigarren egunian edo seigarren instantian egin eban Jangoikuak gizona. Pormau eban Jangoikuak luur zati bategaz gorputz bat; kriadu eban ezer bere ezeti espirituzko arima bat; imini eban luurragaz egin eban gorputz atan espirituzko arimia ta geratu zan Jangoikuaren etxurara egindako gizona, zeini deritxon *Adan*. Au da lelengo gizona, lelengo gurasua ta munduko gizon eta emakume guztiak moduren baten izatia zor deutseena. Jangoikuak berak, leengo doctrinan esan zan leez, Adani emon eutsan zeruko gauzeen ezauberia, entendimentu argija, borondate lejala ta zuzena, ta beti ditxoso izateko biar eban guztia. Itxi zituban Jangoikuak

Adanen eskubetan ta Adanentzat beste kriatura guztiak, alemanija, arrain, txori ta batez beste pruta jenero guztiak ta imini eban munduban inok euki leizan gusto, atsegin, ondasun ta ditxa guztien artian paradisuban. Adan bakarrik egon ez zein, bera lo iguala, etara eutsan Jangoikuak sainets azur bat, berari minik emon bagarik ta Adanen sainets azurragaz pormau eban Jangoikuak emakume baten gorputza. Kriadu eban arima bat ezer bere ezeti, imini eban gorputz atan ta pormau eban leleengo emakumia, zeini deritxon *Eba*. Lelengo emakumia ta lelengo ama. Ta Eba bere imini eban paraisuban Adanegaz inozenzijako estadu ditxosuan ta zorionekuan. Ara emen, neure kristinaubak, zelan izan zan geure lelengo gurasuen asieria. Gizona da (ta bardin da emakumia) espirituzko arimia ta luurrezko gorputza bat egindako gauza bat. Gizona da, Jangoikuaren atenziocen guztia darioana. Jangoikuak beste kriatura guztiak egin zituban gizonezkoarentzako ta itxi zituban gizonaren eskupian. Ta Adanek pekatu egin ez baleu, gaur bere alantxe egongo zian.

Gizonaren izatiari imini deutsa Jangoikuak bere naturaleziaren silluba. Gizonak bere entendimentubagaz igoten dau zeruraño, jasten da inpernubetaraño ta gorputza geldi daukala dabil pensamentubagaz mundu guztian beste kriaturak baño altubago. Izatia daukeen gauza guztia begiratutenean deutsee gizonak, guztiak esamineetan ditu banaan banaan ta ez da ezegaz bere sosegeetan, Jangoikua topau artian. Borondatiagaz ameetan ditu urrineko gauza onakurrekuak leez ta kriatura guztien ontasuna ezautu arren, gosez dago Jangoikua bijotz guztiagaz ameetan ez dabent artian. Gomutiagaz iragotako giza aldiak ekarten ditu bere aurrera ta juizijuagaz etorkizunai begiratutenean deutsee, jazotako gauzaak balira leez.

Gizonak asieria bauka beste kriaturaak leez, baña despeidarik ez dauka. Beste kriatura guztiak amaituta utsera biurtuta bere, gizonaren gorputza ta arimia biziko dira eternitate guztian, irabazten dabeen leku ban. Gizon bakotxa mundu guztiak baño geijago balijo dabena da; Jesukristo geure Jaunaren odolagaz ta erijotziagaz erosita dauana da; Jangoikua ezaututeko, Jangoikua ameetako ta Jangoikua gozeetan zeruban eternitate guztian egoteko jaijo dana da. Gauza ona edo txaarra, berak nai dabena egiteko libertadiagaz Jangoikuak pormau dabena da.

Zer geijago? Oraindino bauka gizonak gauza bat, beste kriaturak ez daukana. Au da, gaiski eginagaz garbatuteko kondezinoia. Ura, suba, aisia, luurra, arbola eta arrijak Jangoikuaren kriaturaak dira, baña ez deutsee Jangoikuak arei emon sentidurik, izatia baño. Alemanijai, arrainai ta txo-



rijai emon deutseez Jangoikuak, batari geijago ta bestia gitxiago, izatia ta sentidubak; (naturalista itsubak ukatu arren) baña ez deutseez emon entendimentuba ta borondatia. Orregaiti, alemaniajak ez daukee ezaubera ta amodijo egijazkorik. Aingerubai emon eutsen Jangoikuak entendimentuba ta borondatia, baña ez eutseen Jangoikuak aingerubai emon ondo edo txaarto eginagaz garbatuteko libertadia. Orregaiti diabrubak, juizijoko egun artian kondenau bagarik egon balira bere, etxakuen garbatuko bein egin ebeen pekatuba. Ta zeruko aingerubak, juizijoko egun artian zeruban sartu ez balira bere, bein amau ebeen Jangoikuak ameetiarri ez eutseen sekula itxiko. Bada, aingerubai etxakue emon ondo edo gaiski bein egina erremedijetako libertaderik. Baña gizonaren noblezia ta kondzinoiak guztien artian dira apartekuak. Gizonak, dino san Gregorijok, dauka izatia luurrak eta arrijak leez, sentidubak eta bizitzia alemaniajak leez, entendimentuba ta borondatia aingerubak leez. Ta onezaz ostian dauka gizonak gaiski egina erremedijetako, garbatuteko ta atzera biurtuteko libertadia, kriatura guztien artian batek bere ez daukana. Libertade onetan asten da obra oneen ta donegen merezimentuba, legiaren nezesidadia, grazijaren preminia ta bakotxak zer egin biar daben jakin biarra. Ta ara emen ikusita, ze altuba ta zabala dan gizonaren izate noblia. Oni darraikona da, lege santu baten edo erlijinoe egijazko baten preminia ta nezesidadia. Ta au ikusiko dogu irugarren aldijan esanagaz, zeinbat balijo doskun kristinak izatiak.

III.

Jangoikuak gizonari emon arren esan dan nobleza guztia, erakutsi ezpaleutsa zer egin biar eban ta imini ezpaleutsaz erregela zuzenak eta klarubak, arei begiratuta bere pensamentubak, berbaak eta obraak beti zuzenak izan zitezan, ez eban ezer bere egindo. Jangoikuaren lege edo erregela bagarik geratuko zan gizona, aixe guztietara jira eiten daben kañabera bat leez. Ez eban berez sekula gauza on bat egindo ta ez zan sekula zeruban sartuko. Baña Jangoikuaren ontasuna ta miserikordija ez zan kontentau gizonari alako perpezinoe andija ta izate noblia emonagaz, ezbada onezaz gañera emon eutsazan lege argijk eta erregela segurubak, arei begiratuta bere egitiak eta desiuak zuzenak izateko.

Jangoikuaren lege edo erregela guztia enzerretan da amar mandamentubetan. Eurak esaten deutsee gizonari egin biar daben guztia ta eurak baño gauza zuzenagorik eta argijagorik ezer bere ez dago, gero

esango dan leez. Berba bigaz amaitu eban Jangoikuak bere lege guztia: Jangoikua bera ameetia beste gauza guztiak baño geijago ta geure proji-mua geure buruba leez. Jangoikua ameetako, ezautu biar dogu lelengo; bada, entendimentubak ezaututenez daben gauzarik, borondatiak amau ezin lei. Jangoikuaren ezauberia inok bere gizonari emon ezin leijo, Jangoikuak berak baño. Ta orregaiti Jangoikuak berak artu dau karguba, guri bera nor dan erakusteko.

Gizonaren obligazioe bakarra ta nausijena da Jangoikuari berba egiten deutsanian, entzutia ta sinistutia; ta gizonaren utsegiterik andijena da Jangoikuari ez entzutia ta ez sinistutia. Denpora guztietan Jangoikuak berba egin deutsee gizonai, ta denpora guztietan izan dira gizonak Jangoikuari entzun, sinistu ta obeidu deutseenak; ta baita ez entzun, ez sinistu, ez obeidu gura izan ez deutseenak bere. Orregaiti denpora guztietan izan dira justubak eta pekatarijak, santubak eta kondenaubak. Naturaleziaren legian Adan, Eba, Abel, Noe, Abraan... justubak eta santubak zian. Eskribidutako legian Moises, Josue, Dabid... santubak eta justubak zian, Jangoikuari entzun, sinistu ta obeidu eutseelako. Ta Kaindi asita, beste denpora guztietako asko dira pekatarijak eta kondenaubak, Jangoikuari entzun eta sinistu gura izan ez deutseelako.

Jangoikuaren Seme bizijk gizon eginda, Jesukristo geure Jaunak era-kutsi dosku, leenaoko guztiak baño klarubago ta argijago, geuk entzun, jakin, sinistu ta egin biar dogun guztia. Ebanjeljoko berbia da Jesukristo geure Jaunaren berbia; ta ebanjeljuak esaten dabena entzutia, sinistutia ta egitia da Jesukristoren disipulu edo kristinak izatia, *kreduaren* azkeneko berbeetan esango dan leez. kristinaubak euki biar dabee pede bat, bautismo bat eta Elesa bat. Pede bagarik, bautismo bagarik ta Elesa bagarik inor bere salbau ezin leiteke. Ta orregaiti jentilak, judegubak, moruak eta ere-jiak, batzuk pederik eta bautismorik ez daukeelako ta bestiak Elesa egijazkorik ez daukeelako, guztiak kondenauko dira. Kristinak izatia da zerurako bide seguruba, noberak gura izan ezkero.

Ara emen, neure kristinaubak, berba gitxitan aituten emonda, mundubaren asieria, gizonaren noblezia ta geure kristandadiaren baliju. Eskatu daijogun Jangoikuari grazija... Amen.



JANGOIKUAREN LEGEKO AMAR MANDAMENTUBEN LELENGO LEZINOIA

zeñetan erakusten dan
mandamentubak zer dirian, zeinbat modutakuak dirian,
Jangoikuaren legeko mandamentubak zeintzuk dirian eta nos
asi zirian?

Karidadiaren ta salbazinoiaren senalle bakarra da, neure entzula onak, lege santuba gordeetia. Neure legia ikasten dabenak ta gordeetan dabenak, dino Jesukristo geure Jaunak, ameetan nau Ni. Sinistu ezin lei karidadia daukala Jangoikuari obeidu gura ez deutsanak; ta ezda Jangoikuaren legia gordeetan ez dabenak Jangoikua ameetan dabela bere. Adiskidiaren esana, errazuazkua izan ezkerro, egin gura ez dabenak gal-tzeen dau adiskidetasuna. Jangoikuaren lege santuba guztiz da errazuazkua, zuzena, erraza ta geure onerakua. Ta orregaiti Jangoikuaren adiskide danak, Jangoikuari ondo gura deutsanak ta ameetan dabenak pozik eta gustoz egiten dau Jangoikuaren aginduba; ta egiten ezpadau, gauza jakina Jangoikuaren adiskidia ez dana ta karidaderik ez daukana. Karidadiaren jantzia arimaan gura dabenak edo salbau gura dabenak, gorde biar ditu, bada, Jangoikuaren legeko mandamentu santubak. Pedeko artikulubeeta-ti bat da, etorriko dala Jesukristo geure Jauna juizijoko egunian illak eta bizjak juzgeetara, onai emoteko zeruko gloria, bere mandamentu santubak gorde zitubeelako; ta dongai inpernuko penia, bere mandamentubak gorde ez zitubeelako.

Emeti ezaututen da, zeinbat balijo deutsan kristinaubari mandamen-tu guztijetan eta bakotxian Jangoikuak zer aginduten deutsan jakitiak, guztiak eta bakotxa ziatz gordeetako. Bada, bat austen dabenari guztijen erruba ezarriko jako, dino Santiago apostolubak. Onetarako esango da, mandamentu bakotxian Jangoikuak zer aginduten doskun eta zer eraozten doskun. Ta guztiai asieria emoteko, dotrina onetan erakutsiko da lelengo, zer dirian mandamentubak; bigarrenian, zeinbat modutakuak dirian; irugarrenian, Jangoikuaren legeko mandamentubak zeintzuk dirian; laugarrenian, nos asi zirian.

**I.**

Mandamentuba edo mandamentubak ez dira beste gauzarik, neure entzula onak, ezpada inori aginduteko eskubidua daukan ta bestiak kobernau biar dituban Nausijak iminitako legiak edo agindubak. Ta alan mandamentuba, aginduba, legia ta ordenia bardin dira edo gauza bat esan gura dabee guretzako. Mandamentu, lege edo agindu oneek erakusten doskube zer egin biar dogun ta zer egin biar ez dogun. Esaten doskubee gauza batzuk egiteko ta beste batzuk ez egiteko. Ta orregaiti, geure azinoiak, pensamentubak eta berbaak zuzenduteko erregeelaak dirian leez, esaten jakue batzubetan mandamentubak, eta beste batzubetan legiak edo ordenaak.

II.

Geuri aginduteko eskubidua daukeenak modu askotarakuak dirian leez, mandamentubak eta legiak bere modu askotarakuak dira. Elesa Ama santiak duka eskubidua pedeko dotriñari ta kostunbre onai jaokuezan gauzeetan, kristinaubak zerurako bidian kobernetako. Ta alan dagoz beste askoren artian Elesa Ama santiaren bost mandamentubak. Erregiak eta erreñubak kobernau biar ditubeenak dauke eskubidua euren aginduban dagozanei bata bestiaren arteko artuemonetan, kleituko, aziendako ta bake oneko gauzeetan, zer egin biar dabeen ta zer egin biar ez dabeen ordenetako ta aginduteko. Ta onetarako dagoz erregiak eta erreñuben burubak iminitako legiak.

Onezaz ostian, Jangoikua da kriatura guztien Egilia, guztien Agintaria, Legegin nausija, guztiak obeidu biar deutseena ta guztiai zer egin biar dabeen ta zer egin biar ez dabeen agindu biar deutseena. Ta augaiti, munduko erregiak, agintariak, jaunak, aberatsak eta pobriak, guztiak egin biar dabee Jangoikuaren esana ta guztiak gorde biar dabee Jangoikuaren legia. Ez deutsa Jangoikuak begi bigunauekin begiratuko munduko erreje bati, agintari bati, jaun bati edo aberats bati, erregia, agintaria edo jauna izan dalako, osterantzian bere lege santuba gorde ezpadau. Andijk eta txikijk, legia bardin austen dabeenak, bardin kastigauko ditu Jangoikuak; ta bardin gordeetan dabeenai, bardin emongo deutsee zeruko gloria.

Jangoikua bera da asierarik ta despeidarik ez daukana, naturaleziari izatia ta kondezinoiak emon deutsazana eta gizakume guztijak ondo edo gaiski egiteko libertadiagaz ta errazoiagaz egin ditubana. Orregaiti lege batzubei esaten jakue asiera bagakuak, Jangoikuagaz beragaz izatia daukeelako. Beste batzubei errazuazkuak edo naturaleziarenak. Beste batzubei Jangoikuarenak. Baña guztijak dira moduren baten Jangoikuarenak. Ta guri oan tokeetan jakunez, asko da jakitia iru modutarakuak diriala legiak edo mandamentubak: Jangoikuarenak, Elesa Ama santiarenak ta munduko agintarijenak.

III.

Jangoikuaren legeko mandamentubak dira amar ta amarrak izentean ditu Eskritura Sagradubak. Lelengo dino: Neu nas zeure Jauna ta Jangoikua, Ejitoko kautiberioti librau zaitudana. Ez dozu eukiko neu baño beste Jangoikorik. Neu nas zeure Jangoiko indartsuha ta zelotsuha. Bigarrenian: Ez dozu zeure Jangoikuaren Izen santuba premina bagarik auan artuko; edo, ez dozu juramentu bide bagakorik egingo. Irugarrenian: Akordauko zara zapatubagaz. Sei egunian biarra egindo dozu, zazpigarrrena zeure Jangoikuaren eguna da. Ez dozu zapatuko egunian (oan domeekaan) biarrik egingo ez zeuk, ez zeure semiak, ez alabiak, ez krijdubak, ez alemanijak. Laugarrenian: Ondrau eizuz zeure aita ta ama, izan daizun bizitza luzia Jangoikuak aginduta dauan luurrian. Bostgarrenian: Ez dozu inor illgo. Seigarrenian: Ez dozu adulterijoko pekatutik egingo. Zazpigarrenian: Ez dozu ezer ostuko. Zortzigarrenian: Ez dozu proji muaren kontra guzurrik edo testigantza paltsorik esango. Bereratzigarrenian: Ez dozu proji muaren emazterik desiauko. Amargarrenian: Ez dozu inoren aziendarik desiauko.

Oneek dira, neure kristinaubak, Jangoikuaren legeko amar mandamentubak. Lelengo irurak jaokaz Jangoikuaren ondriari. Ta beste zazpiarak proji muen ta geure probetxurako agindubak dira. Orregaiti esaten da Jangoikuaren legeko mandamentubak enzerretan diriala berba bitan: Jangoiko bakarra gauza guztijak baño geijago ameetia ta geure proji mu gere buru ba leez ameetia. Ez dosku bere lege guztijan Jangoikuak beste gauzarik aginduten, dino san Agustinek, karidadia baño; Jangoikua ameetia ta proji mu ameetia. Jangoikua gauza guztijak baño geijago ta proji mu geure buruba leez amau ezkerro, lege guztijagaz kunplietan da. Eskritura Sagradubak esaten daben guztia, propeta santuben esanak,



Elesa Ama santiaren ta errege jauneeen agindubak ta liburu guztietan irakurten dana ez da beste gauzatarako, ezpada Jangoikua gauza guztijak baño geijago ta geure projimua geure buruba leez ameetako.

Orregaiti esaten dosku Jesukristo geure Jaunak, gauza bi oneek egiten ditubanak kunpliduten dabela lege guztijagaz. Ta san Pablo apostolubak esaten dosku projimua biar dan moduban ameetan dabenak gordeetan dabela lege guztija. Bada, projimua amau bagarik, Jangoikua bere amau ezin lei; ta Jangoikua amau bagarik gauza guztijak baño geijago, projimua bere amau ezin lei biar dan moduban. Ta azkenerako, mandamentu guztijak kasik gauza batera joten dabee: edo Jangoikua ameetara gauza guztijak baño geijago, edo Jangoikua gaiti geure projimuak ameetara geure burubak leez.

Egon leiteke, bada, gauza errezagorik eta errazuaokorik, Jangoikuaren legeko mandamentu santubak baño? Jangoikua ta geure projimua ameetia baño? Amar mandamentubetati leleenguak, irugarrenak, eta laugarrenak aginduten doskubee zerbait egiteko. Areek aginduten doskubeena kasi jeldi gagozala egin ginai. Bada, Jangoikua ameetako, jai-jegunak gordeetako ta gurasuak ondreetako, izerdi andirik zetan bota ez daukagu. Beste zazpirak ez doskubee aginduten ezer egiteko, ezpada ez egiteko; ez juramentu gaistorik egiteko, ez inori gorrotorik eukiteko, ez aragijazko pekatutrik egiteko... Bago gauza errazagorik au baño?

Jangoikuaren Majestadiak beckijan Adanan pekatubagaz guztioi etorrri jakuna nagitasuna, alpererreria ta sosiguz egoteko desia; ta a gaiti erreztuago ta pozagorik gorde ginaizan bere mandamentu santubak, geijenetan aginduten doskuna da ez ezer egitia, geldi egotia, geuk naijen dogun gauzia. Ze atxekija emongo dau, bada, kristinaubak, mandamentu santubak ez gordeetako? Oh, errazoiagaz esaten dosku Jesukristo geure Jaunak Berak imini doskun legia biguna dala ta bere kargia bere arina dala! Esango baleu leez, mandamentu santubak aginduten doskubeena egiten errez dala. Baña pekatarijaren temia da Jangoikuak egiteko esaten daben pusquia ez egitia; ta Jangoikuak ez egiteko esaten dabena egitia. Onerako alperra, gatxerako biargina. Oh, pekatari tristia!

IV.

Amar mandamentubetan Jangoikuak aginduten doskuna, naturaleziak eta errazoiak mundubaren asierati akaburáñea erakutsi ta aginduten dabeena da. Jangoikuaren argijkak geure arimeetan josita imini eban legia

ta dotrinia da, mandamentubak enzerretan dabeen guztia. Egija da, Moisen denporara artian ez egozan eskribiduta amar mandamentubak; baña orraitino ez ebeen leenago gitxiago eskatutenean baño. Gizon eta emakumeen libertade laarregijak ilundu ebeen errazoiaren argija, naastau ebeen utsegite askogaz naturaleziaren lege zuzena, loitu ebeen, esateko moduban, mundu guztija pekatuz ta obligau ebeen Jangoikua, leenago geure errazoiaren josita leez eukan lege santuba, Moisi eskribidu eraitera. Baña, eurenez, mundubagaz beragaz atsijkak dira mandamentu santubak ta iraungo dabee mundubaren despeidaraño.

Nok erakutsi dotsu (itanduten dau san Agustinek) inor ez illteko, ezer ez ostuteko, zeuretzako gura ez dozuna projimuari ez egiteko...? Naturaleziaren legiak eta errazoiaren legiak erakutsi dotsu, erantzuten dau Santubak. Jangoikuak geure bijotzetan josita imini dabentzen legia da aginduten doskubee guztija, dino san Pablob. Ta ara emen aituten emonda, lezinoe onetan agindu nebana. Dendatu gaitezan, bada, guztioek lege santuba ikastera eta geure alegin guztijagaz ainbat zietzen gordeetara, zeñegaz jaditziko dogun arimako grazia ja gero zeruko gloria. Amen.



BIGARREN LEZINOIA

Lelengo mandamentubak zer aginduten doskun; ta zelan biar dirian pedia ta esperantzia Jangoikua ameetako.

I.

Jangoikuaren legeko lelengo mandamentubak aginduten dabena da, neure entzula onak, Jangoikua bera ameetia gauza guztijak baño geijago. Alan esaten dosku Espiritu Santubak: amauko doku zeure Jaun eta Jangoikua bijotz guztijagaz arima guztijagaz, ta gogo guztijagaz. Au da zuri oan aginduten dotsudana. Au berau erakutsiko deutsezu zeure semiai eta semien semiai, ta berba oneek pensauko dituzu denpora guztietan ta leku guztietan. Jesukristo gere Jaunak arrezkero barriñ barri au berau erantzun eutseen judegubai, itandu eutseenian ia zein zan mandamentu guztietati nautsijena. Lelengo mandamentuba ta nautsijena da, diño Jesukristok, bijotz guztijagaz, arima guztijagaz eta gogo guztijagaz Jangoikua ameetia.

Mandamentu santu onek dinuan leez Jangoikua ameetako, popueritzakua da geure bijotzeko desio guztia, intenzinoe guztia, ezauberazko pensamentu ta egite guztia Jangoikuari oprezietia, ta Jangoikuaren ondrako gauzeetara ordenatia. Kodizioso edo laster aberastu gura daben batek, bere kontu, artu emon ta tratu guztia egiten dituban leez irabazteko intenzinoiagaz, alan lelengo mandamentu santuba ondo gorde gura daben kristinaubak, ezauberaz eta adbertenzierez egiten daben guztia ordennau biar deutsa Jangoikuaren ondriari bakarrik. Ez dau gura Jangoikua, kristinaubaren bijotza partiduta egotia zeruko gauzeen ta luurrekuen artian, Jangoikuaren ta kriaturen artian, ezpada berarenzat gura dau guztia. Ta orregaiti esaten dau Jesukristo geure jaunak: Inok bere serbidu ezin leizala ugazaba bi. Esango baleu leez: inok bere amau ezin leiz Jangoikua ta munduba. Jangoikua ameetan badau, mundubaren gorrotua eukiko dau; ta munduba ameetan badau, Jangoikuaren gorrotuan biziko da. Munduko gauzeetan bere gogua ta amodijua daukanak, Jangoikua amau ezin lei.

Jangoikua ameetako gauza guztia baño geijago, prest egon biar dau kristinaubak munduko gauza guztia eta bizitzia bere, biarbada, leenago

galtzeeko Jangoikua opendidu baño. Onako presteera santuba daukanian, ezaututen dau kristinaubak Jangoikua bere Jaun bakarzat, bere egilazat ta gauza guztien buruzat. Ordubar adoretan dau ta alabeetan dau Jangoiko guztiz ona ta autortutu dau, gauza on guztia Jangoikuak bakarrik merezietan ditubana. Ordubar ustuten dau kristinaubak bere bijotza luurreko gauzeetati; ta emoten deutsa leku osua Jangoikuari bere arimaan. Ordubar sinistuten dau ta ezaututen dau Jangoiko bat baño ez dauana, luurreko gauza guztia beriak ditubana, zerubak eta munduba bere eskubetan daukazana, asierarik eta akaburik ez daukana, ona, miserikordijazkua, zuzena, jakituna ta guzien maitegarrija bera dana. Ordubar gordeetan ditu kristinaubak Jangoikuaren agindubak guztia; ta desietan dau gizon eta emakume guztia Jangoikua bera bakarrik estimeetia, serbietia, ameetia ta alabeetia. Ta au da Jangoikuak lelengo mandamentuban aginduten doskun amodijua ta bijotzeko presteria. Onetarako euki biar dau kristinaubak pedia ta esperantzia. Bada, san Pablo apostolubak dinuan leez, pedia bagarik inok ezin lei Jangoikuaren gustoko gauzarik. Ta orregaiti esaten dau san Agustinek pediagaz, esperantziagaz ta karidadiagaz adoretan dala Jangoikua ta gordeetan dala lelengo mandamentu santuba.

II.

Pedia da, neure entzula onak, Jangoikuak duarik geure entendimendutuban iminitako doe bat, zeñegaz sinistuten dogun Jangoikuagan ta Jangoikuak Elesa Ama santiari erakutsi deutsan guzia[n], begijekin ikusiko bagendu baño ziurrago. Batiatu gindubeczanian, emon oskun Jangoikuak pede santuba; ta bera dala medijo daukagu zerurako esperantzia ta gara Elesiaren semiak. Pedia da ikusi ez doguna sinistutia, Jangoikuak esan dabelako. Ez mundubak edo mundukok esaten dosku-beelako, ezpada Jangoikuak esan dabelako. Jangoikuak berak berba egin dosku ta Elesa Ama santiak erakusten dosku Jangoikuak zer esan doskun. Bada, san Pablo apostolubak dinuan leez, Jangoikuak guzurrik esan ezin lei. Ez litzaateke Jangoikua Jangoiko izango, guzur txiki bat esan al balei. Ta Jangoikuaren beraren esana da, Elesa Ama santiari berak erakutsi deutsana, pedeko gauzeetan engaño ezin ginaizana ta Jangoikuaren Elesia egijaren zimentu pirmia ta pilar sendua dana. Elesa guztia nai baleu bere, kristandadiari pedeko gauzeetan guzur txiki bat erakutsi ezin lei, Espiritu Santubak koberneetan dabelako.



Promes andi au lelengo egin eutsan Jesukristo zeruko Maisubak san Pedro apostolubari, lelengo Aita Santu Erromako egin ebanian, Elesa guztiaren karguba emon eutsanian ta bere ordekozat, ta kristinu guztien buruzat munduban itxi ebanian. San Pedrori ta aren ondorengo Aita Santu Erromako guztiai esan eutseen Jesus geure Salbadore maitiak, eureen pediaren gañian pormau ebala bere Elesia ta inpernuko atiak edo persekuzinoiak ez ebeela inos bere galduko Elesiaren pedia ta dotrinia. Elesiaren esana sinistuten dabenak, Jesukristoren esana sinistuten dabela; ta Elesiar sinistu ta obeidu gura ez deutsanak, ez dabela sinistu gura Jesukristoren esana ta ez deutsala obeidu gura Jesukristori. Mundubak dirauba arte guztian Espiritu Santuba egongo dala bere Elesiagaz ta beste onako promes andijk egiten deutsaz, neure entzula onak, Jesukristo geure Jaunak Elesa Ama santiari, geure pedia ta esperantzia sendotuteko.

Ta emeti ezaututen da kristinaubak Elesiar sinistuteko ta obeiduteko daukan obligazinoia. Bada, Elesa Ama santiak erakusten doskuzan pedeko misterijo guztiak dira Jangoikuak esanak. Jangoiko bakar bat baño ez dauana, naturaleziaren ta grazijaren Egilia bera dana, Trinidadeko misterijo santuba, Jesukristo geure Jaunaren enkarnazinoia, jaiotia, bizitzia, kurutzeko erijotzia, illen artetik egin eban biztutia, zerubetara igotia, grazijaren nezesidadia, sakramentuben izatia, obra oneen probetxuba, pekatubaren kaltia, geure onerako nai gatxerako libertadia, ari-miaren akaburik eza, aragijaren biztueria, eri jotzia, juizjua, zeruba, inpernuba ta beste Elesiak erakusten doskuzan pedeko gauzaak, guztiak dira Jangoikuak esanak.

Misterijo santu oneek Elesiak erakusten dituban moduban sinistu bagarik, Jangoikua inok amau ezin lei. Orregaiti judegubak, jentilak, moruak eta eresiak euren utsegiteten ta engañuban dagozan artian, ezin Jangoikua amau leije, ezin lelengo mandamentu santubak aginduten dabena egin leije ta ezin salbau leitekez. Zelan salbauko dira, salbeetak egijak eta dotrinia sinistuten ezpadabee? Zelan amauko dabee Jangoikua, Jangoikuaren esana sinistuten ezpadabee? Zelan zerura juan leitekez des-ditxau areek, zerurako bidia, zein dan Elesa Ama santiaren pedia guzurat eta engañuzat badaukee? Oh, ze errukarrijak dirian Jangoikuari ta Elesa Ama santiari sinistu ta obeidu gura ez deutseenak! Itsu itsuban kristinaubak sinistu biar ditu pedeko misterijo guztiak, andijk eta altubak izan arren, zegaiti edo zelan ete diran jakiteko errazoiak topeetan ibili bagarik. Jangoikuak esatia eta Elesa Ama santiak erakustia asko da guk ziur ta pirme guztiak sinistuteko. Bestelan ezin euki ginai geure

Jangoikuagan ez konpabajtarik, ez amodijorik. Dudiagaz, sospetxiagaz ta pede txaarragaz begiratuko geunkijo Jangoikuari geure salbazinoeko gauzeetan, itsu itsuban sinistuko ezpagenduz bere promes andijk. Ta orregaiti esaten da biar dala pedia Jangoikua ameetako.

III.

Beste ainbeste esaten da esperantzia gati. Esperantzia da Jangoikuak geuri duarik emondako birtute bat, zeñegaz daukagun ustia, geure pekatuben parkazinoia ta zeruko gloria zabala jadiisteko. Ez geure merezimentubak gaiti bakarrik, ezpada Jangoikuaren miserikordija gaiti, Jesukristo geure Jaunaren pasinoeko ta erijotzako merezimentubak gaiti, Ama Birjina maitia bitarteko dala ta geure obra onen medijoz. Esperantza santa au eukiteko erakutsi dosku Jangoikuak bere ontasuna ta miserikordija. Jangoikuaren Seme bizija gizon egitiak, donzella baten sabelian enzerrauta egotia, Jesusen Belengo jaiojtsa pobriak, penazko bizitzia, kurtzoko erijotziak, pekatubak parkatuteko dagozan sakramento santubak ta Ama Birjina Santissimiaren erraija bigunak eta errukiorrak obligeetan gaitubee, Jangoikuagan esperantza pirme bat eukitera.

Amodijuaren ta miserikordijaren senalle agiri oneek emon ezker, Jangoikuak berak bere nai dau ta aginduten dosku, beragan konpiantza oso bat eukiteko, geure arimako salbazinoia berari eskatuteko, berari erre-gutute ko ta geuk geure partez alegina egin ezker, ardura bagarik bere eskubetan geure salbazinoia isteko. Alan animeetan ditu Espiritu Santubak kristinu guztiak Jangoikuagan salbeetak esperantzia eukitera, esaten doskunian egon gaitezala guztiok duda bagarik Jangoikuaren promes andijetan. Sinistu daigula duda bagarik, Jangoikua ona, miserikordiosua, zuzena ta altsuba dala, esan daben guzta kunplietako. Eldu gariala zerurako ustia eukitera, zeñegaz balijetan garian ankora pirme ta seguru bategaz leez. Ankora batek itxasoko ontzijagaz egiten dabena, dino san Agustinek, egiten dabela geugaz zerurako esperantziak. Aisiak alde batera edo bestera ontzia itzuli gura dabenian itxasuan, boteetan jako ankoria ta ak eraozten deutsa ontziari itzultia; ta kristinauba bere zeruko gloria-ren esperantziak pekatu egin bagarik eukiten dau munduko aise txaar, tentazinoe ta pelleburu gaistuetan.

Egija da, zerura juateko esperantza pirmiak ez dau kentzeen arima-ko bildur guzta. Jangoikuaren miserikordijk eta Jesukristo geure Jaunaren merezimentubak emoten deutsee kristinaubari, batetik, uste osua



salbeetako; ta besteti, bere pekatubak ta aurrera jausiko dan edo ez dan jakinezak bildurtutenean, salbauko ete dan edo ez. Ez daki inok bere, zeruko aparteko abisuba bagarik, pekatuban dauan ala grazijan dauan; Jangoikuaren adiskidia dan ala arerijua dan; salbauko dan ala kondenauko dan. Ta orregaiti esaten dau san Pablo apostolubak bildurragaz eta ikariagaz jadisteko geure arimako salbazinoia. Ta san Agustinek dino, bildur bagarik zerura juateko ustia daukana, ardura bagakua dala ta ardura bagarik galduko dala; ta bildurra gaiti esperantzia galtzen dabena, galdua dauala ta jasten dala inpernubetara. Bildur izan biar dogu pekatu egiten, kondenau ez gaitezan pekatubagaz; baña pekatu egin arren, biurtu biar dogu parkazinoia jadisteko uste osuagaz Jangoikuaren miserikordijara; ta sinistu biar dogu Jangoikuak parkatuko doskuzala geure pekatu guztiak, damu egiazkuagaz ta esperantza osuagaz eskatuten badeutsagu. Eskatu daijogun, bada, Jangoiko guztiz onari Jesusen merezimentubak gaiti pede bizi bat, esperantza oso bat ta karidade sutsu bat mundu onetarako ta geroko zeruko gloria. Amen.

IRUGARREN LEZINOIA

zeñetan erakusten dan
zelan dan Jangoikua guztiz maitegarrija ta zegaiti.

Esanda geratu da, neure entzula onak, leengo dotrinaan, lelengo mandamentu santubak zelan aginduten doskun kristinu guztioi Jangoikua ameetako beste gauza guztiak baño geijago; ta baita pedia ta esperantzia biar diriana bere, mandamentu onek aginduten dabena egiteko. Ta oan esango da, zegaiti amau biar dogun Jangoikua beste gauza guztiak baño geijago.

Kristinu guztiak dakijee lelengo mandamentubak aginduten dabena Jangoikua beste gauza guztiak baño geijago ameetako; guztiak dakije, Jangoikua amau bagarik, zerurik ez dauana. Baña ez ditubee guztiak, eze gitxiagok bere ezaututenean, Jangoikua ameetako daukaguzan errazoiak. Ta augaiti dagoz kristinu gitxi Jangoikua bene benetan ameetan dabeenak.

Gauza siku bat, otz bat, derrigorreko bat edo nora ezeko bat balitz leez begiratutenean askok Jangoikua ameetari. Noberaren gogokua bada persona bat, a pozik eta gustoz ameetan da; baña noberaren gogokua ezpada, etxako kasu andirik egiten. Gejen bere gatzik ez desietia da noberaren gustoko ez dan personarentzako dauan amodijo guztia. Inori gatzik ez gura izatia ta ameetia bi dira.

Ez da asko Jangoikua ameetako Jangoikuari gatzik ez gura izatia, ezpabere onezaz ostian, ondo gura izan biar jako Jangoikuari, amau biar da, alabau biar da ta maite izan biar da Jangoikua beste gauza guztiak baño geijago. Bada, kristinu guztiak pozik, gustoz ta errezzo, berekauten leez, ezer bere kosta bagarik ta pena bagarik amau daijen geure Jangoiko guztiz ona, iminiko ditut errazoe batzuk, edozeñek aitu leizanak; eta Jangoikua ameetara obligeetan gaitubeenak. Alkarri oratuta leez egongo dira mandamentu onetako dotrinaak eta ez aaztu bategaz bere, guztiak entzun artian.

Ez dago inor bere, neure kristinaubak, ain zororik, ain itsurik edo ain tontorik, gauza bat guztiz ona dana jakin ezkerro ameetan ez dabeni. Ta zeinbat dan onagua, gogokuagua ta palta gitxiago daukazana gauza a, ainbat izaten da arentzako karinua ta amodiju andijagua. Ta bada eskina guztietai akabauba, txito guztizkua ta bapere tatxa bagakua, orduban



arentzako amodijua, karinua ta borondate ona bere osua, guztizkua ta akabauba da. Pensau eizuz bada, kristinaubak, zeubei guraarija emoten dotsuben gauza on guztiak; zeubek desietan dituzun edo onak diriala dei-txazun kondezinoe ta zirkustanzia guztiak; ikusteko, esateko, entzuteko, eukiteko edo gozeetako goguan jausten jatzuzan maitegarri guztiak. Ta dirianak topauko dituzu Jangoikuagan, dirianak daukaz Jangoikuak berez ta dirianak daukaz ameetan dabenarentzako. Adiskide akabau baten kondezinoe guztiak daukaz Jangoikuak. *Bera da jakituna; bera da zuzena; bera da aberatsa; bera da lauba; bera andija; bera da sendua; bera da pirmia; bera da emon-zallia; bera da parkazallia; bera da graziosua; bera da karinosua; bera da guztien erakua; ta bera da betikua.* Deitxat, neure kristinaubak, kondezinoe oneek guztiok daukazan persona bat ikusiko bazendu, guztiok pozik, guztoz, karinoz eta borondate osuagaz amauko zendukiala persona a. Bada, artu eizu pazienzia Jangoikuaren amodijua gaiti ta ikusiko dozu klaru, guztiak eta geijago daukazala Jangoiko maitiak zeubentzako ta niretzako.

I.

Jangoikua jakituna dalako, amau biar dogu. Jakituria da, neure entzule onak, munduban txito asko estimeetan dan gauzia. Zeinbatek euren burubak kanseetan ditubee eta aziendak kasteetan ditubee, zerbaite geijago jakitia gaiti? Zeinbatek egunazko ikasijari gitxi eitxita, gabak galten ditubee liburubak irakurten, izarrak konteetan, bedarrak esaminetan, itxasuan neurturen, alemanijak zaintutene, luurrak aztertutene, zidarrak eta metalak topeetan ta pisheetan? Zeinbatek osasuna ta juizijua galdu ditubee irago dan sei edo zazpi mila urtian, bakian ta gerraan, osasunian ta gaisuan, zeruban ta inpernuban, itxasuan ta litorrian zer jazo dan ta jazotene dan jakiten? Guraso baten kontentu ta poz guzti da, seme edo alaba jakitun bat eukitia. Kastau daben guzti bapere sentietan ez dau, seme alabak zerbaite geijago ikasten dabenian. Erri baten badago jakitun andi bat, guztiak estimeetan dabee; ta kanpuetan bere konteetan dabee ze jakitun andi ja dauen euren errajan. Guztiak desietan dabee jakitunaren adiskide izatia; urrineti eskribidutako karta bat baño ezpada bere, aren gauzia eukitia; beragaz berba egitia edo zerbaite bere aoti entzutia. Illda gero bere, alako jakitun andijaren senidiak, adiskidiak eta ezagunak ez dira aaztutene beragaz, ezpada esaten dabee: Ah, ze jakituna zan! Neure senidia zan, neure adiskidia zan!

Zegaiti, bada, au gustiau, neure kristinaubak? Jakituria ta jakituna guztiak estimeetan dabeelako, ameetan dabeelako, ta txito asko desietan dabeelako edo jakituria eukitia edo jakitun aren adiskide izatia. Edo obeto esateko, Salomonek dinuan leez, munduko gauza guztiak baño jakituria akabauba geijago ameetan dalako.

Bada, kristinaubak, munduko jakituria guzti Jangoikuaren aurrera jaso ezkerro, zorakeria utsa baño ez da. Jangoikua da jakitun bakarra. Jakitun guztien Jakituna ta jakituria guztiaren erakuslia. Ikasten ibili bagarrik daki Jangoikuak zeruban, inpernuban, itxasuan ta luurrian jazotene dan guzti. Kansau bagarrik konteetan ditu Jangoikuak zeruban dagozan aingerubak eta santubak, inpernuban dagozan kondenaubak, linbuhan dagozan arimaak, itxasuan dagozan arrainak eta ariaak, luurrian dagozan bedarrak ta munduban jaijo dirian ta jaijoko dirian persona guztiak. Mundubaren asierati ona gizon ta emakume guztiak zer esan dabeen, zer egin dabeen, zer pensau dabeen ta zer esan, egin edo pensauko dabeen guzti daki Jangoikuak. Urrineku dakiurrekua leez, aintxinakua oangua leez ta etorkizuna iragotakua leez; ez destajuban, eitzijan, dudaan edo guzurrez naastauta munduko jakitunak leez, ezpada zuzen, artez, argiro ta klaru dakiz Jangoikuak gauza guztiak, nos, nun, zelan, zegaiti ta zetaraño dirian. Munduban inok ezer badaki, Jangoikuak erakutsitako puskia baño ez daki; ta dakkienetan bere (pediaz osterantzekua) guzurrez naastauta baño ez daki. Jangoikua da jakitun bakarra edo jakituria utsa.

Bada, kristinaubak, munduko persona bat ainbeste ameetan bada ta estimeetan bada jakituna dalako; ta ainbeste desietan bada aren adiskide izatia, zeinbat geijago amau biar dogu ta estimau biar dogu geure Jangoikua, jakitun guztien jakituna dalako? Gauza guztiak berak dakizalako ta dakigun puskia bere, berak erakusten doskulako? Ordu lauren baten edo istante baten geijago erakusten deutsa Jangoikuak gere arimiarri munduko liburu ta maisu guztiak erakutsi leijuen baño. Merezietan dau, bida, Jangoikuak beste gauza guztiak baño geijago geuk bera ameetia, jakitun akabauba ta guztizkua dalako.

II.

Zuzena dalako bere amau biar dogu Jangoikua, beste gauza guztiak baño geijago. Zuzentasuna da, munduban txito asko estimeetan dan gauza bat. Berbetan, tratuban ta artu emonian zuzen izatiak beragaz dakar guztiak estimazinoia, errespetua ta amodijua. Ta paltsakeriak, engañubak,



malezijak eta arpegiera bi egitiak dakar guztien gorrotua ta ikusi ezina. Paltsuagaz ta engañuba darabilenagaz ez dau inok artu emonik gura ta ez dau inok berbarik bere egin gura, nora ezian edo Jangoikuak aginduten dabelako baño. Baña persona zuzen bategaz, zintzo bategaz, bere kontra bada bere beti egija esaten dabenagaz, guztiak euki gura leukee ezauberia, artu emona ta adiskidetasuna. Zuzenari guztiak begiratutenean deutsee bijotz onagaz, amodijuagaz ta karinuagaz. Ta au zeubek guztiok esaten dozuna ta sarritan jazoten jatzuna da. Pozik eta gustoz juaten zara zuzenagaz traiteetara, ta paltsuagana nora ezian baño ez.

Bada, kristinaubak, munduko zuzentasun guztia guzurra, engañuba ta paltsakerija baño ez da, Jangoikuaren zuzentasunagaz bat egin ezkerro. Jangoikua da berez zuzena, arteza ta egijazkua. Gizakume guztiak dira euren guzurtjak, dino Dabid erregiak. Jangoikua da bakarrik justuba ta bere juizizjua da bakarrik zuzena. Ez dago luurraren gañian inor bere ain zuzenik, egunian sarritan uts egiten ez dabenik. Jangoikua da bakarrik uts egiterik ez daukana. Mundura etorri dirian gizon eta emakume guztiekin, zeruban dagozan aingeru guztiekin ta inpernuban dagozan diabru guztiekin euki dau Jangoikuak kontubak eginkizuna; ta ez dago guztien artian bat bere Jangoikuaren kexia daukanik edo Jangoikuak engañau dabenik. Ez dago guztien artian bat bere, Jangoikuak beria zuzen emon ez deutsala dinuanik. Ez dau sekula inok berba on bat esan, ez dau sekula inok pensamentu on bat, desio on bat edo intenzinoe on bat euki edo obra on bat egin, Jangoikuak zuzen ta ziur pagau ez deutsanik. Ez bakarrik zeruban dagozanai, baita inpernuban dagozanai bere ta baita inpernura juango diriana dakijanai bere. Ez dau sekula, ez jentilek, ez judeguk, ez erejek, ez kristinauk gauza on bat egin, aren paguba zuzen Jangoikuak emon bagarik. Euren pekatubak gaiti kondenauko dirianai, pekatu mortalian dagozala egiten baditubee obra onen batzuk, pageetan deutseez Jangoikuak mundu onetan ziur, edo osasunagaz, edo ondasunekin, edo beste munduko portunen bategaz, il baño leenago. Ez da inor bere geratuko, bere obra on guztien sarija zuzen artu bagarik, edo mundu onetan edo bestian. Ta ez deutsa inori bere eskatuko Jangoikuak, zor daben baño geijago. Geijago emon deutsanari, geijago eskatuko deutsa; gitxiago emon deutsanari, gitxiago; baña guztiak ta bakotxari zuzen ta artez emongo deutsee kontuba ta errazoa, zegaiti geijago ta zegaiti gitxiago emon deutsen ta baita emongo deutsee guztiai zuzen eureen mereziduba bere. Au guztiau da pedeko egija.

Nok amauko ez dau bada, neure entzula onak, ain Jangoiko zuzena ta arteza? Ez dau merezietan Jangoikuak geure amodijo guztia, karino

guztia ta bijotz guztia ain zuzena ta justuba dalako? Ez deutsagu entre-gauko Jaun guztiz zuzenari geure borondatia oso osorik, jakin ezkero bera dala kontubak zuzen emongo doskuzana, bera gaiti egiten dogun guztia edo esaten dogun guztia ezer bere aaztu bagarik eta gitxitu bagarik pagauko doskuna? Egon leiteke gauza bat maitegarriaua ta geure bijotza geijago beragana eruaten dábena, ain Jangoiko zuzena baño? Errazoiaren usura eltzeen garianeti erijotzako ordurañoko pensamentu, berba ta obra guztien kontuba berari emon biako deutsagu. Konturik nausijenak, konturik naastaubenak eta konturik balijotsubenak Jangoikuagaz egin biako ditugu erremedio bagarik. Zeinbat estimau biar dogu bada, neure kristinaubak, Jangoikua guztiz zuzena, ziurra eta arteza izatia, geure kontubak guztiak beragaz egiteko? Oh, neure Jangoiko zuzena, beste prenda onik ezpazeunka bere, Zeu guztiz zuzena izatia da asko nik bijotz guztiagaz ta arima guztiagaz zeu beti ameetako!

III.

Aberatsa da Jangoikua, ta augaiti bere merezietan dau geure amodijo guztia. Errazoe au ezaututeko, ez dago paska bat begijk zabaldua begiratu baño, zer iragoten dan kristinau guztien goguan. (Oan bakarrik esaten da Jangoikua jakituna, zuzena, aberatsa... dana, errazoiak garbiruago imintia gaiti; gero esango da, dan leez, guztia ameetan dabarentzako dana). Dinot, bada, aberatsa izan ezkero Jangoikua, ez dauala begiratu baño zer iragoten dan kristinauben bijotzetan, geure amodijo guztia merezietan daben edo ez ezaututeko. Inok bere ukatu ezin lei ondasunak geure bijotza laster penzieta dabeena. Ondasunak senduak domeetan ditubee, altubak beeratutenean ditubee, txikijak azten ditubee ta andijk txikitutenean ditubee. Ondasunak begijk argitutenean ditubee, gogua alegeretutenean dabee, bijotza poztzen dabee ta, dagozan lekuban dagozala, geure amodiju eureetara daroie. Beti da egija, ondasunak asko ameetan diriala ta dirubari guztiak obeiduten deutseela. Diruba ta ondasunak Jangoiko txiki batzuk diriala. Aberats bat guztiak ondo esaten deutsee, guztiak obeiduten deutsee, guztiak serbietan dabee ta aberats izatia baño beste paltarik ezpadauka, guztiak estimeetan dabee ta ameetaan dabee.

Erdu, bada, oan errazoeira, neure kristinaubak. Ondasunak eta aberatsa ainbeste ameetan badira, Jangoikua da ondasun guztiak daukazan aberatsa. Basuak guztiak, soluak guztiak, etxiak guztiak, palazijuak guztiak ta erreñubak guztiak beriak ditu Jangoikuak ta nai dabenari emoteko dau-



kaz. Ganadubak guztiak, txorijak guztiak ta arrainak guztiak beriak ditu Jangoikuak ta nai dabenari emoteko daukaz. zidar,urre, diamante ta esmaralda guztiak beriak ditu ta nai dabenari emoteko daukaz. Indijetako ondasun estimau guztiak, erregea ta andijen palazijuetako ta soineko urreria, seda, damasko, grana, karmesi ta perleria guztia beria dau ta nai dabenari emoteko dauka. Munduban dagozan gizon eta emakume guztiak, errege, kaballero, obispo, sazerdote, señora ta despeidengo pobreañoko guztiak beriak ditu ta nai dabena egiteko daukaz. Ondasun oneek guztiok beriak ditu Jangoikuak, bere eskubetan daukaz ta nai dabena egiteko daukaz; baña oraindino ez dabee merezietan, santa Teresa ene Amak dinuan leez, zapatapeko simaurrak baño estimazinoe gejago, Jangoikuaren beste ondasunekin bat egin ezkero. Jangoikuak bera ameetan dabeenentzat zeruban daukazan ondasunak ikutsi zituban, baña ez da atrebietan san Pablo apostoluba zelakuak dirian esaten. Apostolu santuba kontentau zan esanagaz, ez begijak ikusi, ez belaarrijak entzun, ez entendimentubak aitu eukezala ondasun andija areek. Bada, kristinaubak, ugarrira darijon diru paska bat ta sitsak jaaten daben tresna bat ainbeste ameetan baditugu, zeinbat gejago ta gejago amau biar dogu geure Jangoiko aberatsa? Oh, neure Jangoiko guztiz aberatsa, emon eidazu niri zeure ondasunen gosia ta areek bakarrik ameetako gogua ta bijotza! Ez dot beste ondasunik gura, neure Jangoiko ona, zeu baño. Zeugaz kontentetan da neure bijotza ta zeu gozeetan egon gura dau eternidade guztian zeruban. Alan izan della. Amen.

LELENGO MANDAMENTUBAREN LAUGARREN LEZINOIA

*zeinetan erakusten dan
aman biar dogula Jangoikua gauza guztiak baño gejago, lauba,
andija ta indartsuba dalako.*

Jangoikuak merezietan badau, leen esan dana gaiti beste gauza guztiak baño gejago ameetia, ez dau gitxiago merezietan *lauba dalako, andija dalako ta indartsuba dalako*.

I.

Lauba da Jangoikua ta au gaiti bere merezietan dau geure amodijo guztia. Deitxat ez daukadala zetan esplikau lau izatiak zer esan gura daben. Bada, zeubei sarri entzuten jatzun gauzia da zer dan lau izatia. Kaballero edo beste persona aparteko bat gaiti ondo esan gura dozunian, lelengo lelengo esaten dozuna da: *entero lauba da, andiari bagakua da*. Aberatsak eta pobriak, andijk eta txikijk eta edozein bere kondezinoeko personaak bardin estimeetan baditu ta bardin berba egiten badeutsee, guztiak projimuak dirian leez, orduban esaten da dala lauba.

Ta au da prenda bat, txito asko estimeetan dana. Andiarria, burubaren eitzixa ta noberak edu ondosun, jakiturria edo entzute ez daukeenak desprezijetia ta alakuekin berba kontaubak baño ez egitia da, guztiai empaduba emoten deutseen soberbiña ta banidadi. Biziго guztiak sustraijak zabalduta daukeez ta banidadiak eta andiarriak ez daukeez txikarrenak. Lau errial daukazana lotsatuten da bi baño ez daukazanagaz trateetan. Aberats batek uste dau, mesede andi bat egiten deutsala pobriari berba bat edo agur bat eginagaz. Guraso pobreen ume bat deskuiduan aberats-tutuen bada, lotsatuten da bere aitagaz ta amagaz; ez dau areen izenik bere entzun gura, ezda etxian sartu dakijozan bere. Eskian ibili dan bati portune txiki bat etorten bajako, laster aaztutzen da leenago berari ateetan limosnia emoten eutseen ongilleekin. Onako soberbijarik, buru eitzirik edo entzunda bere enpaduba emoten daben biziго inpamerik ez daukeen kristinauba, guztientzako arpegiera bardina daukeena,urrekuari ta urrinez-



kuari, pobriari ta aberatsari, jausita dauanari ta zutinik dabilenari gogo bardinagaz ta borondate onagaz lagunduten deutseena, guziak estimeetan dabee ta ameetan dabee, lauba dalako.

Jangoikua da bada, neure kristinaubak, banidade bagakua, andiari bagakua ta guztiz lauba. Jangoikua ez da inogaz bere lotsatuten, ez dau inor bere desprezijetan, ez deutsa inori bere ezentzunik egiten. Andijentzat, txikijentzat, ondraubenzat ta desondraubenzat, guztiengoz da bardina Jangoikua, bera amau ezkero. Ain borondate onagaz erantzuten deutsa Jangoikuak kurutzian josita dauan lapur desondraubari zein Jerusalengo juez nausijari. Ain pozik sartzeen da Jangoikua Lazaroren, Martaren ta Marija Madalenaren etxe humildian zein paresijo aberatsarenian. Ain gusto andijagaz berba egiten deutsa Jangoikuak uretarra doian Samariako emakume pekatarijari zein Isrraelgo legegin, agintari ta obispua. Ain pozik andijagaz begiratuten deutsa Jangoikuak Elesa guztia persigido dabentzat Pabloi zein Elisiaren buru egin dabentzat san Pedrori. Milla exenplu dagoz, neure entzula onak, Eskritura Sagraduban Jangoikuaren bijotz lauba ta bardina erakusteko, geuk bera amau ezkero. Moises arzain pobriagaz berbeeta luziauak daukaz Jangoikuak Faraon Ejitoko errege andijagaz baño. Dabid arzainagaz obeto dibertietan da Jangoikua Saul Isrraelgo erregiagaz baño. Samuel mutil gaztari obeto zabaldutzen deutsaz Jangoikuak zeruko misterijuak Eli sazerdote nausijari baño.

Munduban dagozan gizon eta emakume guziak, entzute andija daueenak ta bapere ez daueenak, ondasun andijkat daukeezanak ta aterik ate eskian dabizanak, destierruban dagozanak eta tronubetan jarrita dagozanak, dirianak bardin estimeetan ditu ta bardin ameetan ditu Jangoikuak, eurak bardin ameetan badabee. Ain pozik dua Jangoikua mendiarteko txabola baten dauan ikezgin pobria konsoleetara zein palazio andi baten dauan erregiagana; kaarzela baten dauan presuagana zein seda artian ta urre artian dauan kaballero nausijagana.

Oh, neure kristinaubak! Ez dakit zetara biurtutenean pensamendu onek geure arimia ta gere bijotza. Jangoikua bera, inori bere ezer zor ez deutsana, inoren bere preminarik ez daukana, ain lauba, ain humildia ta ain kondezinoe onekua pekatarijarenat! Oh, aingerubak, alabau eizu ta amau eizu zeuben Jangoiko altuba, humildia ta lauba! Oh, ene arima pobria, begiratu eijo zuere Jangoikuari, bai zerubetan ta luurreko aberats ta pobre guztietan; ta urtu zaite al badaizu bere amodijo santuban! Bada, guztia merezietan dau Jangoikuak, lauba dalako.

II.

Jangoikua da Andija. Ta au gaiti bere merezietan dau beste gauza guziak baño geijago ameetia. Guztiok ezaututenean dozuna da, neure kristinaubak, gauza bat ona izan ezkero, zeinbat andijago, ainbat dala obiago. Urre pillo bat zeinbat andijago, ainbat dala obiago. Gari pillo bat zeinbat andijago, ainbat dala obiago. Adiskide bat zeinbat danaberatsaguak eta entzute andijaokua, ainbat geijago ameetan da ta estimeetan da. Adiskide pobriak intenzinoia ta desia euki arren mesede egiteko, gauza andirik ezin lejo inori, zegaz ez daukalako. Orregaiti askok esan darue adiskide pobrerik ez dabeela gura. Adiskide pobria adiskide txikiak da ta orregaiti pobreentzako palazio gitxi munduban iminten dira, ta adiskide asko bere ez dabee topeetan. Gauza gitxjak berez ona izan arren, estimazinoe txikiak dauka; baña berez ona izan ezkero, andija bada, guziak estimeetan dabee ta ameetan dabee.

Jangoikua da bada, neure entzula onak, gauza on guztien artian andijena. Andija da Jangoikua ta txito guztiz ondo alabeetia merezietan daben, dino Dabid erregiak. Nora juango nas, esaten deutsa Jangoikuari Errege santubak berak, nora juango nas zeure espiritubaganik ta nora iges egingo dot zeure arpegijaganik. Zerubetaraño igoten badot, zu an zagoz; inpernubetaraño jasten banas, an bere prest zagoz. Ego batzuk artuta egunsentijan iragoten banas itxasuen eskinaraño, zure eskubak an bere geratutenean nau. Pensau neban, menturaz ilunak apartuko nindubala zure aurreti ta gabak ezkutauko nindubala zukanik; baña gabak egunak leez argi egiten dotsu zuri; gaba ta eguna bardin dira zuretzako. Berba oneek guztiok dira Dabid erregiarenak.

Jangoikuaren anditasunak despeidarik ez dauka. Leku guztietan ta denpora guztietan dago Jangoikua guztiekin ta dago bakotxagaz. Jaaten bagagoz, geugaz dago; lo eiten bagagoz, geugaz dago, ta eitzartuta bagagoz bere, geugaz dago geure Jangoiko maitia. Ain kontuz zaintutenean dau, gordeetan tau begiratutenean deutsa Jangoikuak Erroman daukan adiskidiari zein Indijetako baztarrian daukanari zein Elesa onetan daukanari. Zerubak eta luurrak baño andijago da Jangoikua ta orregaiti dago leku guztietan edo, obeto esateko, beragaz daukaz gauza guziak eta leku guziak. Jangoikuagaz bizi gara, Jangoikuagaz gabiz ta Jangoikuagaz gara gariana, dino Espiritu Santubak. Erdu bada, kristinaubak, errazoe onetara ta pensau eizu, ia Jangoikuak, izan ezkero gauza on guztietati andijena,



leku guztietan ta denpora guztietan geugaz dauana, merezietan daben, edo ez geure amodijo guztia ta bijotz guztia. Ia Jangoikua dan edo ez guztioi topau biar doguna, estimau biar doguna ta amau biar doguna. Ez da zorakerija andija, munduko gauza on iskijen billa ibiltia ta areen enbidija eukitia, gauza on guztietati andijena ta gauza on guztiak beragaz daukan Jangoikua geugaz euki ezkerro? Ameetan badogu Jangoikua, guztia geuria da; ta ameetan ezpadogu, andija izan arren ta geugaz egon arren, bapere ez da geuria Jangoikua, geu kastigetako baño. Oh, kristinaubaren itsutasuna, ain Jangoiko andijaren kontra bizi izatia, aren lege santuba austia ta pekatuban egotia! Oh, Jangoikuagaz dagozan pobre aberatsak! Oh, pekatuban dagozan aberats pobriak! Zeu ameetan zaitut, Jauna; ta zeu amau gura zaitut neure bijotz guztiagaz, gauza on guztietati andijena ta bakarra zarialako.

III.

Ain da akabauba geure Jangoikua gauza guztietan, ze edozein bere gauza on ikusten dogunian edo akordeetan jakunian, guztia ondo kunpliduta topeetan dogu beragan. Gogoratu daiguzan oraindino, neure kristinaubak, adiskide guztizko batek eukitia ondo dan zirkustanziaak. Inok bere ukatu ezin lei txito gauza ona ta estimauba dana, geure adiskidia sendua ta indartsuba izatia. Adiskide senduagaz gagozan artian, bildur bagarik eta seguru gagoz. Baña adiskidia argala, makala ta indar bagakua bada, laster goituten dabee arerijuak ta geratutengara lagun bagarik. Errazoe au, bapere kontuba etara ezkerro, guztiak ezaututengara dabeena da, neure entzula onak. Ezertako ez danari edo gauza gitxi bat baño ezin lejonari, ez deutsa inok erregu andirik egiten adiskide izateko, ezpada nai badau izan della ta nai ezpadau ez. Baña adiskidia bada sendua, indartsuba, arrisku guztietati librau ginaizana ta geu ondo zaintu ginaizana, a txito asko estimeetan dogu ta agazkua ez galtzeiarren, askotan kansestan gara.

Jangoikua da, bida, bakarrik, neure kristinaubak, adiskide sendua ta indartsuba. Jangoikuaren adiskidiak bagara, Jangoikua ameetan badogu, ez daukagu zetan bildurrik euki inoren bere. Jangoikuaren adiskidia banas, libre nago arerijo guztietati. Alperrik jagiko dira nire kontra persekuzioniak; alperrik munduko agintari ta juez guztiak galdu naiko nabee; alperrik inpernuko diabru guztiak su artuta abijauko dira nire ondorik buruko ule bat bere kenduko ez deustee. Munduko agintari, juez, soldau ta berdigu guztiak eureen armeekin ez dira eltxo bat edu bere, Jangoikuaren

indarrekin bat egin ezkerro. Jangoikuak bere adiskidiak zaintuteko, itxasuk agortu ditu, euzkija geratu dau, subak oztu ditu, artzak eta leoiak mansotu ditu. Jonas arrainen tripaan duka Jangoikuak bizirik, Daniel artz gosian artian gordeetan dau, Babilonijako umiak laba gorrijan daukaz erre bagarik. Isrraeltarrei itxasua liortutengut deutee, oñaz iragoteko ta mendi soilian zeruti bialdutengut deutee janari prestauba, Elias bela bat bialduta mantenitan dau, Lazaro ilda laugarren egunian biztuta, sepulturati etaraten dau; san Pablo itxasuren onduan duka ito bagarik; san Pedrori oñetako katia senduak berekauten urratutengut deutsaz; ez erijotziak, ez mundubak, ez inpernubak, ez inok bere ezer ezin lejo Jangoikuaren adiskidiari, Jangoikua bijotz osuagaz ameetan dabenari.

Esaizazu, bida, oan zeuben bizitzia gaiti: euki ginai ditxa andijagorik arerijo guztietati libre egotia baño? Inoren bere bildur bagarik bizi izatia baño? Jangoikua ameetan dabenak ta Jangoikuagan bere konpabajantza guztia iminten dabenak, ez duka inoren bere bildurrik. Ta zeinbat daukan Jangoikuaren amodijo geijago ta konpabajantza geijago, ainbat duka bildur gitxiago ta ardura gitxiago. Oh, zer esango ete eban ene ama Teresak, inpernuko demonino guztiak Santo-Kristo bat eskuban ebala desapijetan zitubanian! Zeen bildur izango ete zan emakume seraphin a? Ez besteren, Jangoikua opendidu ez eijan baño.

Jangoikuaren bildurrik ezak, Jangoikuaren amodijorik eta konpabajantzarik ezak dakaz geugana bildurrak, larrijak eta ikaraak. Trumoe batek, ots batek, tiro batek, gaiso batek edo keiza batek bildurtu ta ikaratutengut. Zegaiti? Jangoikuaren adiskide onak ez garialako, Jangoikua geure aldeti ez daukagulako ta beste munduko sokorru guztiak Jangoikua bagarik utsa dirialako. Topau daigun bida, kristinaubak, Jangoikuaren adiskidetasuna ta gorde daigun bere lege santuba; euki daigun konpabajantza andi bat geure Jangoiko indartsubagan, ta amau daigun bijotz guztiagaz bizitzan ta erijotzan aren dibina Majestadia beste kriatura guztiak baño geijago, geure adiskide lauba, andija ta sendua dalako. Onan seguru iragoko dogu destierru tristiau, ta jadiitxiko dogu zeruban eternidadeko gloria. Amen.



LELENGO MANDAMENTUBAREN BOSTGARREN LEZINOIA

zeñetan erakusten dan

Jangoikua dala adiskide pirmia, emonzallia ta parkazallia.

Jangoikua serbietan gauza gatxa dirurijen guztiak dira errazak eta bigunak amodijua daukanarenzat, dino, neure entzula onak, san Agustinek. Jangoikua bijotz guziagaz ameetan dabenarenzat ez dago, ez gauza gatxik, ez lege gogorrik, ez egin ezinik. Ta Jangoikua erreztzo ta gustoz ameetako, ez dago jarraitu baño adiskide on baten zirkustanzijai, leen esan danaren gañera. Jangoikua da adiskide *pirmia, emonzallia ta parkazallia*.

I.

Jangoikua da adiskide pirmia, ta augaiti bere merezietan dau geure amodijo osua. Gauza jakina da, neure kristinaubak, adiskide ona izateko, pirmiak izan biar dabena. Ez dot nik oan ezer bere esaten adiskidetasun txaarrak eta pekatuzkuak gaiti, ezpada eurenez garbijak eta onak dirianak gaiti. Errazuazkuak eta onak izan arren, ez dira guztizkuak umeen ta gazteen arteko adiskidetasunak, umiak eta gaztiak laster mudeetan dirialako. Ta zeinbat dan eureen arteko amodijua ta karinua andijagua, ainbat daukee galduko ete jakuen edo itxiko ete deutseen bildur eta pena andijagua. Irauten badau paska bat luzaruago, zaartutenean da ta zaartubaz doian leez, dua oztubaz ta galdubaz alkaren arteko amodijua ta adiskidetasuna. Orregaiti nekez topeetan dira gaztetati zaartzaraño beti adiskide izan dirian bi. Ta topeetan badira bere, bata edo bestia (oi danez) leenago ilgo dira ta geratutenean danak eukiko dau galdu jakolako penia. Munduban dagozan adiskide guztiak, edadiaren ta denporiaren partez, beti daukee paltauko ete dabeeen, mudauko ete diriñjan, itxiko ete deutseen edo galduko ete dirian bildurra. Ta zeinbat adiskidetasun andijaua, ainbat pena ta bildur andijaua.

Jangoikua da bada, neure kristinaubak, adiskide bat onako penarik eta bildurrik ez dakarrena. Jangoikua ez umia da, ez gazteegija da, ez zaarregija da. Ez da mudeetan dana Jangoikua. Atzo ta gaur ta beti modu

baten dago Jangoikua, dino san Pablo apostolubak. Munduba baño leenago zana mundubaren asieraan zana ta gaurko egunian dana izango da eternidade guztian Jangoikua. Ez gaisuak argaldutenean dau, ez euzkijak balztutenean dau, ez otzak zuritutenean dau, ez biarrak kanseetan dau, ez edadiak zaartutenean dau Jangoikua; beti dago tertziyo baten ta modu baten. Munduko gizaaldijak mudeetan dira; erreñubak eta ziudadiak mudeetan dira; aziendak eta ondasunak mudeetan dira; osasuna, ondria, gustuak, atsegina, opizjuak eta adiskidiak mudeetan dira ta akabeetan dira; baña Jangoikua ez da mudeetan, ez da gitxitutenean, ez da geitutenean, ez da akabeetan. Munduko adiskidiak aparteetan dira, aaztutenean dira, galtzeen dira ta ilten dira, ta askotan batzuk inpernurako ta bestiak zerurako. Samuel ta Saul adiskidiak zian. Samuel zeruban dago ta Saul inpernuban. Abel ta Kain anaiaik zian leez, duda bagarik adiskidiak zian. Abel zeruban dago ta Kain inpernuban. Jakob eta Esau ta beste milla ta geijagori jatzo jakue beste ainbeste. Oneek guztiok erakusten doskube ez duala munduban ezer, geure amodijo osua merezietan dabenik. Sekula mudeetan ez dan ta beti pirme dauan Jangoikua amau biar dogula gauza guztiak baño geijago. Ez bakarrik adiskide seguruba ta pirmia dalako, ezpada baita emonzalle ugarria dalako bere.

II.

Jangoikuak bere adiskidei ez deutsee ezer bere ukatutenean. Daukan guztia emoten deutsee neurri bagarik. Ta augaiti bere, esker txaarrekuak izatiaren beian, amau biar dogu beste gauza guztiak baño geijago.

Munduban ikusten dogunez, gauzia emoten dabeeenak estimaubak dira. Ta zeinbat geijago emoten dabeeen, ainbat estimaubago. Adiskidia izan arren, urrija ta zekena bida ta ezer emoten ezpadaki, laster esaten dau beretzako dala obia, inorentzako baño alako adiskidia. Baña orduba danian edo preminaan dauanian emoten badaki gauzia ugari, alako adiskidia duda bagarik ameetako ta estimeetako da; ta sekula atzera ezer artzeeko esperantza bagarik emoten badau, oraindino milla bidar geijago ameetan da ta estimeetan da.

Begiratu eizu bada oan, kristinaubak, errazoiaren paska bategaz, ia Jangoikuak merezietan daben edo ez guk ameetia ta estimeetia, geuri gauzia emoten dakijelako. Onetarako jakin biar dozu lelengo, Jangoikuak ez daukala inoren bere preminarik. Zerurik edo mundurik egin ezpaleu bere, aingerurik edo santurik ezpaleo bere, kriaturaren errasturik erne, sortu



edo jaijo ezpalitz bere, Jangoikua Jangoiko izango zan beti. Zeruban dagozan guztiak inpernuban balegoz bere, ezer paltauko ez litzakio Jangoikuari; ta inpernuban dagozan guztiak zeruban balegoz bere, dan edo izango litzaateke Jangoikua. Inok bere Jangoikuari ezer geitu ezin leijo; ta ezda gitxitu bere. Berez da, dan guztia.

Deskuiduan inok penseetan badau limosna bat egitia, baru bat eitia, meza bat entzutia edo beste obra on bat egitia, sinistuta egon bedi ez deutsala Jangoikuari mesederik egiten, bere arimiarri baño. Jangoikuak nai dau, guk obra onak egitia ta zeruba irabaztia, geu ameetan gaitubalako; baña ez gure obra oneen preminia daukalako. Ain ondo Jangoikuaren gloria aurkituko litzaateke gu guztiok inpernuban egonagaz zein zeruban egonagaz.

Bigarrenian jakin biar da, Jangoikuak ez deutsala inori bere ezer zor. Jangoikua da bakarrik zorrak ez daukana. Munduban dagozan guztiak alkarriz zer edo zer zor deutsee. Guztiok gara bata bestiareng zordunak. Ezin sekula kristinau batek beste batia esan leijo egijagaz: *ez dotsut ezer zor*. Jangoikua da bakarrik guztiai au esan leijuena. Jangoikuak emoten daben guztia, duarik emoten dau ta inok atzera pagauko deutsan esperantza bagarik.

Pensau eizu, bada, oan istante baten, kristinaubak, ia Jangoikua adiskide zekena ala emonzalle ugarija dan. Ta erremedijo bagarik konpesauko dogu, guztiz esker txaarrekuak eta lotsa bagaak ezpagara, amau biar dogula Jangoikua beste gauza guztiak baño geijago, emonzalle ugarija dalako. Nok emon dosku daukagun izatia? Nor gaiti ez gara kristinau bakotxa arri bat, zur bat, alemanija bat edo ezer bere ez? Ezin egin eukian Jangoikuak, gu egin ginduzan lekuban, arbola bat, atx bat edo bildos bat? Bai, nai izan baleu. Geure gorputza ta arimia pormauta bere, ezin il edo ito gendukezan amaren sabelian gengozan lekuban? Bai, nai izan baleu. Nok emon doskuz entendimentuba gauzaak ezaututeko, borondatia ameetako, memorija goguan eukiteko, begijk ikusteko, belaarrijak entzuteko, miina esateko, oñak ibilteko, eskubak biarra egiteko ta beste sentidubak, geure erara eukiteko? Ezin itxi gendukezan Jangoikuak zoratuta, endemoniauta, itsututa, mutututa, gortuta edo errenduta, beste asko itxi dituban leez? Nai izan baleu bai. Mesede oneek beste askori ez deutseez egir, zor ez eutsezalako; ta guri egir doskuz ta egiten doskuz duarik, berak gura dabelako. Geijago oraindino. Nok gure laboriak erneetan ditu, azten ditu ta eldutene ditu? Nok eguna zabaldutene dosku, euzkija agertutene dosku, ilargija emoten dosku, udiai ta negubari emoten deutsee geure erarako indarra ta birtutia? Zer izango litzaateke beti gaba balitz? Zer beti

udia balitz? Zer beti neguba balitz? Oh, ze mesede ugarijak! Ta esanda geratu da Jangoikuak ezer zor ez doskula, ezpada guzia duarik emoten doskula. Ta oraindino esan dan guzia Jangoikuak bardin emoten deutsee onai eta dongai, pekatarijai ta justubai, adiskidetako arerijuai.

Ta onezaz ostian, zer emoten ez deutsa Jangoikuak bere adiskide bat edo kristinau egijazko bat? Oh! Emen agortutem da geure entendimentuba. Emoten deutsa Jesukristo, Jangoiko eta gizon egijazkua, ogi paska baten itxuraan jaateko ta arda paska baten itxuraan eraateko; emoten deutsaz aingerubak lagunduteko; emoten deutsaz sakramentubak; emoten deutsa grazija; emoten deutsaz Espiritu Santubaren doia; emoten deutsa, berba baten guzia esateko, bere bijotz zabal, ugari ta maiatgarri oso osorik, bera ameetan daben kristinaubari. Daukan guzia, Jangoikuak duarik emona da; ta Jangoikua ameetan badot, Jangoikuak daukan guzia bere neuria da. Nauan lekuti sekula alderik agingo ez neuke, Jangoikuaren esku indartsubak erain bagarik. Berba bat geijago esango ez neuke, Jangoikuak erasoko ezpaleust. Neurez ezer bere ez nas, ez gorputzerako ta ez arimarako; baña Jangoikua ameetan badot, Jangoiko guztia ta Jangoikuak daukan guzia neuria da. Oh, Jangoiko zabal! Oh, Jangoiko ona! Oh, Jangoiko emonzalle ugarija! Ameetan zaitut ta amau gura zaitut, bida, nik neure bijotz guztiagaz. Emon eidazu grazija, zeu baño beste gauzarik sekula ez ameetako.

Oh, ze zorakerija, ezer bere balijo ez dabeen luurreko gauzaak topeetia, ameetia ta estimeetia Jangoikuaren lege santubaren kontra! Oh, diru paska bat, ondra paska bat, estimazinoe paska bat, aragijaren gusto loi bat jan bat edo eran bat gaiti arimia, osasuna ta kleituba arriskuban iminten dituban pekatarijaren zorua! Oh, Jangoikuari itxita, munduko gauzeetan gustua topau gura leukian kristinaubaren itsuka ta errukarrija! Ikusiko bagendu persona pobre bat, duarik emon gura deutseezan ogei eskudokuak artu gura ez ditubala ta beste aldeti zuriko erre bat edo marabedi urdin bat irabazteko izardija, barautsa ta arrastakia darijola dabilela, zer esango genduke a gaiti? Zoro garbiya dala esango genduke. Bida, beste ainbeste ta oraindino zoruago da, gauza on guztijak duarik emoten doskuzan Jangoikua ameetan ez dabent kristinauba. Ugarra ta atsa darijuen luurreko banidadiak eta gustuak Jangoikuaren kontra, ameetan dituban kristinauba. Ta au sinistuta, Jangoikua ameetan ez dabent, pekatu eginda Jangoikuaren legia austen dabent edo Jangoiko emonzalle ugarijaren gorrotuan bizi danak, ez dauka ondo mereziduta inpernuko eternidadeko pena guzia? Duda bagarik esaten da, *baietz*.



Orregaiti esaten dau Jangoikuak berak Jeremias propeta santubaren aoti: Ikaratu zaitez zerubak eta birrindu zaitez zeruko atiak. Gauza donga bi egin ditubee nire jentiak, gauza donga bi egin ditubee kristinaubak: iza-nik neu ur bizi guztien iturri ugarija, neuri itxita juan dira pozu txistarreta-ura eraaten. Esango baleu leez Jangoiko andijk pekatubaren asarriagaz: Neu nas gustuak, atseginak, pozak, ondria, osasuna, ondasuna, grazia ta zeruko glorija daukadana, ta duarik gizonai eta emakumiai eskin-tzen deutseedana; baña eurak neuri itxita duaz munduko atsegir mingo-txak, epelak eta ilgarrijak topeetara ta ameetara. Ta au berau egiten dau kristinaubak, pekatu egiten daben bakotxian. Isten deutsa gauza on guztiak duarik emoten deutsazan Jangoikuari; ta jarraitutem deutsa arimako kezkia, penia, gosia, egarrisia ta inpernuba emoten deutsan guraari txaarrari. Amau daigun bida, kristinaubak, geure Jangoiko ona, Emonzalle ugarija dalako ta baita parkazallia dalako bere.

III.

Bijotz onaren aparteko senallia ta mundukuen artian nekez topeetan dana da, neure kristinaubak, gatx egin deutsanari parkatutia ta arerijuagaz leen bainen adiskide izatia. Ugazabak ez dau beinguan etxian osterartzeen, sarri dongaro portau jakon krijauba. Errege batek ez bere palazioti, eze erreñuti bere laster kentzeen dau edo urkatuten dau bere kontra zerbaitegir egin dabent personia. Jangoikua da gauza onetan bere aparteko ontasuna erakusten doskuna. Pekatu mortalra eginen dabentak opendietan dau Jangoikua, injurijetan dau Jangoikua, desondreetan dau Jangoikua, saltzeen dau Jangoikua ta adiskide eiten da Jangoikuaren arerijorik andingenagaz, zein dan diabrubia. Ta zer egiten dau, bida, Jangoikuak alako kristinaubak txaarrekuagaz? Kristinauba bere gaiski eginagaz garbatutent danian, parkatzen deutsa Jangoikuak pekatuba ta geratutent da leen bainen adiskide. Kristinaubak pekatu mortalagaz asarratuta euki arren Jangoikua, esaten badeutsa bijotz osuagaz eta damu egijazkuagaz: *pekatu egin dot, Jauna; damu dot, Jauna; parkatu, Jauna; miserikordija nigar, Jauna; ez dot ostera egingo, Jauna; konpeseetan dot, Jauna, neure pekatuba.* Au esanagaz ta eginagaz batera aaztutent da Jangoikua pekatarijak egin deutsazan injurija ta desondra guztiekin, ta artzen dau bere etxian, bere palazjuan, bere maijan ta bere onduan pekatarija a, sekula ta beti bere adiskide andija izan balitz leez.

Oh, neure Jangoiko ona ta parkatuteko presta! Nok amauko ez ditu zeure erraija bigunak eta miserikordijazkuak? Nok bere bijotza urtuko ez dau, neure Jesus maitia, zeure amodijuagaz, zeure bijotz amodijozkuari, karinosuari ta parkazallari begiratu ezker? Oh, kristinaubak, nos asiko gara Jangoiko parkazalle ona ameetan! Oh, Marija Madalena, Dabid erre-gia, san Pablo apostoluba ta san Agustin ditxosua! Zer esango zenduke zubek Jangoikuaren bijotz biguna ta parkatuteko presta gaiti? Berandu asi nas, jauna, zeu ameetan, esango leukee ta ondo damututa nago, leenago zeu amau eza. Oh, Teresa gorputzezko serapina! Zer dinozu, zeure bijotzian kabidu ezin dozun Jesusen amodijo sutsuba gaiti? Aingeru batek suzko ezpatiagaz edegi biar dotsula zeure bijotza, Jesusen amodijuaren suba nasaitu dakizun. Beste ainbeste esan biar dogu, bida, jeuk bere, neure kristinaubak. Akordau gaitezan zeinbat bidar pekatu egin dogun ta simistu daigun beste ainbeste bidar Jangoikuak etara gaitubala inpernati. Bida, ez da mesede txikijaua pekatu mortal bat parkatutia, inpernati etaratia baño. Ta ez dau Jangoikuak injurijaak parkatuteko denpora luzerik biar. Pekatu egin dabentori ordu lauren barru biurtutent bida Jangoikuagana, esan dan leez, bertati parkatzen deutsa Jangoikuak pekatarijari, ta aaztutent da betiko pekatarijak egin deutsazan gatx guztiekin. Amau daigun bida, kristinaubak, Jangoiko parkazalle ona; ez daigun ezeitan bere ausi bere lege santuba ta eukiko dogu zeruban eternidadeko gloria. Amen.



LELENGO MANDAMENTUBAREN SEIGARREN LEZINOIA

zeñetan erakusten dan

*Jangoikua dala adiskide biguna, karinosua, guztien erakua
ta betikua.*

Jangoikuak euki arren esan dirian ontasun guztiak geuk ameetako; beste gauzaak baño geijago beraren anditasuna; oraindino balitz aren dibina Majestadia bera ameetan dabeenentzako asarria, gogorra, zitala, itzalsuba edo inok beragaz iraun ezin daben jenijo txaarrekua, ez litukez paltako kristinaubak atxekiajaak Jangoikuari itxita munduko gustuak ameetako. Baña kristinaubak topau ta asmau leizan atxekija guztiak atia itxita daukee, ta nai ta nai ez dabela bere konpesau biar dau Jangoikua dala adiskide guztiz akabauba ta guztiz maitegarrija. *Jangoikua da adiskide biguna, adiskide karinosua, guztien erarako adiskidia ta betiko adiskidia.*

I.

Jangoikua adiskide biguna ta karinosua da. Ta izan leitekienik biguneena ta karinosuena. Ezaututeko ze erraija bigunak eta bijotz maitia daukan Jangoikuak bera ameetan dabenarenzat, ez dago begiratu baño zelan porteeetan dan bere adiskideekin. Ama on batek alaba bakar bat ezin artu lei bijotz bigunauagaz ta maitetasun andijuagaz, zeinda Jangoikuak artzeen dituban ta trateetan dituban bere adiskidiak. Ez bakarrik zeruban beragaz daukazanak; baita munduban bera serbietan dabeenak eta bere grazijan daukazanak bere. Irakurri bitez Espiritu Santubak Salomonen aoti arima justubari esaten deutsazan kantaak, ta an topauko dau bijotz bigun batek desiau leijan gozotasun, dultzura, karino ta amodijo guztia.

Batzubetan esaten deutsa Jangoikuak arima justubari edo bera ameetan dabenari: *Neure espresa egiazkua; Neure alaba maitia; Neure arreba estimaua; Neure uso ederra* ta beste onako amodijo utsezko berbaak. Beste batzubetan esaten deutsa: Jagi zaite laster, neure maitia ta erdu guazan ortura lorak batzeera. Neguko otzak irago dira, zozuak eta birigarruak kantetan asi dira; erdu neure maitia, laster guazan ibiltera. Beste batzube-

tan esaten deutsa Jangoikuak bere adiskidiari: Jagi zaite ta erdu neugaz arda gozoz beteta dauan upatei edo bodega batera, jan eizu ta eraizu, neure maitia, naikua egin artian. Beste batzubetan konbideetan dau bere palazijora edo gelara beragaz erregalubak partietara. Baña, zer geijago? Arrituta geratuten dira, neure entzula onak, Elesako santubak, Jangoikuak bera ameetan dabeenekin daukan karinua ta bijotz biguna penseetan dabeenian. Berak Eskritura Sagraduban erakusten doskun maitetasun guzia esan bere ezin lei. Bada, guziak ez daukee estamangu bardina ta espiritu zuzena, amodijo ta karino utsezko Jangoikuaren kantak, Salomonek dakazan moduban, aituteko. Orregaiti esaten dau san Jeronimok ogeta amar urtera eldu bagakuak ez ditubala irakurri biar kanta areek. Ta san Gregorijok gorputza ondo domauta, bijotza ta belaarrijak ondo garbituta daukeezan arimaak baño bestek ez ditubala ez irakurri ta ez entzun biar. Ene ama santa Teresak dino orraitino bere, askok probetxu andija etara dabeela Salomonen kantaak irakurrita, pensaubagaz Jangoikuaren amodijo neurri bagakua. Pensau ezin lei kasik inok bere ondo Jangoikuaren maitetasun guztizkua, beraren amodijuak begijetati negar eragin bagarik. Ez dau sekula munduban inok inor serbidu, ez esposok esposarik, ez amak alabarik, ez semek aitarik ain berba gozuekin, ain bijotz bigunagaz ta ain borondate maitiagaz, zeinda Jangoikuak serbietan dituban bere adiskidiak.

Jangoikuaren biguntasun ta karino guztizko au ez dabee aituten ta ez dabee aituko bere, munduko gauzeetan euren gogua, pensamentuba eta amodiju iminita daukeenak. Munduko ondria, estimazinoia, entzutia, aberastutia, banidadia, janak, eranak, jokuak, ibilte nasaia, olgeta pelleburuzkuak ta gorputzaren gustuak eta atseginak ameetan dirian artian, desietan dirian artian; onako gauzeetati, dinot, geure bijotza ta gogua aparteetan ez dogun artian, ez dogu jakingo ze biguna ta gozua dan Jangoikua bere adiskidentzako. Munduko ezer bere balijo ez dabee gaua oneetati apartauta, bene benetan Jangoikua serbietan ta ameetan asten danak, laster probauko dau ze biguna ta karinosua dan Jangoikua. Ez nas espanteetan ene ama santa Teresa bat, san Agustin bat, santa Marija Madalena bat, san Ignazio Loiolako bat eta beste santu ta santa asko ikusten ditudanian Jangokuaren amodijo sutsubagaz, kasik orditura edo zoratuta leez. Bada, zeinbat eurak geijago ameetan ebeen Jangoikua, ainbat topeetan eben laubago, karinosuago ta bigunago; ta desietan ebeen munduban geijago ta geijago padetzietia Jangoikuaren izenian edo iltia, laster Jangoiko ona guztiz gozeetara juateko. Oh ze gitxi estimeetan zitubeen arima ditzoso areek munduko gustuak! Amau daigun bada, neure



kristinaubak, geure Jangoiko ona neurri bagarik. Jaso daiguzan geure begijak nos edo nos luurreko gustuetati, ta ezautuko dogu guk bere ze adiskide biguna ta karinosua dan geure Jangoikua.

II.

Jangoikua da guztien erako adiskidia. Betoz munduban dagozan ta izan dirian gizon ta emakume guztiak ta esan beige zelako adiskidia nai dabeen, edo ze kondezinoetakua guseetan jakuen ta guztia topauko dabee Jangoikuagan. Batzuk euren ez dira tristia; ta adiskidiak bere tristia gura ditubee. Beste batzuk eureneez dira alegeriak; ta alegeriak gura ditube lagunzat bere. Gatxa edo penia daukanak bere naijago dau berba eiteko lagunzat, leenago gatzak eta trabajubak irago ditubana edo daukazana, beste gatxeen barri ez dakien edo penarik ez daukan bat baño. Onakuak obeto alkar aituten dabee, obeto alkarri sinistutene deutsee ta geijago alkarregaz errukitu bere eiten dira. Aberatsak bere beste aberats bat naijago dau adiskidezat, pobria baño. Andikijak andikija, pobriak pobria ta alan beste kondezinoetakuak. Ta ez au beste gauzagaiti, ezpada bakotxak bere idiagaz libertade geijago daukalako edozer gauza esateko edo egiteko. Pena bagarik bere ide bati konteetan jakoz noberaren gauzaak, onak edo txaarrak, ta luzaro alkarregaz egon arren bere, nekezagoko kanseetan dira. Ta balira gizon ta emakume guztiak onako kondezinoietan bardinak, guztiak alkar amauko leukee.

Ara bada, kristinaubak, Jangoikua guztien erako adiskidia. Begiratu beijo nai dabenak naijen daben moduban, ta alantxe topauko dau. Adiskide tristia nai dabenak, triste topauko dau Jesus, bere Jauna ta Jangoikua; bai Jesemaniko ortuban odolezko izerdiya darijola; bai Anasen etxian belaar[r]ondoko andijak emoten deutseezala; bai Kaipasen etxian paltso testimonijuak ezarten deutseezala, txistu urtika, ule tiraka ... eiten deutseela; bai Pilatosen etxian pillar bati lotuta azoteetan dabeela ta buruba arantzaz jarten deutseela; bai Kalbarrijora bidian kurutzia lepuan dabeela; ta bai kurutzian josita dauala. Adiskide alegeria nai dabenak, alegeria topauko dau Jesus, bai Taborko mendijken, bai ilen arteti biztu edo erre-suzitetan danian, bai Ama Birjinagaz ta apostolubekin berrogei egunian biztuta gero munduban dabilenian, bai Asenzinoe egunian aingerubekin zerubetara igoten dabenian ta bai zeruban dauan lekuan.

Nai badau penazko adiskidia, penazkua topauko dau Jesus ogeta amairu urtian. Bada, Aita Fr. Tome Jesusenak dinuan leez, Ama

Birjinaren sabelian sortu zaneti kurutzian il zan arte guztian, beti penaz bizi izan zan Jesus. Ta ez dau inok iragoko penarik, desondrarik edo trabajrik, Jesusek leenago geu gaiti irago ez ebanik. Nai badau adiskide noblia ta entzute andikua, Jesus da guztien artian nobleena ta pamarik oneenekua. Errege guztien Erregia ta jaun guztien Jauna da bere Aita, zein dan Aita Eternua. Abraan, Isaak, Jakob, Dabid ta beste patriarka ta errege andijen alabia da bere Ama, zein dan Marija Birjinia. Bago andiki andijagorik edo kaballero nausijagorik? Nai badau adiskide aberatsa, Jesus baño abertaagorik ez dau topauko. Bada, esanda geratu da, ondasun guztiak beriak ditubana. Nai badau lotsia ta errespetua daukan adiskidia, Jesusek dauka andijena. Bada, berba bategaz luurrera ezarten ditu bera preso artzeera duazan Judas ta soldaubak; begirakune bategaz iminten dau san Pedro negarrez; bizi dan arte guztian ta bere borondateko *nai* bategaz erabilten ditu zerubak eta luurrak gura daben moduban. Nai badau adiskide gaztia, Jesus topauko dau gaztia; nai badau zaarra, topauko dau zaarra; nai daben edadekua; bida, esanda geratu da leen, oan, gero ta beti modu baten dauala Jangoikua. Nai badau adiskide pobria, pobria edo pobretuba topauko dau Jesus. Begiratu beijo, zelan dabilen san Josepegaz ta Ama Birjinagaz, Belenen ostatuba topau ezinda, jaijo biar daben gabian. Begiratu beijo ze leku pobria daukan jaijoteko: korta bat, aska bat ta alemanija bi. Begiratu beijo zelan jantzita dabilen; jantzi bat baño ez eban euki bere denpora guztian; a bere kendu eutseen azoteetako ta kurutzian josteko. Ill zanian bere, limosnaz emon eutseen izara bat bere gorputz dibilua meztituteko. Begiratu beijo azkenian Jesuseri, altarako sakramento santuban dauan lekuan, ta an bere ondo pobria topauko dau Jesus ogi puska baten itxuraan; ta askotan korporal zaar ta loijen gañian daukala bere gorputz eta arpegi ederra. Zer geijago eskatu ginaijo bida, neure entzula onak, Jesus onari, geure bijotz guztia berari ez emoteko? Izango ete da galduko ete dogun bildurra gaiti?

III.

Oh neure kristinaubak! Ez Jangoikua ez da geugaz kansauko, geu bera ameetan kanseetan ez bagara. Ez da geuri itxita bigar edo etzi beste bategana juango, geu berari itxita juaten ezpagara, luurreko gauzaak ameetara. Esanda geratu da, Jangoikua mudeetan ez dana. Sekula ta beti Jangoikua bardin izango da. Bardin ameetan dabeenentzat ta bardin ameetan ez dabeenentzat. Beti bardin amauko ditu Jangoikuak, bera ser-



bietan dabeenak; ta beti bardin kastigauko ditu bera serbidu bagarik dagozanak.

Bijotz guztiagaz ta gogo guztiagaz ameetan dabenarenzako da Jangoikua adiskide jakituna, adiskide zuzena, adiskide aberatsa, adiskide lauba; adiskide andija, adiskide sendua, adiskide pirmia, adiskide emonzaillia, adiskide parkazallia, adiskide graziosua, adiskide karinosua, guztiak nai dabeen moduko adiskidia ta betiko adiskidia; Jangoiko guztia geuria. Ta ameetan ezpadogu Jangoikua, bere asarria, gorrotua, benganzia, itzala ta betiko inpernuko suba ta tormentuba guztia geuria.

Zer esan lei, bada, oan kristinaubak, au guztiau pensauta, sinistuta bere, pekatu mortalian dauan triste errukarrija gati? Esango da alako kristinauba zorua dala, ala itsuba dala, ala gistua dala, ala pede bagakua dala? Ez da errez, egija esateko, pekatu mortalian Jangoikuaren gorrotuan dauanari tokeetan jakon izena emoten. Esan dakijola, bada, san Pablo apostolubak esaten deutsana: *Jesukristo geure Jaunia, Jangoiko ta gizon egiazkua, ameetan ez dabena izan della madarikatuba, izan della eskomulgauba, izan della eternitate guztian kondenauba.* Eta guk pensau daiguzan sarri ta astiro Jangoikuak daukazan ontasun eta prenda maitegarriak. Eurak obligauko gaitubee, kasik nai ta nai ez dogula bere, Jesus dibinua bijotz guztiagaz, arima guztiagaz eta poz andijagaz ameetara, beste luurreko gauza guztiak baño geijago. Ta berau da asko gu eternitate guztian zeruban ditxoso iza-teko. Aitiaren, Semиaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.

LELENGO MANDAMENTUBAREN ZAZPIGARREN LEZINOIA

zeñetan erakusten dan
*geure burubak zelan amau biar ditugun, ta geure projimuak
nortzuk dirian.*

Esanda geratu da, neure entzula onak, lelengo mandamentu santubak zelan aginduten doskun Jangoikua ameetako beste gauza guztiak baño geijago; baita imini bere egin dira iraitzian leez, edozein bere kristinauk, zein asko dakijenak ta zein gitxi dakijenak txito errazto ezautu leizan pensamentubak, pozik eta gustoz geure Jangoikua amau eraiten dabeenak.

Onen ondorik Jesukristo geure Jaunak esaten dosku bigarren leku ban, geure projimuak ameetako, geure buruba leez. Pensau dot, bada, ondo izango dala mandamentu onetan erakustia kristinaubak bere burubari ta projimua zor deutsan amodijua, bostgarrenerako itxi bagarik. Projimua ameetako daukagun obligazinoia txito andija da. Bada, san Pablo apostolubak dinuan leez, adulteriorik ez egitia, ezer ez ostutia, inor ez iltia, paltso testimonijorik ez ezartia ta beste legiak aginduten daben guztia enzerreetan da berba oneetan: *Amauko dozu zeure projimua zeure buruba leez.* Kristinaubak projimua ameetako bere buruba leez, jakin biar dau lelengo bere buruba zelan amau biar daben. Askok usteko dabee bakijeela eureen burubak ameetan. Baña puska bat esamineetan bada, ez dakijee euren burubak ameetan, ezpada euren gorputzak ameetan. Ta ez da au Jesukristok aginduten doskuna. Esango dot, bada, doctrina onetan, zelan kristinaubak bere buruba amau biar daben, ta zeintzuk dirian geure projimuak.

I.

Kristinaubak amau biar dau bere buruba Jangoikua gaiti. Esan gura neuke, kristinaubak bere burubaari deutsan amodijua ordenau biar deutsala Jangoikuri. Bada, kristinaubak daukan guztia, arimia, entendimentuba, borondatia, jakiturija, osasuna, kleituba, itxuria, ikustia, entzutia...



guztia da Jangoikuak duarik emona. Ta orregaiti dan guztia ta daukan guztia kristinaubak ordenau biar deutsa Jangoikuari. Amau biar dau bere buruba Jangoikua gaiti ta Jangoikua serbietako. Beste noberaren burubarentzako kristinaubak daukan amodijua ez da amodijua, ezpada gorrotua Jangoikuaren aurrian. Oh, zenbat kristinu dagozan euren buruben gorrotuan bizi dirianak! Gorputzari naijak eitia, erregalubak emotia, ondo apaindutia; ikusgarrijak begijai, entzungarrijak belaarrijai, esangarrijak miinari, gauza leunak aragijari, gozuak eta dultziak auari ta sabelari, banidadia, estimazinoia ta pamia buruko aixe arruari; dinot, kristinaubak, gauza oneek bilatutia ta nai izatia bere burubarentzako ez da noberaren buruba ameetia, ezpada bere burubari gorroto izatia. Jangoikuak agindu baleu modu onetan geure burubak ameetako, zoruak izango zian ainbeste penitenzia ikaragarri egin ebeen santu ta santa guztiak. Areek ez ebeen beste gauzarik penseetan, arimia bizi dein, grazia bizi dein ta lege santuba gorde dein, Jesusen izenian eureen gorputzai ta sentidubai aleijken guztia padezidu eraitia baño.

Amau biar dau kristinaubak bere buruba; baña Jangoikuak aginduten dabent moduban, ez aragijak eskatzen dabent moduban edo mundutarrak nai dabeen moduban. Amau biar dau Jangoikua serbietako, ez bere buruba serbietako. Amau biar dau bere bizitzia, osasuna, kleituba ta Jangoikuak emon deutsan guztia; ta baita artu bere, bere buruba gordeetako errakoe zuzenak erakusten dituban medijuak.

Jangoikuaren aparteko abisu bagarik, gorputzari padezidu erain biar deutsala edo nai bat bere emon biar ez deutsala pensauta, jan bagarik, edan bagarik edo lorik egin bagarik egotia pekatu da. Munduko gatxectati aparteetako arrabijuagaz ta ernegazinoiagaz iltia bere burubari desietia pekatu da, bostgarren mandamentuban esango dan leez. Gauzia aurreratutia gaiti, miseria gaiti edo guztia paltauko ete jakon bildurra gaiti, gosia padiezietia ta aberatstutia gaiti gau ta egun arrastaka barautsa darijola osasuna galtzeia pekatu da. Ez dau eiten Jangoikuaren amodijua gaiti, ezda bere burubaren amodijua gaiti bere, ezpada edo ondasunak gaiti, edo banidadia gaiti, edo zekenkerija gaiti. Onako kristinaubak gaiti esaten da *diabrubaren maritirijk diriala*.

Jangoikua gaiti ta arimiaren ona gaiti pena txiki bat iragoteko gogorik ez daukeen kristinu askok; baru bat etara biar badabee, larritutene dira; ta beste aldeti egunian egunian gorputzari padezidu eraiten deutsee munduba gaiti, banidadia gaiti ta kodizija gaiti. Oneek diabrubarenzat padiezietan dabeena, gauza jakina da. Batzuk Jangoikua balitz leez trateetan dabee euren gorputza; ta beste batzuk, kodijieren ta banidadiaren kriju

sobrav bat balitz leez. Oneen bijoon erdijan dago gere burubari zor deutsagun amodijua. Ta da, geure buruba estimeetia ta ameetia osasuneko ta kleituko gauzeetan ta gorputzaren erruki bagarik Jangoikuaren legia gordeetia. Emeti ezaututen da zegaiti eta zelan amau biar ditugun gere projimuak. Baña leenago da oneek zeintzuk dirian jakitia.

II.

Munduban dagozan gizon eta emakume guztijak dira, neure entzula onak, geure projimuak: kristinu dirianak, ereje dirianak, judegubak, moruak eta jentilak, arimia ta gorputza daukeen guztiak, zein urekuak, zein urrinekuak, zein adiskidiak, zein arerijuak, guztiak dira geure projimuak. Ara emen san Agustinen berbaak. Adan eta Ebaganik datozen guztiak, dino Santubak, dira zure projimuak. Guztiak gara bata bestiareng proji muak, baña ez guztiok modu baten, zerurako esperantziari begiratu ezkerro. Kristinaubak izan ez arren, zeure projimuak dira, bada ez dakizu Jangoikuaren aurrian zer jazotene dan. Askotan zuk, kristinauba ez dalako, burla egiten deutsazuna, biurtutene Jangoikuagana ta ameetan dau, serbietan dau ta adoreetan dau Jangoikua, menturaz zuk baño obeto. Bagoz kristinu ez dirianen artian bere kristinu dirianak, guk jakin ez arren norantzuk eta zeinbat dirian. Jangoikuaren aurrian zer jazoko dan ez dakigun leez, gizon eta emakume guztiak euki biar ditugu geure projimoazat. Berba oneek guztiok san Agustinenak dira.

Dotrina onetati ezaututen da, kristinaubak: 1º munduban dagozan gizon eta emakume guztiak diriala geure projimuak, ta daukagula obligazinoia guztiak ameetako, gero esango dan modubagaz ta ordeniagaz. 2º Zeruban dagozan guztiak (Jangoikua apartau ezkerro) dira, geure lagunzat dagozanak, ta daukagu obligazinoia areen glorijagaz ta dixta onagaz alereetako, ta atsegin artzeeko ta eurak alabeetako. Jangoikua ez da kriaturerkin bat egiten, ta orregaiti zor deutsagu Jangoikuari amodijo geijago, alabantza geijago ta bildur geijago, leen esan dan leez. 3º Pekatu mortalian il diriala zuzen ez dakigunak gaiti ondo pensau biar dogu, ondo berba egin biar dogu ta desiau biar deutseegu arei bere arimako salbazinoia. Bada, guk ez dakigu nor salbeetan dan ta nor kondeneetan dan. Ta illak izan arren, amau biar ditugu. 4º Pekatu mortalian il diriala, zuzen dakigunak zeintzuk dirian Eskritura Sagradubak eta Elesa Ama santiak aintzat erakusten doskuzanak, oneek bere, dinot, amau biar ditugu moduren baten. Ez pekatarijak dirialako, ez kondenauta dagozalako; ezpada



Jangoikuaren kriaturaak dirialako. Kondenauak dongaak dira, pekatuba dala medijo; baña euren gu leezko gizon edo emakumiak dira. Jangoikuak bere itxurara egindakuak dira, ta pekaturik ezpaleukee, zeruban Jangoikua alabeetan egongo litzatekezan kriaturaak dira. Egija da, ya erremedijorik ez daukee, ya mesederik ezin ginaijue, ya kondenauta dagoz betiko euren erruz, ta Jangoikuaren arerijuak dirian leez, amau biar ez ditugu; baña bai Jangoikuaren kriaturaak dirialako. Augaiti, kondenaubei daukeen baño pena geijago desietia, bengau gura izatia, edo txaartuago balegoz nai izatia, pekatu da. Onako gauzeetati aparteetako, kristinaubak egin biar dabena da, alabau Jangoikuaren justizija, sinistu inpernuban dagozanak euren erruz dagozala, ta itxi erabatera, kondenauak zeinbat pena merezietañ daben esamineetiari. 5º Beste ainbeste esaten da diabrubak gaiti. Bada, diabrubak izan arren, geuri gauza gatzak desietan dosku-beezanak ta kondenau gura gaitubeenak, orraitino Jangoikuaren kriaturaak dira. Ta diabrubari daukan baño pena geijago desietia, pekadu da. Jangoikuak daki, bai kondenauak, ta bai diabrubak zetaraño pekatu egin ebeen, ta berak emoten deutsee, merezietañ dabeen penia; geijago arei desietia, Jangoikuaren justizijari neurrija imintia da.

Emen agertutenean da kristinauben arteko engaño bat txito andija ta klaruba. Ez dakit, egija esateko, zelan moduztau zinaijan. Kristinaurik geijenak daukee diabrubenzat ez dakit zelako gorroto bat ta areen pena guztijagaz bere aspertu ezin bat, daukeen baño pena geijago merezietañ balebee leez. Ta beste aldeti kristinaubak eurak bizi dira pekatu mortalian lo gozua eiten dabeela, ta bapere pekatubari gorrotorik ez deutseela. Bada, kristinaubak, diabrubak baño zuben pekatubak gorroto geijago merezietañ dabee. Pekaturik ezpalego, diabrubik ez leoke ta kondenaurik bere ez leoke. Pekatubak egin zituban diabru, ta pekatubak egiten ditu kondenauak. Zetan dago, bada, kristinaubak, diabrubak ondo kastigauta ezpalego leez, ari pena geijago desietia ta bijen bitaartian nobera pekatu mortalian sosiguz egotia? Esango dozu, au bere diabrubaren engaño dala. Diabrubaren engaño da; baña noberak nai dabelako da.

Diabrubak nai ez dabenari, ez deutsa sekula gatzik egin. Zeruban santu ta santa asko dagoz, diabrubak diriala medijo koroe andijaua ta glorrija geijago daukeenak. Job santubari, san Anton Abatari, san Benitorri, ene ama santa Teresari, san Ignaziori ta beste askori diabrubak kalte egin guraan, mesede egin eutseen. Bada, diabrubak euren tentazinoe, perseku-zinoe ta astuzijskin emon eutseen santubai geijago pelietako, geijago padezietako ta geijago irabazteko okasinoia. Ta geuk bere beste ainbeste egin ginai, nai bagendu. Jangoikuak ez deutsa diabrubari isten, geuk goitu

edo penzidu al daigun baño geijago tenteetan. Tentazinoiagaz emoten dosku Jangoikuak, eskatu ezker, a goituteko grazija. Ta grazijaagaz bali-jetan bagara, tentazinoiak mesede baño egingo ez dosku.

Exenplu bat iminten dabee Elesako erakuslaak, diabrubak zer egin al daijan erakusteko ta esaten dabee diabrubak dala, katia sendo bategaz lotuta dauan txakur gaisto bat leez. Alako txakurrak ikusten dituban guztiak jan edo ito gura lituke. Baña saunka egin ta aginak eta intenzinoe arrabiaba erakutsi baño besterik ezin leijo ondora juaten etxakonari, lotuta daualako. Inor ondora juaten bajako, ari laster aginka oratuko deutsa. Beste ainbeste jazotenean da diabrubagaz ta kristinaubagaz. Jesukristo geure Jaunaren Pasinoe santubagaz lotuta dagoz diabrubak guztiak. Saunka egin leije, tentau leije ta persegidu leije kristinauba edozein bere lekutan; baña bere gustoz diabrubaren ondora ez doianari, pekatu eraín ezin leijo. Ez, bada, ezarri diabrubari zeuben pekatuben erru guztia, ezpada zeuben borondate gaistuari. Esan dot au guztiau, bakotxak ezautu daijan bere buruba ta bere gaiski egina.

Emeti ezaututenean da, kristinaubak zelan amau biar daben bere buruba ta zeintzuk dirian geure proji muak. Eskatu daijogun Jangoikuaren Majestadiari, bere grazijaren erraijo bategaz argitu daizala geure entendi-mentubak, egija oneek ondo ezaututeko, ta emon daigula bere grazija zeruko erreñuba irabazteko. Amen.



LELENGO MANDAMENTUBAREN ZORTZIGARREN LEZINOIA

zeñetan erakusten dan
*zer dan projimua ameetia, ta ze ordenagaz amau
 biar dan.*

Ikasi ezkero kristinaubak zeintzuk dirian bere projimuak, jakin biar dau, zelan amau biar dituban. Projimuuen artian erabagi andija dago, ta guztiari begiratu biar jako projimuak ameetan ikasteko. Projimo batzuk dira senidiak, beste batzuk ongillak, beste batzuk kristinau ez dirianak, ta beste batzuk arerijuak: 1º Zelan amau biar dirian geure projimuak. 2º Ze ordenagaz amau biar dirian arerijo ez dirian projimuak. Geroko dotrinan esango da, arerijuak zelan amau biar dirian.

I.

Jesukristo geure Jaunak esan ezkero bada, neure kristinaubak, geure buruba leez geure projimuak ameetako, ya inos bere ukatu ezin lei obligazinoe au. Projimuak ameetia ez da beste gauzarik, ezpada arimako ta gorputzeko gauza on guztiak projimuari desietia. Inoren gauza onagaz atsegin artzeia, ta naibagiagaz ta trabajubagaz atsekaba artzeia. Kristinaubak bere buruba leez projimuarena ameetako, bere burubarenzat nai daben leez osasuna, nai izan biar dau projimuarenzat osasuna. Beretzako nai daben leez bakia, nai izan biar dau projimuarenzat bakia. Berezat nai daben leez kleituba, ondria ta ondasuna, desiau biar deutsa projimuari kleituba, ondria ta ondasuna. Berezat desietan daben leez ta desiau biar daben leez arimako grazia, erijotza ona ta zeruko gloria, desiau biar deutsa projimuari beste munduko gauzaak baño geijago, arimako grazia, erijotza ona ta zeruko gloria.

Ara emen, neure entzula onak, berba gitxitan, zer dan projimua ameetia. Ondo gura deutsagunari ta ameetan dogunari, ez deutsagu inos bere dakigula edo adbertenzijaz gauza gatxik egiten. Ez dogu adiskide maitia gaiti dongarorik esaten, ez deutsagu gauza gatxik desietan, ez dogu gorrotoz joten, ez deutsagu ezer oostutene, ta Jangoikuaren izenian amee-

tan dogunari, ez deutsagu pekatu eiteko biderik edo okasinoerik bere emoten. Ta projimo guztiak alan amauko bagenduz, mundu guzia zero bat eginda egongo litzaateke. Oraindino geijago: Geuk ameetan dogun projimuari bere pena ta trabajubetan pozik eta gustoz lagunduten deutsagu. Triste badago, konsolau gura genduke; gose bada, kopau bat baño ezpada bere emoten deutsagu, euki ezkero; penaz badago, pazienzia presteetan deutsagu aleginaz, ta errukitutene gara bere peniagaz. Pekatu mortal bat egin badau, sentietan dogu oraindino beste bere gatzak baño geijago; erregututene deutsagu Jangoikuari projimo a gaiti ta berari bere esaten deutsagu modu onagaz erremedijau della laster, pekatuban il ez dein.

Au guztiak jazoten da, neure entzula onak, geuk ameetan ditugun kristinaubekin. Oh, ze gauza ona izango litzaatekian, guztiok onan bata bestia ameetia ta alkarrilagundutia! Oh, ze enbidija emoten daben onako kristinauben bizitza bateginak eta karidadezkuak, pensauta beste bagarik! Errazoiagaz esaten dau san Pablo apostolubak, projimua biar dan moduban ameetan dabenak, ez dabela gauza gatx bat bere egiten, ta gordeetan dabela lege guzia. Ez dakit zelan emoten deutsagun ainbeste leku geure bijotzian enbidijari, gorrotuari, maldezinoiari, ikusi ezinari, kodizijari ta tema gaistuari, geure projimuak kontra!

Projimua biar dan moduban ameetako, ez da asko auagaz esatia: *guztiak ameetan ditut nik; ez deutsat nik inori bere gatxik gura.* Auagaz onan esatia gauza ona ta biarrekua da; baña onan berba egin arren, euki lei bijotzian projimuarenzat amodijuaren ta karidadiaren paltia, endamas obreekin erakusten ezpada. Borondatiak nai dabena, auak esan biar dau; ta borondatiak nai dabena ta auak esaten dabena, eginagaz erakutsi biar da. Orregaiti esaten dau san Juanek, mesede eginagaz amau biar ditugula geure projimuak, ez berba utsagaz. Ta Santiago esaten dau: *Zeure projimua bilosik eta gosiak ilik ikusita, zyk esan arren ari: zuaz Jangoikuagaz gizaazorri; zer edo zer jan eizy ta berotu zaite al daizun moduban, ezer emoten ezpadetsaztu dauka zu neti, zer balio deutsa pobre tristiarri ondo esanak.* Bada, zure pedia ta ondoesana bere obra on bagarik illa da, dino Apostolubak. Onezaz ostian, Elesa Ama santiak erakusten dosku, ez dala asko auagaz, projimua ameetan dot, esatia; ezpada borondatiagaz amau biar dala. Ta borondate ona obreekin erakusten da.

San Pablo apostolubak beste ainbeste esaten dosku, dinuanian: Aingeruben miñagaz berba egingo baneu bere, misterio guztiak ezautuko banitu bere, jakituria guzia jadiitxiko baneu bere, mendijk bateti besera iragoteko pedia ta sinistutia baneuka bere, ta neure gorputza erreta-



raño kastigauko beneu bere, karidaderik ezpadeukat edo projimua ameetan ezpadot, utsa nas, utsa balijo deuts guztiak. Ta karidadia edo projimuaren amodijua espliketako, esaten dau Apostolubak berak: Karidadia itxan onekua da, pazienzia andikua da, biguna da, enbidija bagakua da, gatxik egin gura ez dabena da, banidade ta andiari bagaukua da, karidadia daukanak ez dau asarrerik erakusten; ez dau gatxik penseetan, ez deutsee bere gauzei ainbeste kasu egiten, ta inoren gauza on guztiekin alegerten da; karidadia daukanak guztia supriduten dau, guztia sinistuten dau, guztia espereetan dau, ta inor gaiti bere ez dau gatxik penseetan. Ara emen, kristinaubak, senalle batzuk txito agirijk, projimua ameetan dogun edo ezaututeko.

Projimuaren karidadiaren kontra modu askotara pekatu eiten da. 1º Projimuaren gauza onagaz tristetutenean garianian. 2º Projimuaren gauzeen enbidija daukagunian. 3º Projimuen arteko bakia galtzeen dogunian. 4º Projimuen gatxagaz alegerten garianian. 5º Nezesidadian dauan projimua sokorriduten ez dogunian, al daigula; edo konseju ona emonagaz, edo limosna eginagaz, edo lagundubagaz premina daukan moduban. 6º Projimuari pekatu eraiten deutsagunian, edo pekatu eiteko bidia emoten deutsagunian. Inok dakijela, dakusela edo dantzubela egiten dirian pekatubak, beti dira karidadiaren kontra, projimuari Jangoikua serbietan lagundu biarrian, pekatu eraiten jakolako.

Onan inori exenplu txaarra emoten deutseenak gaiti esaten dau Jesukristo geure Jaunak, zorigaitokua eta madarikatubak diriala. Merezietan dabeela alakuak, errota arri bat samati lotuta, itxasoko ondareetara boteetia, eurak pekatu etia ezer ez dala, bestiai pekatu eraiten deutseelako. Oh, inori pekatu eraiten deutsazunak! Oh, inori pekaturako konbideetan dozunak! Oh, projimuari exenplu txaarra emoten deutsazunak, Jesukristoren maldezinoia daukazu zeuben gañian!

Beste gauza asko dagoz projimuari zor deutsagun karidadiaren kontra; baña zabalduta dagoz kasik mandamentu guztietan, ta esango dira bakotxa bere lekuban. Gauza onetan erregela bat dago txito laburra, baña kanpo andija daukana. Ta da, geurezako gura ez dogun gauzarik, inori ez egitia; ta geri bestiak egitia gura doguna, geuk bere aleginagaz projimuari egitia. Ordubar amauko dogu projimua geure buruba leez.

II.

Baña Salomonek aituten emoten daben leez, karidadiak dauka bere moduba ta ordenia. Ta karidadiaren ordenia konzienzijan obligetan daben da, dino santo Thomasek. Gauza onetan lelengo esaten dana da, kristinaubak euki biar dabela beti bijotz ona ta borondate ona projimo guztientzako; bada, karidadiaren estalgi zabalak ez dau inor bere batu bagarik isten. Bigarrenian esaten da, projimo guztiai desiau biar deutsegula arimako grazija ta zeruko gloria. Gauza oneek projimo guztientzako bardin izan biar dabee. Baña aparteko laguntasuna edo sokorruba emoteko projimuarri, ez dira bardinak, ez personaak, ez nezesidadiak. Ta oni begratu biar jako, karidadiaren ordenia gordeetako. Personen artian dagoz gurasuak, senar emaztiak, seme alabak, neba arrebak, senidiak, ongillak, kristinaubak, erejia... Nezesidaden artian dagoz arimakuak eta gorputzkuak; nezesidade oneen artian, batzuk *despeidengua* esaten jakuenak, ya nora ezkuak, beste batzuk nezesidade andijkatzen badira askontan oi dirianak. Eskoleetako berbeeta modubari itxita, kristinaubak gauza onetan jakin biar dabena da: 1º Zein arimako ta zein gorputzko nezesidade bardinian aurkitu ezkero, beste guztiai baño leenago dala bere buruba sokorrietia. Bada, Jangoikuak ez dosku agindutenean projimua gere buruba baño geijago ameetako, ezpada geure buruba leez ameetako. Ta karidade egijazkua noberaganik asten da. 2º Azkeneko nezesidadian ezpadagoz bere gurasuak, lelengo alkar sokorridu biar dabee senar emaztiak, gero euren umiak, gero gurasuak, gero senidiak, ongillak, adiskidiak, kristinau dirianak, ta despeidengo kristinau ez dirianak. 3º Bere aita edo ama badagoz azkeneko nezesidadian, laster sokorriduten ezpadira, erremedio bagarik galdu biar dabentzitzen, ordubar emaztia ta umiak baño leenago da bere aita ta ama sokorridutia. 4º Arimako nezesidadiak leenago dira, gorputzkuak baño. Projimuaren arimako salbazinoiak geijago balioko daueritzak, osasunak, kleitubak eta ondasunak baño. Ta bestelako projimua salbau ezin baleiteke, daukagu obligazinoia guztiai galtzeeko projimuaren salbazinoia gaiti. 5º Gorputzko gauzeetan lelengo da biziak, gero osasuna, gero kleituba ta gero ondasunak ta munduko konbenienziak.

Ordena au iminten da bada, neure entzula onak, jakin daijan kristinaubak nor, nos ta zelan sokorridu biar dabentzitzen bere projimua, karidadiaren bizi izateko. Ta ordena onetati apartetia, pekatu da. Esan gura neuken, nezesidade bardinian egon ezkero, zein arimako ta zein gorputzko gauzeetan, gurasuari edo emaztiari edo umiari itxita, beste bat sokorridutia, pekatu dala. Beste ainbeste, projimo bat badago ilteko pelleburuban, beste bat osasuna galtzeeko pelleburuban, ta beste bat kleituba galtzeeko



pelleburuban; ordubar bizitzia galtzeeko pelleburuban dauanari itxita, osasuna edo kleituba galtzeeko pelleburuban dauna sokorridutia, pekatu da. Bada, leenago da projumuaren bizitzia, osasuna ta kleituba baño. Pekatuban ilteko pelleburuban badago bat, a sokorridutia leenago da beste bat bizitzako ta munduko gauzeetan sokorridutia baño; ta modu onetan beste esan dirian gauzeetan.

Karidadiaren ordena au autsijagaz, ta baita leenago esan dirian projumuaren kontrako bizijueta bere, ez da errez erregela bat iminten pekatu mortala ala beniala dan jakiteko. Geijenaz bere esaten dana da, gauza andijan bada, izango dala pekatu mortala; ta gauza gitxijan bada, pekatu beniala. Jazo bakotxeko zirkustanzijk esaminau biar dira ze pekatu egin dabentzaututeko. Baña jakin biar dau kristinaubak, karidadia dala birtute guztietati andijena ta txito laster epaija egiten jakona. Orregaiti txito askotan inok uste dabentzaututeko. Baña jakin biar dau kristinaubak, karidadiaren paltia. Ez zaitez, bada, aaztu, neure kristinaubak, doctrina onegaz. Akordau zaitez beti ez deutsazula projimuari, ez egin, ez esan, ez desiau biar ezer, zeubei inok egitia, esatia edo desietia gura ez dozun gauzarik. Eukiizu bijotz prest bat, preminaan ikusi ezkerro projimua, alegin guztigaz sokorrieta, bai arimako ta bai gorputzeko gauzeetan. Ta erregutu eijo zu Jangoikuari projimo guztiak gaiti. Bada, guztiak gaiti il zan Jesus, geure Salbadore maitia; guztiok gagoz bere odol santubagaz erosita; guztiok gara bata bestiarena anaiaik ta zerurako esperantziagaz bizi garianak. Jangoikuak emon daigula, bada, bere miserikordia andija gaiti karidade santuba ta zeruko gloria. Amen.

LELENGO MANDAMENDUBAREN BERERATZIGARREN LEZINOIA

zenetan erakusten dan
geure arerijuai zor deutsegun amodijua.

San Jeronimok esaten dau, neure entzula onak, askok penseetan dabeela, Jangoikua serbietako ta on izateko asko dala arerijuari gorrotorik ez eukitia ta gauza gatzik ez desietia; baña onezaz gañera arerijuameneetako ta maite izateko agindutia dala inok egin ezin leijan gauzia. Jakin biar dabee, bada, onan penseetan dabeen guztiak, dino Santubak berak, Jesukristo geure Jaunak ez dabela aginduten inok egin leijan gauzarik; ezpada Jesusek aginduten daben guzta dala ona ta edozeñek egin leijana. San Jeronimoren denportuan beegozan arerijuak ameetia gauza gatxa ta inok kunplidu ezin leijana dala esaten ebeenak, gaurko egunian ez dira gitxiago egongo, arerijuak bake ona nekez eiten dabeenak. Ez dago, bada, kristandadeko doctrinan, ezer bere gauza jakinaagorik, salbeetako geure arerijuai parkatu biar deutseguna ta amau biar dituguna baño.

Sekula dudarik euki ez daizun egija onetan, entzun eizuz, kristinaubak, Jesukristo, zeruko Maisubaren berbak: *Neuk aginduten dotsut, dino Jesukristo geure Jaunak, zeuben arerijuak ameetako, gaiski egin dotsunari parkatuteko, dongaro esan dotsuna gaiti ta persegiduten zaitubana gaiti Jangoikuari erregututeko. Bada, neure Aita zerukuak bere onenzat eta dongenzat eu^zkija agertutenean, ta justubenzat eta pekatarienzat euriya bialdutenean. Zeuben adiskidiak baño ameetan ezpaditu zu, ze grazia zerurako irabatziko dozu?* Bada, jentillak eta dirianik doneenak bere euren ongillak eta adiskidiak ameetan ditubee. Parkatzen ezpadetsazu, bada, zeure arerijuari gaiski egina, neure Aita zerukuak zeuri bere ez dotsuz parkatuko zeure pekatubak.

Oneek guztiok Jesukristo geure Jaunaren berbaak dira, neure entzula onak.

Ainbeste importa doskun gauzaan inok bere uts egiterik euki ez daima, esango dotsut, bada, doctrina onetan: 1º Zelan amau biar ditugun geure arerijuak. Ta 2º zetaraño parkatu biar deutseguzan, geri egin doskubeezan injurijak. Entzun eidazu kuidado guztiagaz.

**I.**

Jangoikuari zor deutsagun amodijuan enzerretan da, arerijuak ameetako obligazinoia. Jangoikua gauza guztiak baño geijago ameetan dabenak, desietan dau, projimo guztiak Jangoikua adoretia, alabetia ta ameetia. Desietan dau, projimo guztiak Jangoikuaren adiskidiak izatia; desietan dau, guztiak Jangoikuaren grazijan egotia, Jangoikuaren lege santuba gordeetia ta zerurako bida zuzenian bizi izatia. Projimo guztiai au desietan ez deutseenak ez dau Jangoikua ameetan, biar dan moduban. Onezaz ostian, Jangoikua ameetan dabenak, ezin gorroto izan leijo, Jangoikuak bere etxurara egin daben kristinaubari, ta Jesukristo geure Jaunak bere odol santubagaz ta erijotza penazkuagaz erosita daukan projimuari. Onak eta dongak gaiti, adiskidiak eta arerijuak gaiti, guztiak gaiti il zan Jesus. Kristinai bakotxa ta projimo bakotxa da, esateko moduban, Jesukristo geure Jaunaren odolaren prezjua; ta kristinaubari edo projimuari gorroto izatia, ikusi ezina eukitia edo gauza gatxa desietia da, Jesukristo geure Jaunari gorroto izatia leez. Errazoe au penseetia da asko, arerijorik andijenak bere bijotz osuagaz ameetako. Bada, arerijuaren gorrotua biurtutendau, Jesukristoren gorroto izatera.

Baña oraindino pensau daigun obeto ze itsutasun andija dan, geuri gatz egin doskubeenai borondate txaarra eukitia edo gorroto izatia. Nor da arerijuari gorroto deutsana? Nor da arerijuari gauza gatxa desietan deutsana? Ez da pekatarija? Ez da Jangoikua sarri openditu dabena? Ez da Jesukristo bere pekatubeekin desondrau dabena, zeruko aingerubak eta santubak lotsatu ditubana? Edo ez da, berba baten esateko san Pablo apostolubagaz, pekatu mortala egin daben beste bidar, Jesukristo kurutzian josi dabena? Duda bagarik, neure kristinaubak, projimuari gorroto deutsana, Jangoikuaren arerijoia izan da ta da. Ta naiko dau, Jangoikuak bera ameetia, arimako grazija, osasuna, bakia, portune ona ta ditxaak munduban ta zeruban berari emotia? Duda bagarik, bera sarri izan arren Jangoikuaren arerijuia, desiauko dau, bijotz onagaz, amodijuagaz ta misericordijagaz bizitzan ta erijotzan Jangoikuak bera trateetia. Begaz, berak bere amau biar dau bere arerijuai bijotz onagaz eta desio santubagaz. Bada, bestelan ez dago errazoirik, izanik bera Jangoikuaren arerijuia, Jangoikuak bera ameetako. Errazoe au ondo pensau ezkero, indartsuba da, neure kristinaubak; gorrotuaren subak amatetan ditubana ta arerijorik andijenarentzako bere Jangoikua gaiti bijotza bigunduten dabena.

Projimuak egin dotsun gatxagaz akordauta, gorrotua ta suba bijotzian jagiten jatzunian, akordau zaitez lelengo pekatu egin zendubanian Jangoikuak inpernubetara bota bazinduz, ez otsula projimuak gjago gatxik egingo. Bada, Jangoikuak zeuri parkatu badotsu ainbeste bidar inpernura boteetia, ez da errazoia izango, zeuk projimuari merezietaan daben gatz puskia parkatutia? Duda bagarik, neure entzula onak, arerijuak ameetia txito errazuazko gauzia da. Ta orregaiti pekatu mortalaren beian daukagu obligazinoia: 1º Arerijorik andijenai bere desiau biar deutsegu arimako grazija, birtutia, Jangoikua serbietako gorputzian konbenietan jakuna ta zeruko gloria. 2º Ez dozu euki biar bijotz txaarrik, gorrotorik edo bengeetako desiorik. 3º Preminan ikusi ezkero arerijuia, prest egon biar dogu ari aleginagaz lagunduteko. Esaten da preminan; edo osasuna, edo kleituba, edo bizitzia, edo arimia galtzeeko pelleburu andian dauanian. 4º Arerijo andija izan arren, etxako ukatu biar agur eitia; ta ez da beste edozein bere kristinauri egiten jakona bere. Auzoeran arerijuia gaisorik dauanian, ez bisitetia; bidian datorrela ikusita, agaz bat ez eitiarren, beste aldeti juatia; berbeetan dauanian, ari ez entzutarren, beste aldera begiratutia ta beste onako gauzaak, dino san Bernardinok, diriala gorroto mortalaren senallia. Bada, arerijuak ameetako obligazinoia imini ezkero Jesukristo geure Jaunak, oneek guztiok projimuaren amodijuari joakazan gauzaak dira, ta al dajala egiten ezpaditu, gauza jakina da arerijuaren gorrotuan dauana, ta au beti da pekatu; gauza andijan bada mortala ta gauza gitxian bada beniala. Gauza onetan ez dago dudarik. Baña izan leiteke, kristinaubak dudeetia edo jakin gura izatia, ia gauza gatxa egin deutsan arerijuari, guzta parkatuko deutsan edo ez? Edo ia zetaraño parkatu biar deutsan arerijuari.

II.

Gauza onetan bere Jesukristo geure Jaunari entzun biar deutsagu, zer esaten doskun. Dino, bada, zeruko geure Maisubak: *Zeubek parkatzen ezpat-deutesezuz bijotz-guztijagañ arerijuai gatz: eginak, neure Aita zerukoak zeubei bere ez dotsuz parkatuko pekatubak.* Ezin esan euskegungo, kristinaubak, Jesukristo geure Jaunak au baño klarubago, arerijuari injurijk parkatuteko daukagun obligazinoia. Modu onetan Jesukristok berba egin oskun, ta au berau bere exenplubagaz erakutsi oskun. Kurutzian josita imini ebeenian, Jesusen lelengo egin eban gauzia izan zan, bere arerijuai bijotz-guztiagaz parkatutene eutseela, esatia ta Aita Eternuari eurak gaiti erregututia. Dabid erre-



giak beste ainbeste egin eban Saul bere arerijo andijagaz. Saulek ainbeste denporaan persegiud eban Dabid; sarri euki eban Dabid Erregiak konbennetxoa Saul galtzeekoa, baña beti parkatu eutsan Jangoikua gaiti.

San Esteban lelengo martirijkak beste ainbeste egin eban, bera arrika il ebeen arerijkekin. Arrika ilten ebeen denporaan, belaunbiko jarrita, Santubak erregututenean eutsan Jangoikuari, parkatu eijuela bere arrikari guztia. Ta menturaz san Estebanen orazinoe ari ez deutsa gitxi zor san Pablo apostolu izatia. Ene ama santa Teresa gauza on guztieta eta leez mirarizkua, arerijuai parkatutenean apartekua da. Bera gaiti dongaro esaten ebeenak eukazan Santiak adiskidezat. Areetxek, esaten eban, ezaututenean ebeela onduen nor zan bera; ta alako arerijuak gaiti egiten eban santa Teresak aparteko orazinoa. Ez dago gauza ugarijagorik, neure entzula onak, ebanjeliojoko dotrinan ta santuben bizitzetan, arerijuai parkatutia baño. Arerijuari bijotz onagaz parkatu ez deutsan arima bat bere ez dago zerubetan. Kain, Esau, A[b]salon, Amon, Jezabel ta beste asko gorrotuak daukaz inpernubeetan. Orregaiti esaten dau san Agustinek, arerijuari parkatutenean ez deutsanak, ez dabela gura Jangoikuak berari parkatutia. Bada, kristinaubak, zeruban sartzeeko gero bere parkatu biako badeutsagu geure arerijuari, zetako parkatuko ez deutsagu gaurko egunetik? Ez da zorakerria andija, ordu betian bere projiemuaren gorrotuagaz, odiaguagaz ta benetako desiuagaz egotia? Pensau eizu, projiemuak kentu dotsula zeure ondria miinagaz; diruba ta aziendia eskubagaz, testigantza paltsuagaz edo guzurrezko auziagaz; osasuna bake txaarragaz; ta zeure bizi moduba bere enbusterijagaz ta zeu zagozala oan ari bidaoka, maldezinoeka, bengantzia desietan deutsazula ta gorrotuaren gorrotoz ikusi bere ezin dozula projiemo a. Pensau eizu, zeure areriju ya aaztu zala zuri egin otsun gatzagaz ta gatxa aren pena bagarik sosiguz jan, eran ta lo egiten dabela; ta zu zagozala injurija a edo persona a akordeetan jatzun guztian suartuta, erregetan leez, aren gorrotuagaz; zein ete zara oba bijoon artian, zeu ala zeure areriju? Nik esango neuke, neure entzula onak, arerijuari parkatu gura ez deutsana, kondezinoe txaarraokua dala bai mundurako ta bai arimarako.

Parkatu biar deutsa, bada, arerijuari Jangoikuaren aurrerako. Baña orraitino kontu artu lejo gatx egin deutsanari, karidadian paltau bagarik. Zerbait oostu deutsalako, kleituba galdu deutsalako edo beste gatxen bat egin deutsalako, badeitxo, juan leiteke kristinauba juezagana, ta eskatu projiemuari juezaren aurrian, egin deutsan kaltiaren erremedijua. Arerijuaren gorroto bagarik au egitia, bere kleituba edo aziendia jasoteko, ez da pekatu, ta askotan egin biar dana da. Guraso batek ezin itxi lejo bere kleitu onari jausten bere burubaren ta ondorengoen kaltian, paltso

batek edo enbusteru batek nai dabelako. Beste batek ezin galdu lei etxe bat, solo bat edo azienda bat, lapur batek edo kodizijoso batek gura dabelako. Alakuari justiziaz atzera eskatutia kentu deutsan gauzia, ez da kari-dadiaren kontra. Bestelan dongaak geratuko litzaatekez gauza guztiekin ta onak desondrauta, bilosik kaliaren erdian. Ez dosku Jangoikuak eedubau aginduten.

Egija da, oba da nora ezera artian juezagana ez juatia. Bada, atan asi ezkerro, gitxitan paltauko da gorrotua ta bengeetako desia, ta au beti da pekatu. Projiemuari kalte egin deutsanak lelengo egin biar dabentzula gauzia da, altaran meza esateko badago bere, itxi guztiari ta juan laster berak gatx egin deutsagana ta agaz bakia egin. Orduban, dino Jesukristok, balio deutsala bere oprezimentubak eta orazinoiak. Ta errazoa da, san Anbrosiok dinuan leez, gaiski esan dabena edo gaiski egin dabena lelengo juatia bestiari parka eskatutera ta bakia egitera. Ta orduban bestiak bere obligazioina dauka, injurija andija izan arren, parkatuteko. Bijak era batera alkar openditu badabee, bijak daukee obligazioia, alkar topauta, bakia egiteko.

Orraitino Poujet jakinak san Agustin eta Orijenesegaz esaten dabentzula, askotan gauza ona da ta batzubetan biarrekua, arerijuari ta persegiutan dabentzari arpegi asarria erakustia ta aituten emotia egin deutsan injurija edo azinoe txaarra; ez dongaro esanagaz, ezpada arpegieragaz ta nobearren portiagaz. Onetara lelengo kontuban jausten diriala, dino Poujet pamaubak, prestubezkeriak ta azinoe txaarrak egiten ditubetzenak ta biurtutenean diriala on izatera. Dotrina biar dan moduban aitu ezkerro, probetxu andikua ta segu ruba da. Guztia eder eiten bajakue dongai, sekula erremedijauko ez dira. Karidadia biguna da, baita gogorra bere batzubetan ta beti pekatubaren kontra.

Engaño gura dabentzulagaz, paltsuagaz, pekatu erain gura deutsanagaz ta pekaturako konbidetan dabentzulagaz, sekula kristinaubak bakerik ez dau euki biar. Esan gura neuke, alakuagaz ez dabela euki biar aparteko adiskidetasunik, ta ez deutsala erakutsi biar arpegiera alegererik. Alakuari bekoeki iluna imintia ta berba gitxi egitia gauza ona da, ta askotan, preminakua. Askotan alakuari agur etia (ta a bere ez askotan) ta bera gaiti Jangoikuari erregututia, karidadian ez palteetako. Amau daiguzan, bada, geure projiemo guztia, neure kristinaubak. Parkatu daijoguzan arerijuai zorrak, Jangoikuak geuri parkatutia desietan dogun leez. Erregutu daijogun Jangoikuari, projiemo guztien arimako salbazinoia. Ez daigun inor gaiti bere dongarorik esan. Ta imini daijogun biar daniel, pekatu erain gura doskunari arpegi itzalsuba ta bekoki iluna, lotsatu dein, kontuban jausi



dein ta erremedijau dein, Jangoikuaren bildurrik ez daukana. Eskatu dai-jogun Birjina santiari, Jesus gauza guztiak baño geijago ta projimuak geure buruba leez ameetako grazija. Amen.

[BIGARREN MANDAMENTUBA]



BIGARREN MANDAMENTUKO LELENGO LEZINOIA

zenetan erakusten dan
*zer dan juramentu egitia, juramentu nos egin biar dan
ta juramentubaren beian agindutako gauzaak zelan
kunplidu biar dirian.*

Bigarren mandamentuban Jangoikuak agindutenean doskuna da, neure entzula onak, bere izen santuba erreberenzijagaz auan artzeia. Jangoikuaren izen santuba alperrik auan artzen dabena, dino Espiritu Santubak, ez dala geratuko kastigu bagarik. Esaten da, alperrik auan artzen dala Jangoikuaren izen santuba, errespeto bagarik ta erreberenzija bagarik edo gero esango dirian kondezinoe bagarik, edozein bere gauzatarako Jangoikuaren izena esaten danian ta juramentu eiten danian. Mandamentu guzietan Jangoikuak agindutenean dosku zerbaitegiteko ta zerbaitegiteko. Bigarren mandamentuban egiteko agindutenean doskuna da, bere izen santuba santipiketia. Ta Jangoikuaren Izena santipeketan da: 1º Orazinoe egijazkuagaz. 2º Zeruko gauzaak, Jangoikuarenak, Jesukristo geure Jaunarenak ta kristandadeko misterijuak debozinoez esanagaz. 3º Bizimodu zuzenagaz. 4º Jangoikuari promesak eginagaz. 5º Biar dan moduban ta orduban juramentu eginagaz.

Jangoikuak mandamentu onetan ez egiteko esaten doskuna da: 1º Alperrik bere izen santuba auan artzeia. 2º Gauza txaarrerako promesak egitia. 3º Juramentu gaistuak egitia. Au guztiau eraozten dala Jangoikuak bigarren mandamentuban. Orazinoia zelan egin biar dan ta kristinaubak zelan bizi biar daben, sarri entzuten dan gauzia da. Ta menturaz esango da beste leku baten klarubago. Mandamentu onetan bakarrik esango da juramentubai, promesai ta berba dongai jaokuen dotrinia. Ta obetuago aitu daizun, bakotxa bere lekuban iminita, esango dotsut dotrina onetan: Lelengo, zer dan juramentu egitia. Bigarrenian, nos egin biar dan juramentu. Irugarrenian, zelan kunplidu biar dan, juramentubaren beian agindutenean dana. Egon zaitez atenziñ oiañaz.

I.

Juramentua ez da beste gauzarik, neure entzula onak, ezpada geuk egin dogun edo esan dogun, entzun dogun edo ikusi dogun gauza bat Jangoikuaren testiguzat ekarrita edo Jangoikuaren izen santuba auan artuta, onan edo alan zala edo dala, esatia. Egija esaten dabena sinistu eraiteko, ekartea dala Jangoikuaren testiguzat. Bada, juramentubaren izate guztia da, Jangoikuaren testiguzat auan artuta, baietz edo ezetz esatia, obeto sinistu eraiteko. Batzubetan egiten da juramentu iragotako gauzen gañian, beste batzubetan bertatikuen gañian, ta beste askotan etorkizunen gañian. Modu askotara egiten da juramentua; ta preminetan andiko gauzia da kristinaubak jakitua, ze berba modugaz juramentubak egiten dirian. Bada, kristinau asko bizi dira, lantzian lantzian juramentu txaarrak egiteko ekan du inpamigaz pekatu mortalian.

Lelengo egiten da juramentu, zerbaitegiteko kurutziari mun egiten jakonian. Onetarako edozein bere modutako kurutzia da asko: zein atzamarrekin egina, zein zotz bi alkaren gañian iminita egina. Kurutzia izan ezkerro, edozein da asko juramentu egiteko. Kurutze bagarik berba utsekin bere egiten da juramentu, ta modu askotara. Ta izango da, kristinaubak inori zerbaitegiteko berba oneetati bat edo bat esaten dabentan: *Jangoikorako; Jangoikua testiguzat iminten dot; Jangoikuagaiti; Jangoikua dan leez; Jangoikuagan sinistuten dodan leez; ebanjelijoko egija leez; Jesukristo ilzan leez; Jesukristoren izenian; kurutzia danan leez; neure pederako; neure arimarako; neure salbazinoerako; zernba danan leez; luurra danan leez; bizirik alde egin ez daidala; luurak paltan daidala; pausurik egin ez daidala; salbazinoiak paltan daidala...* Inori zerbaitegiteko, onetariko berbak esaten dirian guztian, egiten da juramentu. Bada, guzietan edo Jangoikuaren edo Jangoikuaren kriatura nausijenak auan artuta esaten da gauzia, obeto sinistu daijuen. Ta au beti da juramentu. Begiratu, kristinaubak, zeibat juramentu egiten dirian, inok asko aintzat artu bagarik. Geroko dotrinan esango da, onako juramentubak guzurragaz eitia ze pekatu dan.

Jangoikuaren ta kriaturen izenian juramentu egiten dana, esan dan leez, gauza jakina da, neure entzula onak. Bada, Jesukristo geure Jaunak esaten dosku, zerubaren izenian juramenturik ez egiteko, Jangoikuaren jarlekuba dalako zeruba. Luurraren izenian juramenturik ez egiteko, Jangoikuaren oñen lekuba dalako luurra. Elesiaren izenian juramenturik ez egiteko, errege nausijaren lekuba dalako Elesia. Noberaren burubaren



Izenian juramenturik ez egiteko, bada, bere buruko ule bati bere koloria mudau ezin leijo noberak; zeuben berbaak izan biar dabee: *ez edo bai*. Beste guztia ez da ona, dino Jesukristok. Jangoikuarenak dira kriatura guztijak ta Jangoikuaren indarra, eskubidua, justiziua, miserikordiua ta grazia geijen erakusten dabeen kriaturaak izentauta, zerbat esatia da juramentu etitia. Kriatura oneek dira, leen esan dan leez, zerubak, luurra, argija, Elesia, sakramentubak, kurutzia, ebanjelhua, pedia, arimia, salbazinoia, aingerubak, santubak... Ta ara emen aituta zer dan juramentu egitia.

II.

Juramentu egin ezkero biar dan moduban, erlijinoeko gauzia da; berez ona da ta Jangoikua ondreetan dabena da. Orregaiti jakin biar dau kristinaubak, nos egin leijan juramentu ondo dan moduban. Espiritu Santubak esaten dosku, neure entzula onak, Jeremias propeta santubaren aoti, juramentu egin biar dala egijagaz, preminigaz ta gauza onerako. Egijagaz egiten da juramentu, gauzia dana dan leez, ezer ezkutau bagarik geitu bagarik eta gitxitu bagarik juramentubaren beian esaten danian. Entzun beebar, entzun ebala; ikusi beebar, ikusi ebala; edo egin beebar, egin ebala. Jazo zan moduban, edo noberak dakien moduban juramentu eiten danian da egijazko juramentuba. Dakien moduban edo jazo zan moduban esaten ezpadau, egiten dau guzurrezko juramentuba. Dudiagaz dakijena, esaten badau ziartuzat edo ziartu dakijena dudakozat, egiten dau guzurrezko juramentuba.

Askotan gauza batzuk zuzen jakin arren ta juezak juramentubaren beian esateko agindu arren, bagoz esan biar ez dirianak. Onakuak izaten dira konpesimaloeko gauzak, konseju on bat eskatuteko autortutenean dirianak eta beste onetariak. Letraubai, medikubai, barberubai, ta beste askori bere sarritan jazo lekijozanak. Orduban erantzun leijo juezari, *edakijela*, guzurrezko juramen turik egin bagarik. Bada, juezak ez dauka alako gauzaak itanduteko eskubiderik, ta dakijenak bere ez, erantzuteko obligazioenak. Nos eta zelan au egin biar dan, guztiok atiu zinaijan moduban esateko, erregela seguru bat imimi ezin lei.

Gauza onetan dotrina puska bat baño ez dakijen kristinaubak egin biar dabeena da, inundi al badaije, juramentu eitera orduko, itandu ondo dakien bat, juramentubaren beian esan biar dabeen gauzia zelan dakijen, zetaraño dakijen ta zer autortu biar dabeen edo zer erantzun biar deustseen juezari.

Guzurragaz juramentu egitia, beti da pekatu mortala. Onetan ez dago inos bere gauza gitxirik edo pekatu benialik. Alperrik izango da gauza gitxi baten gañian, nai txantxa baten gañian juramentuba; beti da pekatu mortala guzurrezku. Oh, zeinbat pekatu mortal egiten ditubeen, arako berbaan berbaan, *Jangoikorako, argija dakustan leez, luurak paltan daidala* ta beste onako izkune txaarrak daukeezan kristinaubak! Askotan guzurragaz ta geijenian premina bagarik egiten ditube alakuak juramentubak.

Juramentu egiteko bigarren zirkustanzia da, neure entzula onak, premina eukitia. Premina bagarik juramentu egitia, beti da pekatu. Baña ez da beti pekatu mortala. Premina bagarik sarritan juramentu eiteko ekanduba, pekatu mortala da. Jangoikuaren izen santuba erreberenzia bagarik eta alperrik kostunbrez auan artzeen dabelako; ta nosbait guzurragaz juramentu eiteko pelleburuban daulako. Nosbaitako baten edo gitxitan egijagaz, ta gauza onerako premina bagarik juramentu egitia ez da pekatu mortala, beniala baño.

Preminia edo juramentu egiteko nezesidadia nos dauan jakiteko, iminten dira erregela batzuk. Lelengo: Juezak aginduten dabenian. Bigarrenian: Opizijuak edo estadubak aginduten dabenian. Ta irugarrenian: Noberaren edo projimuaren bizitzia, osasuna, kleituba edo azientzia jasoteko, libreetako edo gordeetako biar danian. Bada, alako kalte andija, noberarena edo inorena erremedijau ezin bada juramentu bagarik, orduban juramentu egitia, juezak agindu ez arren, gauza ona da ta askotan biarrekua.

Juramentu ondo egiteko irugarren kondezinoia da, gauza onaren gañian juramentu egitia. Oni esaten jako, *justizjagaz* juramentu egitia. Kondezinoe onegaz kunplietako, juramentubagaz esaten dan edo aginduten dan gauziak izan biar dau onak. Juramentuz esaten badau ez ebala ezer oostu, ez ebala bidaorik egin, ez ebala guzurrik esan; edo juramentubaren beian aginduten badau meza entzutia, limosna bat emotia, jokorrik ez egitia, pekatu eiten daben etxera ez juatia, pekatuko lagunagaz ostera berbarik ez egitia, orditutenean ardaorik ez eraatia edo beste onako Jangoikuak nai daben gauzaren bat, orduban egiten dau gauza onerako edo justizjazko juramentuba.

Baña juramentubagaz esaten badau gauza txaar bat egin ebala, edo juramentu egiten badau pekatu egin ebala sinistu eraiteko, edo pekatu dan gauzaren bat egiteko, orduban da juramentu egitia pekatu. Esango baleu batek: Jangoikozat, urlujainagaz pekatu egin nebana; edo beso bijak igartu dakidazala, bengeetan ezpanatzako; edo diabrubak eruan naijala, parkatuko neuskijon baño leenago... Onako juramentubeetan geijenian egiten



dira pekatu mortal bi. Bata leen egindako pekatubak onzat daukazalako edo projimuaren desio txaarra daukalako; ta bestia gauza txaarraren gañian juramentu egiten dabelako. Begiratu, kristinaubak, dotrina onetan, zeinbat juramentu donga egiten dirian, bai txantxeetan, bai banidadez ta bai gorrotoz! Juramentu gaistua sakrilejiozko pekatuba da.

III.

Juramentubagaz aginduten dan gauzia gauza ona bada, edo pekatu dan gauzia ezpada, kunplidu biar da, inundi bere al deila, ta ezpabere egingo dau sakrilejiozko pekatuba. Juramentu egiten dau limosna bat emoteko, onako edo alako etxetara ez juateko; onako edo alako personiagaz ez egoteko; jokorik ez egiteko; ardaorik ez eraateko, etxia à, persona à, jokua à ta ardaua dala medijo pekatu egiten dabelako. Bada, dauka obligazinoia kristinaubak pekatu mortalaren beian juramentu oneek kunplietako. Ta onako juramentubak austen dituban bakotxian, egingo ditu pekatu mortal bi. Bata, leengo pekatu eiteko okasinoian sartu dalako ta bigarrena, sakrilejiozkua, juramentuba ausi dabelako. Gauza txaarrari isteeko egiten dirian juramentu guztiak daukeez esan dirian malezija bijak, austen dirianian. Juramentubagaz agindu dabentzen gauzia bada ona, orduban ez da pekatu bat baño egiten, kunplidu ez arren. Gauza andija bidaun kunplidu bagarik itxi dabena, izango da pekatu mortala ta gauza gitxian bida, beniala. Gauza txaarrerako egiten dirian juramentubak, ez dira kunplidu biar. Norbait ilteko, zerbaiz oostuteko, kalte bat inori egiteko, norbaitegaz pekatu eiteko... juramentu eitia, sakrilejiozko pekatuba da, leen esan dan leez. Ta juramentu a kunplietia, izango litzaateke bigarren pekatuba.

Ara emen, kristinaubak, aituten emonda berba gitxitan, zer dan juramentu egitia; nos eta zelan egin biar dan; ta baita nos eta zelan kunplidu biar dirian edo ez dirian juramentubak. Eskatu dajogun zeruko Jangoikuari, Ama Birjina Santisimia bitaarteko imimita, bere izen santuba debozinoiagaz ta erreberenzijagaz beti auan eta goguan eukiteko grazia. Amen.

BIGARREN MANDAMENTUKO BIGARREN LEZINOIA

zeñetan erakusten dan
guzurrezko juramentubak ze injuriya andija egiten deutsan Jangoikuari ta juezaren aurrian guzurrezko juramentuba egin dabenak, ze obligazinoe daukan.

Erakutsi eskero kristinaubari zer dan juramentu egitia, nos egin biar dan eta zelan kunplidu biar dan; onen ondorik guztiok jakin biar dozuna da, neure entzula onak, guzurrezko juramentubak daukan malezija ta bere ondorik dakarren obligacione estuba. Ta artu daizun zeuben bijotzetan guzurrezko juramentubaren betiko gorroto mortal, esango dotsut dotrina onetan: Lelengo, guzurrezko juramentubagaz Jangoikuari egiten jakon injuriya. Ta bigarrenian, guzurrezko juramentuba juezaren aurrian egin dabenak, daukan obligazinoia. Sarri jazotzen dan gauzia ta geure salbazioia baño gitxiago balijo ez dabena dalako, merezietan dau dotrina onen zeuben atenzinoe guztia.

I.

Guzurrezko juramentubak Jangoikuari egiten deutsan injuriya. Pekatu jenero au biar dan moduban ezaututeko, lelengo jakin biar dozu, kristinaubak, gauza gatzeti edo txaarreti daukala juramentubak bere asierria. Gizonaren malezija ta sinistute txaarra dala medijo diriala juramentubak. Bada, kristinau guztiak balira egijazkuak, zuzenak, eurak dakijen leez, geitu, gitxitu, edertu, ukatu edo estaldu bagarik gauzia esaten dakijenak, sekula ez leoke preminarik, juramentu bat egiteko. Orduban asko izango litzaateke, alkarriz sinistuteko, *eñ da edo bai da esatia*, Jangoikuaren izen santuba auan artu bagarik. Baña gizon eta emakumiak dirian leez euren malezijotsubak, engañutsubak eta guzurtijak, dakijena ez jakin eiten dabeenak, ez dakijena jakina leez esaten dabeenak, askotan erdiz erdi baño gauzia esan gura ez dabeenak, beste askotan guztia ukatutenean dabeenak ta inos bere euren bijotzeko tolotzuraak ondo zabaldu ta ikusi ezin leizanak; orregaiti bildur izaten gara, bestiak dakijena jakin biar dogunian



edo inori jakin eragin biar deutsagunian, engañetan ete gaitubeen edo guzurra esaten ete doskubeen. Bildur augaiti eskatuten dira testigubak, esaten dana egija dan edo ez jakiteko. Baña munduko testigu guztiak bere, gizonak edo emakumiak, guzurra esan leigubeenak dirian leez, biar da testigu bat guzurrik esan ezin leijana. Ta ara emen juramentubaren nezesidadia, neure entzula onak. Gauzia pirme sinistuko badogu, ekarri biar da guzurrik esan ezin leijan testigu bat. Guztia dakien ta guzurrik esan ezin leijan testiguba Jangoikua da. Ta Jangoikuaren izenian *ez da edo bai da esatia*, Jangoikua testiguzat ekartia edo juramentu egitia, guztia bat da.

Jangoikua testiguzat artuta esaten dan gauzia, guztia sinistu biar dabee; bada, Jangoikuak inos bere guzurrik esan ezin lei. Ta orregaiti juramentu da, esaten dana sinistu eraiteko errazoe nausija. Juramentu egiten dabenak esaten badau gauzia zuzen dakien moduban, ekarten dau Jangoikua testigu egijazkozat ta sinistuten jako esaten dabena. Baña juramentubaren beian guzurra esaten badau, ekarten dau guzurraren testiguzat Jangoikoa; ta sinistu arren orduban bere esaten dabena, Jangoikua testiguzat artuta esan dabelako, iminten dau Jangoikua testigu guzurtizat ta egiten dau Jangoikua guzurti. Ara emen guzurrezko juramentubaren malezi ja guztia, neure entzula onak. Jangoiko egijazkua, Jangoiko zuzena ta gauza guztien barri dakirena, guzur bat sinistu eraiteko testiguzat imintia. Bera paltsua ta guzurtija dan leez, Jangoikua bere paltsua ta guzurtija dala esatia. Ez dago luurraren gañian beste modurik gauzia pirme sinistu eraiteko, Jangoikua testiguzat ekartia baño. Denpora guztietan egon da sinistute bat, Jangoikuak guzurrik esan ezin leijana ta Jangoikuaren izenian esaten dan guztia egija dana. Denpora guztietan esan dira gauzaak Jangoikua testiguzat artuta, ta denpora guztietan egir dira juramentubak. Jangoikuak berak egin ditu sarri bere izenian juramentubak, geure argalatasunagaz akordauta, bere berba santubai pirmeza andijaua emoteko. San Pablo apostolubak jentilai predikeetan eutsenian, Jangoikua testiguzat iminten eutseen, egija esaten ebana sinistu eraiteko. Ene ama santa Teresak egin eban juramentu ikaragarri bat, premina andiko egija bat bestelan sinistu erain ezin ebanian. Zurak eta arrijak Jangoikozat eukeezan jentilak bere sarritan juramentu egiten ebeen euren Jangoiko paltsuen izenian, baña ez ziran azartutten guzurragaz juramentu egiten, dino san Agustinek. Bada, jentil itsubak atreibiduten ezpaziran zuren ta arrijen izenian juramentu paltsua egiten, zelan atreibiduko da, dino san Agustinek, kristinauba, Jangoiko bizijaren, Jangoiko egijazkuaren ta zelotsubaren izenian guzurrezko juramentuba egiten?

Guzurrezko juramentuba egiten dabenak ukatuten deutsaz Jangoikuari daukazan gauza on guztiak. Esaten dau Jangoikua dala guzurtija ta atarako dakar guzur bat sinistu eraiteko testiguzat. Jangoikua guzurtija balitz, ez litzaateke izango ez zuzena, ez ona, ez jakituna, ez egilia, ez salbazallia; ezpada okerra, paltsua, gaistua ta engainutsuba, edozein bere guzurti leez. Orra, neure kristinaubak, ze injuri ja dija egiten deutsan Jangoikuari, guzurrezko juramentuba egiten dabenak. Begiratu bada, neure entzula onak, ze pekatu ikaragarrija daroian beragaz juramentu paltsuak!

Orregaiti esaten dau Teodoreto jakitunak, ez dala auan artu biar Jangoikuaren izen santuba, orazinoe egiteko ta premina andiko gauza egijazkoren bat erremedijetako baño. Zer izango da, bada, guzurragaz ta guzurra sinistu eraiteko Jangoiko bizija auan artzeia? Alperrik da esatia: *etxako inori kalterik etorri nik egin neban juramentu paltsuagaz*. Guzurragaz juramentu egin ezkerro, barre egiteko bada bere, lasto batek edu importa ezpadau bere, beti da sakrilejijoek pekatu mortala. Ez dago onetan pekatu txikirik. Ta zeinbat gauza gitxijuaren ta utsauaren gañian egiten dan guzurrezko juramentuba, ainbat egiten jako Jangoikuari injurija andijaua.

Jangoikuari testigantzia emon eraitia, gauza astuna ta andija da; guzurrezkua emon eraitia, guztiz astuna ta guztiz ikaragarrija da; ta gauza gitxi bat gaiti, utsa gaiti, barre bat gaiti emon eraitia, milla bidar astunaua ta ikaragarrijaua da. Oh, juramentugin tristiak! Oh, berbaan berbaan edozeinberre gauza gaiti egijagaz nai guzurragaz *arimarako, Jangoikorako, argija dakustan leez* ta beste onako, esan dirian juramentubak egiteko izkune zorigestokua daukeenak! Oh, zeinbat sakrilejijo ikaragarri egiten ditubeen! *Inori kalterik etorri etxakola, denporia iragoteko dala esanda, uste dabee alako errukarrijak, libreetan diriala*. Baña ez, neure entzula onak. Ez dago txantxarik eta gauza gitxirik guzurrezko juramentubaren gañian. Onako juramentu paltso guztiak eta bakotxak guzurti eiten dabee Jangoikua, desondreeta dabee Jangoikua ta lotsatuten dabee zero guztia. Ta ez da oraindino onetan geratutenean.

II.

Guzurrezko juramentubak esan dirian kalteen gañera dakaz beste asko, neure entzula onak, ta endamas juezaren aurrian egiten darian. Juezak juramentu eragiten dau, egija jakiteko, errazoiak nok daukan jakiteko ta alde bijetako errazoiak eta egijaak ezaututa, bakotxari beria emote-



ko. Bada, testigubak juramentubaren beian ukatutenean bida, gitxitu, geitu, edertu edo toloztutenean bida esaten dabena, ez dau juezak egija jakiten, dan moduban. Ta nai baleu bere, sentenzia zuzena emon ezin lei. Ta ara zelan urtetenean dabentzen sentenzia, kulpak ez daukana kastigauta ta kulpia daukana libre, guzurrezko testigantzia dala medijo. Oh, zeinbat bidar au jazotenean, neure kristinaubak! Enpeñuba gaiti, inoren ederra gaiti, bengeetia gaiti, zer edo zer agindu deutseelako, edo bere kontura ardura bagarik berak dakijela ta juramento egiteko esan deutseelako, sarritan egiten dira juramentubak, edo guzurrezkuak, edo gitxituta ta geitura, edo inoren esanaren gañera, noberak ez dakijela. Ta zer jazotenean da emeti? Sentenzia okerra. Juezak libreetan ditu erruba daukeenak ta kondeneetan ditu inozentiak. Ondraubak geratutenean dira desondrauta ta desendraubak ondriagaz. Urkatu biar leukiana bizirik eta bizirik egon biar leukiana urkatuta. Jaubia azienda bagarik ta lapurra inoren aziendiagaz. Au guztiau ekarten dau, neure entzula onak, guzurrezko juramentubak.

Zer egin biar dau, bida, juezaren aurrian juramento txaarra egin dabentzen? Juezaren aurrian testigantzia paltsua emon dabentzen obligazioa da: 1º Sentenzia jausi ezpada orduko, juan ta esan juezari *guzurrezko testigantzia emon ebala, itandu entseen gauza a oker esan ebala ta ez dabela gura balio dajen*. Ta juezak sinistu gura ezpadeutsa, (jazo leitekian leez) dauka obligazioa testigu aurrez autortuteko guzurra esan ebana, ta eskribau aurrez paper bat eginda, tokeetan jakonari entregeetako, guzurrezko testigantzia emon zan auziaren edo kerelliaren sentenzia jausita, kulta bagakua kastigau ez dein. 2º Testigantzia paltsua edo ondo jakinbakua emon zan demandarien sentenzia jausi bida, guzurrezko juramentuba egin ebanak dauka obligazioa kleituba galdu eutsanari biurtuteko, ez bakkarien, ezpada guztiak jakin lejen moduban. Bada, guztiak jakin lejen moduban galdu jako, guzurrezko juramentuba dala medijo. Onezaz ostian, pagau biar deutsaz justizian egin dituban kastubak ta beste guzurrezko juramentuba dala medijo etorri jakozan kalte guztiak. Inoren ondriaren ganian egin dozu, justizialak aginduta, guzurrezko juramentuba. Zure guzurra dala medijo juezak kastigau dau kulpak ez eukana; zure guzurra dala medijo kastau dau justizia errurik ez eukanak. Bada, zure obligazioa da, testigu aurrez ta guztiak jakingo dabeen moduban, kleituba galdu deutsazunari atzera bere kleituba biurtutia ta auzitan edo demandan egin dituban kastubak ta euki dituban kalte guztiak pageetia.

Beste ainbeste: Egin dozu guzurrezko juramentuba juezaren aurrian, solo bateko, baso bateko, etxe bateko, tratu bateko edo beste aziendako auzi baten, ta zure guzurrezko testigantzia dala medijo irabazi dau auzi

errazoiak ez eukanak; ta geratutenean da errazoiak eukana, auzitan egin dituban kastubekin etxeko biarraren paliagazta azienda bagarik. Bada, zure obligazioa da, galdu dabentzen azienda baliju, auzitan egin dituban kastubak ta beste etxeko kalte guztiak pageetia. Bestetan ez dago salbazinorik testigantzia paltsua emon dabentzen. Ilten balego bere inok absolbitu ezin lei, guzurrezko edo ondo jakin bagakao testigantziagaz galdu dabentzen kleituba ta egin dituban kaltiak erremedijau artian. Ta ara emen, neure kristinaubak, berba gitxitan esplikauta zer dan guzurrezko juramentuba ta zer egin biar dabentzen paltsua emon dabentzen. Esan daigun beti egija zuzen, dakigun moduban. Ez testiguzat eruaten gaitubanak gura dabentzen moduban edo ari ondo juakon moduban. Ez bestiak ardura bagarik bere kontura juramento egiteko esaten doskun moduban, ezpada dakigun moduban, entzun dogun moduban, ikusi dogun moduban, esan dogun moduban edo egin dogun moduban. Ta libre egongo gara pekatu askotati. Alan gura izan daijala geure Jangoiko onak Aitiaren, Semiaaren eta Espiritu Santubaren izenian. Amen.



BIGARREN MANDAMENTUKO IRUGARREN LEZINOIA

zenetan erakusten dan
*zer dirian botuak edo promesak, zelan kunplidu biar
dirian ta zelan kentzeen dan euren obligazinoia.*

Sarritan jazoten jatzun gauzia da, neure kristinaubak, Jangoikuari ta santubai botuak edo promesak egitia. Geure erlijinoe santuko egitiak dira botuak eta promesak. Ta kristinaubak jakin biar dau ze obligazinoe dakkaren alako oprezimentubak. Erakutsiko dotsut, bada, dotrina onetan: Lelengo: zer dan boto edo promes egitia. Bigarren: zelan kunplidu biar dirian promesak. Irugarrenian: zelan kentzeen dan promesen obligazinoia.

I.

Promes egitia zer dan erakustera orduko, jakin biar dau kristinaubak Jangoikuari baño besteri etxakola botorik eta promesik egiten. Aingerubai, santubai edo santei egiten deutseezuzan promesak bere, ondo aitu ezkero, Jangoikuari egiten jakozanak dira. Santu ta santai zer-bait promesagaz oprezietan jakuenian, Jangoikuari promes eiten jako; ta santuba edo santia iminten da bitaartekoza, eskatuten dan gauzia Jangoikuaganik erreztuago jadiesteko, laugarren sakramentuan mezako dotrinaan esango dan leez. Orraitino bere, aintzinako usadijua da Elesaan, santuben izenian mezaak etaratia ta promesak egitia, Poujet jakitunak dinuan leez. Baña au guztiau egiten da Jangoiko bakarraren izenian. Asko da Zubertzako, neure kristinaubak, Elesa Ama santiaren intenzi-noiagaz bat eginda, Jangoikuaren edo santuben izenian, debozinoia dau-kazun moduban, promes egitia. Jakin ezkero, bada, nori egin biar jakozan promesak, ez da beste gauzarik promes egitia, ezpada *noberak obligazinoerik ez daukan gauza ona baño obia ezaubera ta libertade osuagaz Jangoikuari oprezietia*. Esaten da: noberak obligazinoerik ez daukan gauzia. Bada, obligazinoekuak bere promes egin leiz nosbait; baña geijenian ez da alan izaten. Esaten da gauza ona baño obia; bada, Jangoikuari botuagaz oprezietan jakona, obia izan biar dau isteen jakona baño, promesak balijkoko badau.

Berbigrasija Jangoikua obeto serbietia gaiti ezkondu bagarik bizi izatia, berez oba da, ezkondu baño. Jangoikua obeto serbietia gaiti komentu baten sartzeia, berez oba da ez sartzeia baño. Ta modu onetan beste asko. Orregaiti ezkontzeko botuak, priale ez izateko botuak, monja ez izateko botuak ta beste onako gauza ona baño obia oprezietan ez dabeen botuak, eureenez ez dabee balijo ta promes alperrak dira, euren geija ona baño obia ez dalako. Promesen geijk izaten dira: Erlijinoe baten sartzeia, kastidadia gordeetia, ezkondu bagarik bizi izatia, baru bat eta limosnaak egitia, meza entzutia, sarri konpensetia, erosario ja debozinoiak erreztetia, jokorik ez egitia, dibersinuetara ez juatia ta beste onako gauzaak. Oneek dira botuagaz edo promesagaz Jangoikuari oprezietan jakozanak.

Ez da asko botua edo promesa egiteko, gauza ona egiteko ustia edo intenzinoia artzeia. Berbigrasija, egun baten baru egiteko gogoa imintia edo intenzinoia artzeia, ez da bota egitia. Boto edo promes egiteko, ezau-bera ta libertade osuagaz Jangoikuari oprezidu biar jako gauza a, kunpliduteko uste osuagaz edo bere buruba atara obligeetako goguagaz. Dotrina au ondo aitutia txito biarrekua da, neure entzula onak. Bada, askotan botorik eta promesik egin ez dozun gauzeetan, uste dozu pro-mesa dala; ta beste askotan promes ezagunak daukazuz, bapere kunplidu bagarik. Orregaiti ikasi biar dozu erabagiten ainbat onduen zer dan gauza ona egiteko gogoa artzeia ta zer dan gauza ona baño obia Jangoikuari oprezietia. Lelengua ez da botua; bigarrena bai.

Dudia daukazunian promes egin dozun edo ez, begiratu biar deutsazu zek erain otsun, zegaiti egin zenduban ta zer egin zenduban. Ta orduban ezautuko da promesa dan ala ez. Gaiso bateti, trabaju bateti edo beste estutasun bateti ondo libreetako Jangoikuari ta santubai egiten jakuezan oprezimentubak, geijenian izaten dira promesak. Dudia dauka-zunian, itandu biar deutsazu konpesoriari edo dakijenari. Bada, gauza onetan erregela guztizko bat inok bere imini ezin lei.

II.

Botuak edo promesak egin ezkero, kunplidu biar dira, neure entzu-la onak. Bada, Jangoikuari ta santubai egiten jakuezan oprezimentubak dira. Promes egin dan gauzia, al della, ez kunplidutia pekatu da; ta berez pekatu mortal da. Izan leiteke askotan pekatu beniala promesa ez kunplidutia, bai gauziaren parteti ta baita denporiaren parteti bere. Gauziaren parteti izango da pekatu beniala, kunplidu bagarik isteen dana gauza gitxi-



ja danian. Gauza andija ala txikija dan jakiteko, begiratu biar jakue beste pekatu mortala edo beniala dirian gauzei. Egunian egunian abemarija bat errebetako promesa, gauza gitxija da. Ta errezaez arren, ez da pekatu mortala egiten, beniala baño. Errosario bat errebetako, meza bat entzuteko, baru bat egiteko edo onen egunetan konpeseetako promesa, gauza andija da. Ta al della kunplietan ezpada, pekatu mortala eiten da.

Denporiaren parteti promesa ez kunplidutia izango da pekatu mortala: 1º Gauza andija izan ezkero, izenteetan dan denporaan, al della kunpliduten ez danian. Promes egiten dau urrengo zapatuban meza entzuteko; bida, al dajala mezia entzuten ezpada urrengo zapatuban, egiten dau pekatu mortala, izentauko denporaan promesa kunplidu ez dabelako. Erromeriá batera santubaren egunian juateko egiten dirian promesak nos kunplidu biar dirian, esango da dibersinoetako doctrinaan. 2º Kunplietako denporia izentau bagarik egiten dirian promesak, kunplidu biar dira ainbat lasterren. Gauza gitxi bat luzatutia izango da pekatu beniala; gauza andija bida, mortala. Meza bat etarateko promes egiten dabena illebete baño geijago luzatutia, leenago etara al dajala, egingo dau pekatu mortala. Ta modu onetan beste promesak bere. Baña limosna bat premina dauenari emotia promes eiten danian, denpora gitxiago bere asko izango da pekatu mortala eiteko, al dajala emoten ezpada.

Gauza onetan nik esan neizuna da, neure kristinaubak; promesa eitera orduko begiratu daizula ondo. Bein egin ezkero, kunplidu daizula ziur egin dozun moduban. Jangoikuari egiten jakon oprezimentuba da promesa. Orregaiti esaten dosku Jangoikuak berak Eskritura Sagraduban: Jangoikuari botua edo promesa egiten badeutsazu, ez dozu luzatuko kunplidutia; bida, Jangoikuak eskatuko dotsu agindu zeuntsana ta luzatuten badozu, pekatu egingo dozu. Pekatu jenero au espliketan dau ene ama Teresak eta dino, zeruko Jaun andijari burla egitia dala agindu ta ez emotia, promes eginda ez kunplidutia. Elesako maisubak esaten deutsee sakrilejiozko peka tuba, promesa ez kunplidutiari. Onetan palta andija dago, neure entzula onak, kristinauben artian. Buruko min bat daneko edo beste naibage bat etxian edo aziendaan datorreneko, Jangoikuari edo santubai eiten jakuez promesak; ta gero denpora luzeetan ez dira kunpliduten. Onako promesik geijenak izaten dira gatzak jo daizanian, estu estuban arin aringa ta ondo pensau bagarik egiten dirianak. Ta aldi estuba à irago deinian, ez da inor akordeetan promesagaz. Onetarako oba litzaatke sekula promesik ez egitia. Bida, Jangoikuaren legiak ez dosku aginduten promesak egiteko; ezpada egiten badogu, ziur kunplietako. Esaten dosku bai Jangoikuak arin aringa ta ondo pensau bagarik egiten dirian

promesak etxakozala gusteetan; ez beste gauza gaiti, ezpada geijeneta ondo kunpliduten ez dirialako. Kontu bida, kristinaubak, gauza onetan.

III.

Iruigarren lekuban, promesaren obligazioia kentzen da modu askotara. 1º Promesa kunplidu ezin danian. Bida, ezin dabena lege guztietan libre dago. 2º Promesa kunplietako denpora izentauba iragoten danian kunplidu bagarik. Santu baten debozinoia gaiti promes egiten dozu, aren besperaan baru egiteko. Bida, egun a irago ezkero, ez dauka zu obligazioerik baru egiteko. Baña zeure pekatubeetati libreetia gaiti ta konzientzia garbitutia gaiti promes egiten dozu urrengo domeekan konpeseetako. Bida, domeeka atan konpeseau ez arren, daukazu obligazioia ainbat lasterren konpeseetako. Promes batzuk nai kunplidu ta nai kunplidu ez, izentautako denporiagaz akabeetan dira. Baña beste batzuk ez. Limosnia emoteko promesak, inori mesede egiteko promesak ta nobera salbazinoeko bidera etorteko popuertza biar dirian gauzeetan egindako promesak, ez dira kentzen, denpora izentauba irago arren. 3º Elesako agintarijak (zeintzuk dirian Aita Santu Errromakua, obispo jaunak eta beste asko) kentzen dabeenian. 4º Promes egin dabent gauzia, konpeseoriak beste gauza batera mudeetan deutsanian. 5º Promesagaz agindu dabent gauzia artu biar dabena parkatuten deutsanian. Beste modu askotara bere kentzen da promesaren obligazioia; baña ez da ain premina andikua zubek guztiak jakitia. Ta doctrina au akabeetako esango dot gauza gitxi bat berba dongen gañian. Berba dongak esaten jakue *bidauei, maldezinoiai* ta *blasphemijai*. Bidaua da demoninuaren, diabrubaren ta barrabasaren izena premina bagarik esatia. Nosbaitako baten esatia ez da pekatu mortala. Berbaan berbaan demoninua, diabrub... purijaz edo txantxeetan bere esatia, guztienez da oitura txaarra; baña gurasuenetz geijenian pekatu mortala, (besteenezzain laster ezpada bere) pamelijari gaiski erakusten deutseelako. Maldezinoia da projiemuaren gatxa esaten dabent berbia. Berbigrazija, Itoko al dala; beso bijak igartuko al jakozala; purgatan kastauko al dabela... Intenzinoe txaar bagarik onako berbaak esatia (eskan-dalurik emoten ezpada) nosbaitako baten, izango da pekatu beniala. Intenzinoe dongarik euki ez arren, onako berbaak esateko kostunbria pekatu mortala da, sarritakuak eskandalubea beragaz daroialako. Intenzinoiagaz onako maldezinoia egitia, bein baño ezpada bere, pekatu mortala da. *Blasphemija* esaten jako Jangoikuaren edo santuben kontrako



berba dongiari. Esango baleu inok: *Jangoikuak ez daki ezer; Jangoikua sinplia da; Jangoiknak ez dau inor kondenau biar*; edo beste onako Jangoikuaren ta santuben kontrako berbaak, egingo leuke pekatu mortala. Baita adrede edo txantxeetan esango baleu bere. Jangoikuaren ta santuben kontra izan ezkerro, danik berbarik txikarrena da pekatu mortala ta esaten jako *blasphemijako* pekatuba.

Artu daigun bada, neure kristinaubak, onako bidao, maldezinoe ta beste berba donga guztien gorroto andi bat. Bizitzaan sarri esaten ditugun gauzaak, erijotzako orduban bere urtengo doskubee. Oh, ze erijotza tristia bada, neure entzula onak, diabrubia, barrabasa ta demoninua auan ta albuian daukazanarena! Esan daigun: Jesus, Maria ta Jose. Izen santu oneek beti geure auan, geure bijotzian ta geure goguan, bai bizitzan, bai erijotzan ta bai eternidade guztian. Alan izan della. Amen.

[IRUGARREN MANDAMENTUBA]



IRUGARREN MANDAMENTUKO LELENGO LEZINOIA

zeñetan erakusten dan
*ze biar eraozten doskun Jangoikuak domekeetan ta jai
osuetan, zelan eraozten daben ta ze nezesidadegaz bia-
rra egin leijan egun areetan.*

Jangoikuaren legeko irugarren mandamentubak aginduten dosku, neure entzula onak piesta egunak santipikectako. Piesta egunak esaten dianian, aituten emoten da domeekak eta beste urte barruko jaijak. Urte barruko jaijak, batzuk osuak dira ta domeeketako obligazinoe guztia dago jai osuetan. Beste batzuk dira jai erdijkatua eta oneek kunplietan dira meza santuba entzunagaz. San Gregorijok esaten dau, domeekak eta jaijak santipiketan diriala biarrik egin ezagazta obra onak eginagaz. Gauza bi aginduten doskuz mandatu onek: bata biarrik ez egitia ta bestia obra onak egiten egun santu oneek iragotia. Jaijetarako obra onen artian Elesa Ama santiak señalauta dauka, meza osua entzutia. Ta ara emen, neure kristinaubak, mandamentu onetan erakutsiko dotsudan dotrinia. Lelengo lezinoia izango da biarrik ez egitiaren gainian. Bigarrena, meza entzutiaren gañian. Irugarrena, meza osua entzutia asko dan edo ez jakitiaren gañian.

Astian bein edo geijagotan pekatu mortalaren beian obligetan gaituban gauzia da, neure Kristinaubak, jaijak gordeetia. Ta errazoa izango da txito kuidado andijagaz mandamentu onetako dotrinia zubek ikastia. Geijago luzatu bagarik esango dotsut dotrina onetan: Lelengo, Jangoikuak jai domeeketan eraozten doskuzan biarrak zeintzuk dirian. Bigarrenian, zelan eraozten doskun jaijeguneko biar egitia. Ta irugarrenian, nos biarra egin leijan jaijegunetan pekaturik egin bagarik. Entzun eizu kuidado guztiagaz.

I.

Jangoikuak jai domekeetan eraozten doskuzan biarrak zeintzuk dirian ezaututeko, jakin biar da lelengo santo Tomasegaz, guk egin al daimuzan biar jenero guztiak, edo dira pekatuzkuak, edo dira projimuaren ta

geure probetxukuak, edo dira Jangoikuaren ondrarakuak. Pekatu egiten dabenak egiten dau pekatuzko biarra ta geratutena da, dino san Juanek, pekatubaren krijadu edo pekatubaren aginduban. Jai domeeketan pekatu egiten dabenak, dino san Antoninok beste maisu askogaz, austen ditubala lege bi: bata pekatu egin dabelako ta bestia Jangoikua alabeetako egun santuban egiten dabelako. Ta konpesimalan esan biar dau jaijegunian pekatu egin dabenak, *domeeka edo jaijegunian pekatu egin ebala*. Bada, jaijegun santuban egiten dan pekatu mortala ezainaua ta andijaua da, astegunian egiten dana baño. Ez zaitez, bada, aaztu dotrina onegaz, neure kristinaubak. Duda bagarik esan lei, Jangoikua serbietako egun santubak, domeekak eta jaijak, ez diriala ya geure Jangoiko andija ondreetako; ezpada banidadia, munduba ta diabrubia serbietako.

Noberaren edo projimuaren probetxurako biarrak dira, gorputza kansauta, bizitzia manteniak eskubekin egiten dirianak. Oneek izenteetan ditu beste konzilioa ta maisu askoren artian Meldeko konziliuak eta dino, jai domeeketan eragozita dagozon biarrak diriala: Soluetako biarrak, aotzijako, argintzako ta erreminta gintzarako biarrak, arrain artzallen, merkatarien, juezeen, pinturaginen, kazaarrien, joslak, eula ta gorularien biarrak. Biar jenero oneek guztiok eraotzita dagoz Elesako erregela askotan, jaijeguna eta domeekak gordeetia eraozten dabeelako. Kontu euki biar dau, bada, kristinaubak jaijegunetako biarragaz. Ez dau sekula inok pensau biar, jaijeguneko biarrak aberatstuko dabela. Ez dau inok pensau biar, geldi dauan kostuban, asko nekatu bagarik egiten dala. Jangoikuak eraotzita dauan gauzia da ta bera da asko besperaan edo bijaamorian egin leijan biarrik jai domeeketan ez egiteko ta mo ez eragiteko. Egun santu oneetan ez dozu biarrik egingo, dino Jangoikuak, ez zeuk, ez zeure semiak, ez krijadubak, ez zeure etxian dauanak, ez zeure alemanijak.

Berba oneetan eraozten ditu Jangoikuak esan dirian biar guztiak ta baita beste baserritarra egin dituben asko bere, zeintzuk oihartzen esijak zarratutia, aparejubak imintia, abarka jostia, biurgeijak ekartia ta zopinuak egitia, iketza etaratia, ikaztoirako betegarrijak presteetia, erropa zarrak adabeetia, zorrak errrotara eruatia, uruna ealgitia, ganadu jaatekorik gatxeena batzeia ta beste asko, leenago edo geruago egin leizanak ta egin biar dirianak. Onako kristinaubak bizi dira beti arrastaka ta priisaka, beti biarpian ta beti preminaan. Oh, ze alperrik kanseetan dirian desditxaubak! Jangoikuaren kontra nai leuket ezer aurreratu? Ez. Batetik aurreratutenean dabeena, nundi ez dakijela, laster juango jakue. Baña orduba da ya jakiteko, zelan pekatu egiten dan jai domeeketako biarragaz.

**II.**

Pekkutu mortalaren beian dago eraotzita, neure kristinaubak, jai osuetan ta domekeetan biarra egitia. Baña ez da biarra egiten dan guztian pekatu mortal[a] egiten. Ezaututeko nos dan mortala edo beniala, begiratu biar jako bai egiten dan gauziari ta bai biarra egiten iragoten dan denporiari. Merkatarijak denpora gitxijan saldu edo erosi leije irabazi andiko gauzia; ta egun eraotzijetan izan ezkerro, egingo dabee pekatu mortala gauza andija saldu edo erosten dabeenian, denpora gitxijan izan arren. Beste ainbeste esaten da, testigantza artzeiak eta setenzia emotiak gaiti. Oneek guztiok eraotzita daukaz Elesa Ama santiak ta etxako onako gauzeetan denporiari begiratuten, egiten dan gauziari baño, pekatu mortala egiteko.

Beste gauzeetan geijenian denporiari begiratuten jako, jaijeguneko biarra pekatu mortala ala beniala dan ezaututeko. Denporiari begiratuta bere ez da errez erregela seguru bat iminten. Maisu batzuk geijago ta beste batzuk gitxiago biar dala pekatu mortalerako, erakusten dabee. Orraitino bere gauza jakina da, neure kristinaubak, jaijeguneko ordu erdiko biarra ez da pekatu mortala, beniala baño. Ordubetian biarra egitia, esaten dabee geijenak, pekatu beniala dala. Baña beste maisu batzuk (ez ain errazoe txaarrekin) esaten dabee, irabatzia gaiti edo gauzia aurreratutia gaiti, ta endamas ekanduz edo sarritan bada, domekeetan ta jai osuetan ordubetian biarra egitia, pekatu mortala dala. Domekeetan ta jai osuetan ordu ta erdijan iraguago edo ordu bijan biarra egin ezkerro, bapere entzutia daukeen maisu guztiak esaten dabee pekatu mortala dala.

Kuidado andija eskatuten dabentzitza da au, neure kristinaubak. Jai domekeetan biarrian asten zarianian, ez dozu guztiok erlojuba beti aldian eukiko denporia neurturen. Ta denporia neurtu al bazinai bere, ez dala errez zuzen jakiten, zeinbat minuto biar dirian pekatu mortala eiteko. Ez dakit, kristinaubak, nor izan leitekian ain atrebiduba, jaijeguneko biar puska bat gaiti, pekatu mortal[a] egiteko arrisku andi onetan bere buruba iminten dabena. Artu eizu, bida, neure entzula onak, gogo sendo bat, leenago edo geruago egin leijan biarrik jaijegunetan ez egiteko, ta uste dozun baño pekatu geijago erremedijauko dituzu.

III.

Ez da orraitino jaijegunetan biarra egiten dan guztian pekatu egiten. Lau gauza dagoz pekatu bagarik jai domekeetan biarra egiteko eskubidua emoten dabeenak. Lelengua, noberaren preminia. Bigarrena, projimuanen preminia. Irugarrena, agintarijen lizenzia. Laugarrena, usadijua. Noberaren preminia gaiti jai domekeetan mairako biar dan janaria pres-tau lei ta presteetan da. Soluan, basuan edo aziendaan kalte andi bat egiten jakonian, bestelan ezin badau, a erremedijetako jai domekeetan biarra egin lei. Noberaren bizitzia edo osasuna galtzeeko arrisku andija dauanian bere bai. Onako preminako gauzaak izaten dira, subagaz dauan karabija edo ikaztoja kobernetia, galtzeen dauan laboria batzeia, asi dabentzitza jornada bat egitia ta beste onako popuertzako gauzaak. Baña bere ariaz onako biarrak jai domekeetan astia, jaijegunagaz aprobetxeetako, pekatu da.

Projimuanen preminia gaiti beste ainbeste esaten da. Bada, projimuanen aziendia, osasuna, bizitzia edo kleituba gordeetako, popuertzakua bada jai domekeetan biarra egitia, egin lei pekatu bagarik. Jangoiko onak ez dau gura, ainbeste kaltegaz biarra egin bagarik egotia.

Elesako agintarijen lizenziagaz biarra egiten danian jai domekeetan, ez da pekaturik egiten. Obispo jaunak dira, jai domekeetan biarra egiteko lizenzia emon leijenak. Ta obispo jaunen ordeniagaz kura jaunak bere bai. Osteranzian, premina guztizko bat ezpadago, kura jaunak ezin emon lei jai domekeetan biarra egiteko lizenzia. Baña obispo jaunak kuriaren eskubetan isteen dabee geijenian lizenzia emoteko eskubidua. Ta kristinaubak euren kura jaunaren lizenziagaz biarra egin leije jai domekeetan konzienziako bildur bagarik. Usadijua da moduren baten legia kentzeen dabena. Ta orregaiti, aginduta egon arren jai domekeetan biarrik ez egiteko, useetan dirian biarrak egitia ez da pekatu. Usadijua daualako, jai domekeetan egiten dira biarmodu asko: Alemanijak basora eruatia, ekartia ta kobernetia; etxian dagozanentzako jaatekua soloti edo basotik ekartia egun atan biar dabeena; (bijamoneko ganadu jaatekua batzeia jai domekeetan ez da ondo, txito premina andija ez dauanian). Errorta kobernetia, olagizonak asita daukeen agoia etaratia, edo gauerdija baño puska bat leenago agoiari su emotia... Onako biarrak jai domekeetan egitia ez da pekatu, usadijua daualako. Egija esateko, ez dakit olagizonen jai gosaldeetako ta gabeetako biarra egitiak, usadijoko segurubaren indar guz-



tia daukan edo ez. Baña Bizkaiko ola guztietan edo geijenetan biarrari asi ta isten deutsen denporaan, beste edozein olagizonek bere egin lei, konzienzijako bildur bagarik. Bada, urte askotan alan egiten da, obispo ta kura jaunak dakuseela ta dakijela. Ta isten deutsee iragoten. Nik dakidanez beintzet bai.

Ara emen, kristinaubak, berba gitxitan esanda zer dan jai domekeetan biarra egitia, nos dan pekatu ta nos ez dan. Jai domekeetako biarra txaarra bada, milla bidar txaarrauak dira, neure entzula onak, egun santu oneetan egiten dirian dantzaak, piestaak, desonestidadiak, ordikeriak eta jokuak. Oneek dira, san Agustinek, san Karlos Milanguak ta beste santu ta maisu askok dinuen leez, jai ta domeeka santubak desondreetan ditubeenak, mantxeetan ditubeenak ta banidadiari, sabelari, desonestidadiari ta pekatubari konsagretan deutseezanak. Gauza onetan ze libertade andija dauen zeubek dakusu, neure entzula onak. Esan lei domeekiaren ta jai osuaren zain dagozala kristinaubak, ta endamas gaztiak, pekatu egiteko ta nasaitasun guztiari euren burubak entregeetako. Jangoikuak domeeka ta jai osuak obra onak egiten iragoteko agindu oskun leez, agindu baleusku egun oneetan geuk gura gendubana egiteko, zer dongaruago egingo ete genduban, egiten doguna bano?

Oh, gurasuak eta umiak! Bildur izan zaitez Jangoikuari konsagrauta dagozan egun oneek diabrubari konsagravetan ez dajozuzan. Baña etorriko da denporia gauza au astiruago esamineetako, dibersinoien dotrina era-kusten danian. Bisten bitartean akordau, kristinaubak, pekatu txikarraua dala domeekan nabasen soluan eitzia dantzan eitzia baño, dino san Agustinek. Eskatu dajogun Jangoikuari, grazijazko ta bendizinoezko egun oneetan eternidadeko gloria irabazteko ditxia, zein desietan dotsudan guztioi, Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.

IRUGARREN MANDAMENTUKO BIGARREN LEZINOIA

*zeñetan erakusten dan
zer dan mezia, zeintzuk dirian meziaren parterik nau-
tsijenak, nortzuk daukeen mezia entzuteko obligazi-
noia ta zelan entzun biar dan.*

Entzun zenduban, neure kristinaubak, leengo dotrinaan san Gregorijogaz, irugarren mandamentubak aginduten doskula batetitik domeeka ta jai osuetan biarrik ez egiteko ta besteti egun areetan obra onak egiteko. Jai domekeetan aginduta dagozan obra onen artian, lelen-gua da meza santuba entzutia. Elesako lelengo mandamentuban erakusten da meziari tokeetan jakon dotrina, baña pensau dot mandamentu onetan zerbaiz zeubei esatia meziaren gañian, gauza ona izango dala. Orregaiti esango dotsut dotrina onetan, aimbat gitxien luzetuta. Lelengo: Meziak zer esan gura dabentzat. Bigarrenian: Meziaren parterik nautsijenak zeintzuk dirian. Irugarrenian: Nortzuk daukeen obligazioa mezia entzuteko. Ta laugarrenian: Zelan entzun biar dan.

I.

Mezia ez da beste gauzarik, neure entzula onak, ezpada *sacerdotiak* altaraan egiten dabentzat Jesukristo geure Jaunak itxi oskun oprezimentu agirija, *zeñetan ogijaren ta ardanaren izatia* Jesukristo geure Jaunaren gorputz eta odol izatera aldaututa, areen itxuraan Jesukristo bera oprezietan jakon Aita Eternuari, kriatura guztiengandik eskubidua ta agindutia erakusteko. Meza santuban Aita Eternuari egiten jakon oprezimentuba ta Jesukristo geure Jaunak kurutzian il zanian egin ebana bardinak dira, bai izatian ta bai balijuau. Egida, Jesukristok kurutzian il zanian, padetzidu eban. Ta esaten jakon oprezimentuba odolezko *sakripizjua* edo oprezimentuba. Ta meza santuban Aita Eternuari oprezietan jakonian, ez dau padetzietan. Onezaz ostian, guztiak ekuseen moduban, Jesukristo il zan kurutzian ta orduban egin eban oprezimentuba da ikusberia, ikusten zana ta sentietan zana. Baña meza santuban Jesukristok egiten dabentzat oprezimentuba, pediagaz



sinistu arren ta alan dana zuzen jakin arren, ez dogu begijekin ikusten, Jesukristoren izenian mezia esaten dabentzazta ogijaren ta ardauden itxuria baño. Baña osterantzian, Trentoko konziliuak esaten dabentzazta leez, Jesukristo geure Jaunak kurutzian bere odolagaz eta erijotziagaz Aita Eternuari egin eutsan oprezimentuba barriñan barri egiten jakoz meza bakotxian.

Altarako mirarizko ta amodiozko oprezimentubari esaten jakoz mezia. Meziak esan gura dau *bialdutia*, dinue santo Tomasek eta san Buenabenturak. Bada, Aita Eternuak bialdutzen dosku Jesukristo bere semia, altaraan mezia esaten danian. Ta kristinaubak, meza santuba esaten danian, oprezietan deutsee ta bialdutzen deutsee Aita Eternuari Jesus bere semia ta geure Salbadoria. Meza santuban Jangoikuari egiten jakoz oprezimentuba da guztietatik andijena ta estimaubena. Jesukristo geure Jauna, zein dan Aita Eternuaren bijotze[k]o poz, atsegintzazta alegria osua, oprezietan da meza santuban bere bizitzako eta erijotzako merezimentu guztiek. Zeruko aingeru ta santuben oprezimentu guztiak bat eginda, ez leuskijue Jangoikuari ainbeste gusto ta gloria emongo, zein da meza bakotxeko oprezimentubak emoten deutsan.

Orregaiti esaten da, meza santuko orprezimentubak beragaz enzerretan ditubala beste lege ta denpora guztietako oprezimentubak. Meza santuba da Jangoikuari deutsagun zorra pageetan dabentzazta; ta oprezietan da ilak eta biziak gaiti. Da, zeruko ondasunak ekarten doskuzana, bai ari-makuak ta bai gorputzekuak. Da, Jangoikuaren asarría bigundutzen dabentzazta geri mesediak egitera presteetan dabentzazta. Da, geure arimaak garbitutzen ditubana ta tentazioiak goituteko grazia ekarten doskuna. Aingeruben miina biar litzateke, neure enzula onak, meza bakotxa zer dan ta zer baliozko dabentzazta kristinaubari aitu eraiteko. Ta eurak bere dan leez esan ezin lejlee, guztizkua ta despeida bagakua dalako.

II.

Meziak parte asko daukaz. Guztiak dira misterio andiz jantzita dagozanak. Baña bata baño bestia dira lelenguauak, nausijuauak ta debozinoe geijago eskatutzen dabeenak. Komoninoeko sakramentuban esplikauko dira astiruago, meziaren parte guztiak eta bakotxak zer esan gura dabeen. Bada, ez dago meza santuban, ez berba bat, ez azinoe bat, aparteko misteriua enzerretan ez dabenik. Ta guztiak jakitiak txito asko lagunduko leuskijue kristinaubei, mezia biar dan moduban entzuteko.

Meziaren parte nausija edo, askok dinuanet, izate guztia dago konsagrazioian, sazerdotiak ostiia ta kalizaan dauan ardaua konsagretan dabentzazta. Baña onezaz ostian, (zeubei tokeetan jatzunerako) txito parte prinzipalak dira, konsagrau baño leenago sazertotiak ostiijagaz ta kaliziazgaz egiten dabentzazta oprezimentuba; konsagrauta gero egiten dabentzazta; ostiia konsagrauba ta kalizaan dauan odol santuba erreuibetia; ta endamas *santuseti* despeidengo binajeraterañoko guztia. Meza santubaren parte oneetan denpora gitxi bat da asko, neure kristinaubak, mezia uts egiteko ta pekatu mortala egiteko. Meza guztian al baginei egon biar genduke, aingerubak leez, txito atenzinoe, debozinoe ta modu andijagaz; baña esan dan denporeetan oraindino askozaz geijago, misterio urraokuak eta altubauak barristetan dirialako orduban altara santuban. Orduban barristetan da enkarnazioeko misterio andija, Jesukristo geure Jaunaren bizitzia, apostolu santubekin egubenguren gabian jan eban aparija, Jesusen pasioa, erijotzia, entierruba ta beste kristandadian daukaguzan misteriorik prinzipalenak. Oh, zeinbat gauza andi dagozan, neure kristinaubak, meza santuban! Oh, zeinbat balijoko leuskegun atenzinoe ta debozinoe guztiazgaz mezia entzunak! Kristandade guztian ez daukagu gauza bat andijagorrik, balijotsubagorrik eta mirarizkuagorrik altarako meza santuba baño. Oh, ze itsubak eta errukarrijak dirian nekezka, derrigorrian leez meza santuba entzutera duazanak ta ainbat laburrenaren billa dabizanak! Ez da, bada, gitxiago, neure entzula onak, meza bakotxa, Jesukristo geure Jaunak Kalbarioko kurutzian bere odolagaz eta bizitzagaz Aita Eternuari egin eutsan *sakripizjua* edo oprezimentuba baño.

III.

Batiatuta dagozan kristinau guztiak daukeee obligazioa meza osua entzuteko, errazoiaren usura eldu ezkerro. Errazoiaren usaba nos eltzetan dan ez daki inok bere aintzazten. Gauza onetan esaten dana da, zazpi urte-rra ezkeroko umiak bialdu biar ditubela gurasuak elesara meza santuba entzutera. Ta gurasuak edo ugazabaak, zazpi urtetik aurrera euren erruz seme alabeik eta otseginai mezia entzutia galaazotzen deutsen bakotxian, pekatu egiten dabentzazta. Bada, san Antoninok dinuan leez, noberaren erruz jai domekeetan meza osua entzuten ez dabentzazta, egiten dau pekatu mortala. Ta noberak ez entzutia ta entzun biar dabentzazta eraoztia edo entzuten ez istia, bardin da pekatu egiteko.



Jai domeeketan pekatu mortalaren beian meza osua entzuteko Elexa Ama santiak agindu arren, meziaren parte txiki baten edo gauza gitxi baten paltetia, ez da pekatu mortala; baña bere erruz bada, izango da pekatu beniala. Parte txikizat edo gauza gitxizat erakusten dabee Elexako maisubak, mezia asten daneti ta epistolia asi artekua, edo kalizia estaldutten daneti amaitu artekua. Nai asieran nai despeidan esan dan partera paltau arren noberaren erruz, ez da pekatu mortala egiten beniala baño, gauza gitxija dalako. Liburuba jirau arterao ta ebanjelijua esan arterao bere erruz palteetan dabenak, egiten dau pekatu mortala dotrinarik zuzenenian, meziaren parte andijan bere erruz paltetan dabelako. Mezia uts egiteko arriskuban geratutenean bere paltaz, egiten dau pekatu mortala, gero meza osua entzun arren. Bada, gauza bat da meza osua entzutia ta beste bat noberaren gustoz uts egiteko pelleburuan jartia. Au beti da pekatu mortala. Mezatara juanda erdiz erdi mezia topeetan dabenak, beste meza osorik entzun ezin badau, duka obligazinoia pekatu mortalaren beian meza erdija a entzuteko. Bada, zor guztija pagau ezin dabenak, al daijana pagau biar dau.

Esan da, errazoiaren usura eldu dirian guztiak entzun biar dabeela pekatu mortalaren beian jai domekeetan meza osua. Baña orraitino bagoz gauza batzuk, mezia entzute obligazinoia kentzeen dabeenak. Bada, Elexa Ama santiak ez dau gura bizitzako, osasuneko, kleituko ta aziendako gauza galduko arriskuba daukeenian, kristinaubak meza entzutera obligeetia. Orregaiti ez dau kee meza entzuteko obligazinoerik: Lelengo, oian gaisorik dagozanak. Bigarrenian, besterik ezda, gaisuai kuidado egin biar deutseenak. Irugarrenian, oian gaisorik egon ez arren bere, osasunaren kalte bagarik elexara juan ezin dirianak, endamas zaarrak depora txaarra ta bide luzia elexarako daukeenak. Laugarrenian, sein txikarragaz dagozanak, ezzpadaukee seina nori itxi edo eureekin elexara eruan ezin badabee. Baña oba izango da etxian seinari kuidado egitia, elexara eruanda, aren negarragaz bestiak mezia entzuten eraotzia baño. Bostgarrenian, arimako, aziendako edo gorputzeko edozein bere pelleburu andi erremedijau biar dabeenian. Mezia entzunda erremedijau ezin badabee, geratu leitekez meza bagarik. Ta onako okasinoietan meza bagarik geratutenean dirianak, dino san Antoninok, orazinoia edo beste mezako obra onari jaokan gauzaren bat egin biar dabeela etxian.

Usadijua leez dago, seina eginda dagozan emakumiak señagaz elexara juateko prestau artian, meza entzun bagarik egotia. Ta batzuk uste dabee, señagaz elexan sartu bagarik meza entzutia pekatu dala. Ez dago onako gauzarik, kristinaubak. Señagaz elexan sartu baño leenago meza

entzun lei seña eginda dauen emakumiak, ta oba da al daijala entzutia, entzun bagarik egotia baño. Jesukristoren legian debozinoerik oneena da al daijala meza santuba entzutia. Ta gero eria daukanian edo gauzaak pres-tau daizanian, ainbat lasterren bere sableko prutuba elexara eruanda, Jangoikuari oprezieta ta grazijk emotia, txito gauza ona da. Baña seña-gaz elexan sartzeia debozinoezkua da, ez obligazinoezkua. Nai dabena sartu leiteke ta nai ez dabenak itxi leijo. Ta sartzeen bada bere, ez da popuertzakua bere parrokijako elexan sartzeia, ezzpada nai daben elexan, zein ermitaan, zein komentuban, zein parrokijan ta nai daben sazerdotia-gaz, zein kuriagaz, zein kapillaubagaz, zein erreljiosuagaz. Esan dot au guztiau, dianok jakin daizun, gauza onetan nai dabena egiteko libertadia emoten deutsala Elexiak seña egin daben emakumiari. Esan ezkerro, bada, nortzuk eta nos daukeen meza osua entzuteko obligazinoia, jakin biar dau kristinaubak zelan entzun biar dabeen meza santuba.

IV.

Ez dozu pensau biar, neure entzula onak, meza santuba entzuteko asko dala elesen egotia mezia esaten dan artian. Elexan egon biar da edo meza entzuten dagozanekin bat eginda egon biar da; baña egon biar da atenzinoiagaz, debozinoiagaz ta erreberenziagaz. Atenzinoiagaz entzuten da, meza santurban gogoa iminita daukanian. Debozinoiagaz entzuten da edo Jesukristo geure Jaunaren bizitzako edo erijotzako pausuren bategaz, edo geure pekatubeekin edo geure erijotziagaz edo geure juizijuagaz, edo geure arimako edo gorputzeko nezesidades bategaz akordauta, Jangoikuari miserikordija eskatutenean deutsagunian edo errazuren batzuk debozinoez egiten ditugunian, dino san Ziprianok. Ta erreberenziagaz entzuten da mezia, gorputzeko egonera ona ta elexiari joakana daukanian.

Onako atenzinoiaren paltaz, elexan egon arren, ez dabee mezia entzuten ta pekatu mortala egiten dabee: 1º Mezatako denporan berbee-tan ta barreka dagozanak. 2º Eleixan sartzen dirianai, urtetan dabenai ta beste barruban dauen jentiari begira banaan banaan dagozanak. Au jazo-ten da Bizkaiko elexa askotan. Ta onetarako, elesen lekuba nasai dauke-la, juaten dira korura edo korupeko eskillareetara mezia entzutera edo, obeto esateko, elexan dauen jentiari ta meziari burla egitera. Kura jaunak au eraotzi leije; ta ez leuskijue mesede txikija egingo euren kargura dago-zan arimai. Eskillareetan, ate osteetan ta koru baztarretan bere ariaz dagozaneeti, amarreti bik mezia entzuten dabeela biar dan moduban, ez



neuke beinguan sinistuko. 3º Arako ate onduan geratuta, sazerdotia alta-rara artian elexan sartu gura ez dabeenak ta gero priisaka ta arnasa oska duazanak ia mezia epistolara elduban, guztiak belaunbiko jarri orduko, pensau beije mezia entzuten dabeen edo ez. Bada, nik ez dakit. Trentoko konziliuak esaten dau, meza entzuteko dagozanak, euren lekubeetan debozinoe eta modestijaz geratuta dagozala esan artian, mezarik ez asteko. Onako presteeriagaz ta debozinoigaz agindutenean dau Elexa Ama santiak meza osua entzuteko. Ta bakizu, neure kristinaubak, gauza onetan palta andija dauana. Erremedijau bedi, bada, bakotxa bere aldeti ta erre-medijauko ditu pekatu asko. Alan gura izan daijala Jangoikuak Aitiaren, Semiaaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.

IRUGARREN MANDAMENTUKO IRUGARREN LEZINOIA,

zeñetan erakusten dan
*domeeka ta jai osuetan asko dan meza osoa entzutia,
biarrik ez egitia ta pekaturik ez egitia, egun santu
oneek Jangoikuak agindutenean dabent moduban gordeetako.*

Ikusi ezkerro Jangoikuak eraotzi doskula bateti domekeetan eta jai osuetan biarra egitia, ta bestetik Elexa Ama santiak agindutenean doskuna (zein dan meza oso bat entzutia) ordu erdi baten kunpliduta dauala, pensau lei, neure entzula onak, ia zer egin leijan edo zer egin biar dabent kristinaubak, mezia entzunda enparauban egun oneetan. Desiau lei jakitia, ia meza oso bat entzun ezkerro libre dagozan kristinaubak domeeka ta jai osuetan beste obra onik egin bagarik, gura dabeen gauzeetan denporia iragoteko. Maisu askok esaminau dabeen gauzia da au, neure kristinaubak, ta inok uste dabent baño geijago importa doskuna. Mundutarrak uste dabent, domeeka ta jai osuetan meza bat esaten dan artian elexan egon ezkerro, beste enparauba olgeetako dala. Baña onetarako lelengo esan biar da, zer dirian domeeka eta jai osuak ta zetarako itxi oskuzan Jangoikuak. Onen ondorik erreztzo ezautuko dozu, zer egin biar dogun egun oneetan. Egon zaitez, bada, antenzinoigaz.

I.

Errazoiak eta naturaleziak naita nai ez dogula bere erakusten doskubee, neure entzula onak, gauza on guztiak Jangoikuak emoten doskuzana; begaz, Jangoikuari grazijk emon biar deutsaguz, egiten doskuzan mese-diak gaiti; begaz, popuertza biar dogu denporia gitxiago edo geijago geure Jangoiko ona alabeetako, serbietako ta zor deutsaguzan grazijk emoteko. Au inok bere ez dau ukatutenean. Adan, Noe, Abraan ta beste patriarka santubak naturaleziaren legian ez eukeen klaru señallautako denporarik Jangoikuari zor eutseezan grazijaak emoteko ta aparteko obra onak egiteko, ezpada eureen debozinoiak eta espiritubak esaten eutseen moduban ta denporaan serbidutenean ebeen Jangoikua, beste munduko zeregin guztiak



itxita. Baña Jangoikuak judegubentzako legia Moisi emon eutsanian Sinaiko mendijan, agindu eban irugarren lekuban zapatubak santipiketako edo zapatu egunak santidadian iragoteko. Astian sei egun itxi zituban biarra egiteko ta zazpigarrrena senallau eban Jangoikuak beretzako. Lege atan bertan Jangoikuak agindu eutseen judegubai, berak mesederik andijenak egin eutseezan egunak gordeetako urte barruban, zapatubak leez. Ya denpora onetati senallauta eukeen judegubak aparteko tandia, Jangoikuari graziak emoteko ta obra onak egiteko. Ta oneek ziran zapatu egunak eta urte barruko jaijak. Zapatubak eta urte barruko jaijak txito kuidado andijagaz gordeetan zitubeela bizi izan zian judegubak milla ta bosteun urte ta geijauan, konturik zuzeneenian, Jesukristo geure Jaunak zerubetara igonda Pazkua maiatzeko apostolubai Espiritu Santuba bialdu artian. Apostolubak, judegubekin eztan bere bat ez egitarren, mudau ebeen zapatuko obligazinoe guztia domeekara. Ta onezaz ostian agindu ebeen, Jangoikuak mesederik andijenak egin doskuzan egunak urtian urtian jaitzat gordeetako. Apostoluben ondorik Elexa Ama santiak bere, Espiritu Santubak erakutsita, agindu dau aparteko egun batzuk jai gordeetako, edo jai oso edo jai erdi, zeubek esaten deutseezun leez. Au da, neure kristinaubak, domeeka ta urte barruko jaijen asieria. Urte barruko jaijak, zein osuak eta zein erdijkak, gitxitu edo geitu leiz Elexa Ama santiak; baña domeekak ez ditu ez gitxitu ta ez geitu. Astian egun bat Jangoikuari santipiketia, Elexa Ama santiak kendu ezin leijan obligazinoia da. Geugaz datorren zorra da. Jangoikuak berak agindu doskuna da. Ta askok dinuenez, mundubagaz beragaz asi zan obligazinoia da.

Zapatuko obligazinoiak domeekara aldatuteko apostolu santubak eukeezan errazoiak andijak eta asko dira, neure kristinaubak. Ta txito arimako probetxu andijagaz edozeinek egun santu areetan, bai elexaan ta bai etxian pensau leizanak. Santipikau ebeen, bada, apostolubak zapatubaren lekuban domeekia kristinaubentzako. Lelengo, egun guztietati lelengua *domeekia* dalako. Bigarrenian, munduko gauza guztiai *domeekan* asieria Jangoikuak emon eutseelako. Irugarrenian, aingerubak *domeekan* krijudu zitubalako. Laugarrenian, mana esaten jakon janari gozua *domeekan* Jangoikuak judegubai zeruti bialdu eutseelako. Bostgarrenian, Jesukristo geure salbadore maitia *domeekan* jaijo zalako. Seigarrenian, Jesus adoretara Belengo portalera etorri zian iru Errege edo Maguai *domeekan* Izarra agertu jakuelako. Zazpigarrerenian, Jesukristo geure Jaunak bost ogigaz eta arrain bigaz bost milla gizon mendi soilian *domeekan* mantenidu zitubalako. Zortzigarrenian, san Juan Batistak Jesus *domeekan* batiatu ebalako. Bereratzigarrenian, Jesus dibinua *domeekan* illen arteti biztu zalako.

Amargarrenian, Espiritu Santuba apostolubai *domeekan* zeruti etorri jakuelako. Dinue san Agustinek eta seigarren konzilijo osuak. Oh, ze kanpo andija dan au, neure kristinaubak, jai domeeketan penseetako ta Jangoikua alabeetako! Baña esan ezkero zer dirian domeekak eta jaijak, esaminau daigun ia zetarako dirian.

II.

Jangoikuak ez dau alperrik ezer bere egiten. Gauza guztiak ordeneetan ditu zerbaiterako. Bada, eraotzi ezkero Jangoikuak guri ain lege gogorragaz domeeketan eta jai osuetan biarra egitia, konpesau biar dogu erremediyo bagarik, zetarako bit eraotzi doskula. Zetarako izan leiteke, bida, Jangoikuak guri agindutia, domeeka ta jai osuetan gau erditu gauerdira biaurrek ez egiteko? Izango ete da domeeka ta jaijegunetan alperrerrijan egoteko? Ez. Alperrerrijari gorroto andija deutsa Jangoikuak. Ez astian egun oso bat, eze geure bizitza guztian ordu bete bere ez dosku Jangoikuak emoten alperrerrijan egoteko. Alperrerrijak, dino Espiritu Santubak, malezia asko erakusten dabela; ta malezia asko erakusten dabent gauzia, ezin agindu euskegun Jangoikuak domeeka guztietan egiteko. Eraotzi ete dosku, bida, jai domeeketan biarra egitia, egun areek euki daiguzan libre jokorako, tabernarako, dantzarako, piestarako, kunplimentuzko bisitetarako, pasiorako eta jan edaneetarako? Kristinaurik geijenak egiten dabent begiratu ezkero, esan lei baietz. Baña ebanjelijo santubari, Eskritura Sagradubari ta Elexa Ama santiaren dotriinari begiratu ezkero, *blasphemija* deitxon pekatuba da, onako gauzeturako denporia euki daigun, Jangoikuak jai domeeketan biarra egitia eraotzi doskula esatia. Au sinistu gura ez dabent, ez daukaz irakurri baño san Jeronimo bat, san Gregorio bat, santo Tomas bat, san Antonino bat eta Toledo, Turongo, Biturizako, Milango ta beste leu askotako konziliuak, zeintzuk erakusten doskuben Jangoikuaren legia ta Elexa Ama santiaren espirituba. Areetan ikusiko dau kristinaubak, domeekak eta jai osuak ez diriala ez alperrerrijarako, ez jan edanetarako, ez dantza, sarau ta komedijetarako ta ez banideetarako; ta ikusiko dau baten baño geijagotan, eskomuninoe bategaz eraotzita dauala onako gauzak domeeka ta jai osuetan egitia.

Zetarako aginduten dosku, bida, Jangoikuak domeeka ta jai osuetan biarrik ez egiteko? Kristinaubak munduko biarrai ta zereginai itxita, zeruko gauzaak ikasi daijezan, arimako gauzaak tratau daijezan, Jangoikua alabau daijen ta salbazinoia irabazi daijen erreztuago, senallau doskuz



Jangoikuak domeekak eta jaijak. *Santipikan eban Jangoikuak zapatuba. Santipikanko dozu zapatuba*, dino Espiritu Santubak. Esango baleu leez Jangoikuak irugarren mandamentuban: Zapatuko eguna neure eguna da; egun santuba da, neuretzako konsagrautako eguna da; neuri grazijak emoteko eguna da; neu serbietako eguna da; biarra egitiari itxi ta obra onak egiten iragoteko eguna da. Ez ordu erdian, ez ordubetian, ez goxetijan bakarrik; ezpada goxeti arratsera da zapatuba (oan domeekia) obra onak egiteko eguna. Au dino Jangoikuak, neure kritinaubak, ta onetarako dira domeekak eta jai osuak. Domeekia egun bedeinkatuba, egun santuba, egun konsagrauba ta beste egunetik apartautako eguna da, dino Kornelio a Lapide jakinsubak. Exenplu bategaz aituko dozu au obetuago.

Urre gorrizko plater bat, kollara bat edo baso bat edozeinek eskubetan erabili lei, nun nai itxi lei ta edozein bere gauza jabiak agaz egin lei; baña plater, kollara edo baso urregorrizko agaz kaliza bat eginda, bedeinkatu edo konsagrauko balitz, kaliza a Jangoikuak serbietako ta altarako biar dan gauzeetan baño erabili ezin lei, pekatu egin bagarik. Ara, bida, exenplu onegaz paska bat aituten emonda zer dirian domeekak eta jai osuak eta beste egunak. Astegunetan, pekaturik egiten ez dabentzat, kristinaubak gura dabena egin lei: Edo egon, edo ibili, edo ganiak emoten deutsana, urre jaubiak urriagaz egin lejian leez; baña domeeketan eta jai osuetan, pekaturik egin ez arren, ezin lei nai dabena, kaliza jaubiak kaliagiak ezin lejian leez; ezpada kaliza bedeinkatuba altarako ta gauza santubeetarako dan leez, domeeka ta jai osuak dira gauza santubeetarako, obra onak egiteko ta, goxerik arratsera, domeeka guztia ta jai oso guztia da onetarako.

Au da, neure kristinaubak, Elexako santu guztiak Erromako katezismugaz erakusten dabeen dotrinia. Jangoikuari egunian egunian egiten doskuzan mesediak gaiti astiro grazijak emoteko; astegunetan biarrian priisaka diardugula egiten ditugun palteen parkazinoia eskatuteko; konpisoineko ta komoninoeko sakramentubak errezibietako, sermoia entzuteko, altaraak bisiteetako, liburu onak irakurteko, dotrinia ikasteko, orazinoe egiteko, geisuak eta presuak bisiteetako, bespereetara ta errosarijora elextara juateko, eternidadeko gauzak: erijotzia, juiztua, zeruba, inpernuba, arimia, grazija, pekatuba, Jesukristo geure Jaunaren misteriuak... penseetako, ameetako ta alabeetako dira domeekak eta jai osuak. Mairako popuertza biar dana prestauta, beste denpora guztia Jangoikuak serbietan iragoteko, dino Theodulfo Aurelianok.

Elexa Ama santiak ikusi ebanian jai domeekak santipiketako kristinaubak eukeen obligazinoe estuba erreztuago, pozaagorik eta arimako

probetxu ugarijagaz gorde eijezan jai domeekak, agindu eban meza osua entzuteko, leen esan dan leez. Baña sekula Elexiak meza entzuteko agindu ezpaleu bere, beti eguna obligazinoia domeeka santubak obra onak egiten iragoteko. Mezarik ezpalego bere, astian egun bat goixerik arrats dago senallauta obra onak egiteko.

III.

Deitxat bada, neure kristinaubak, ya ez dala gatz ezaututen, zer egin biar dogun domeeka ta jai osuetan. Deitxat ya erremedijo bagarik konpensau biar dabeela kristinaubak esan dan dotrinia sinistu ezkerro, meza bat arrastaka entzunagaz beste obra onik egin bagarik, ez dogula kunpliduten domeeka ta jai osuekin, Jangoikuak agindutzen doskun moduan. Egun guztija da obra onak egiteko ta egun guztiko biarra zor dabentzat ez dau pageetan ordu erdian edo ordu betian biarra eginagaz. Domeeka ta jai osuak esan dirian obra onak edo areetati batzuk, bakotxak al daizanak, egiten irago biar dira goxeti arratsera. Jangoikuak agindutako zorra da au. Elexa Ama santiak bere kendu ezin lejian zorra, da au. Domeeketakua beintzet ezin kendu lei. Zelan, bida, pagauko da egun guztiko obra oneen zorra, ordu erdi baten meza bat entzunda, beste obra onik egiten ezpada? Beste jai domeeketako denporia iragoten bida, Jangoikuagaz edo Jangoikuari jaokazan gauzeekin geijago akordau bagarik?

Oh, neure kristinaubak! Ez da jakiturira andirik biar jai domeekak Jangoikuak agindutzen dabentzat gordeetako, meza bat debozinoez entzutia asko ez dana ezaututeko. Zer edo zer obra oneen batzuk geijago egin biar dira jai domeeketan, meza osua debozinoez entzun arren; ta ezpabere ez dira jaijak eta domeekak ondo gordeetan, dinue Elexako maisu guztiak. Ta meza bategaz kontentetia edo meza bat debozinoiagaz entzunda, beste obra onik ez egitia bida ain gauza ezaina, Elexako santubak eta konzilijuak ainbeste diadarregaz kondeneetan dabeena, zer izango da, neure kristinaubak, domeekako ta jai santubetako egunak jokuetan, desaprietan, jan edan laarregietan, komedijetan, saraubetan, gizon ta emakumen naasteko dantzeetan edo, berba baten guztia esateko, goxetiaratserako edo gau erdirainoko desonestadetan ta pekatubetan iragoitia? Ez da au, Jangoikuari konsagrautako egun santubak, egun bedeinkatubak, mundubari, banidadiari, desonestadadiari, pekatubari ta diabrubari konsagretia? Ez da au, Jesukristoren altarako dauan kaliza santuban txakur bat jaaten emotia? Gauza santubak alemanija loiei boteetia?



Jangoikuaren egun santubak nasaitasunian, libertadian, aragijaren gustuetan, onestidadiaren kaltian ta jentilen usu madarikatuban iragotia? Oh, neure kristinaubak! Sartu bakotxak bere eskuba kolkuau ta pensau ia ze obra on egiten dozun jai domeeketan. Menturaz ez dotsu gitxiago balijo-ko eternidadeko salbazinoia baño. Au eskatu biar deutsagu Jangoikuari, sekula kansau bagarik, Jesukristo geure Jaunaren merezimentubak gaiti, Ama Birjina Santissimia bitarteko iminita. Amen.

[LAUGARREN MANDAMENTUBA]



LAUGARREN MANDAMENTUBAREN LELENGO LEZINOIA,

zenetan erakusten dan
*Aita Santu Erromakuari, obispo ta kura jaunei, erre-
giari ta juezai zor deutseguna.*

Laugarren mandamentu santuban aginduten dosku, neure kristinabak, Jangoikuak, geure gurasuak ondreetako. Lelengo iru mandamentubetan erakutsi dosku Jangoikuak, beraren anditasunari zor deutsagun pedia, esperantzia ta amodijua; bijotzagaz, arimigaz ta gorputzeko sentitu edo zenzun guztielk emon biar deutsagun ondoesana, jasoeria, ondria ta erreberenzija. Ta oan laugarren lekuben asten da geure Jangoiko ona, projimua jaokazan gauzeetan zelan portau biar dogun erakusten. Projimo guztiel artian lelengo lekuba emoten deutsee gurasuai. Orregaiti aginduten dosku mandamentu onetan aita ta ama ondreetako. Aitaren ta amaren izenagaz, dino Poujet jakitunak, izentetan ditubala Jangoikuak mandamentu onetan inori aginduteko eskubidua ta obligazioia dauken guztiak, zeintzuk dirian Aita Santu Erromakua, obispo, kura ta sazerdote jaunak, gurasuak, erregiak, juezak, maisubak eta edadian edo estaduban nauisjago dirianak. Onei guztiel zor deutseegun erreberenzija ta ondria ta oneek guztiok euren eskupian edo aginduban dagozanei zor deutseena enzerreeta da laugarren mandamentuban. Elexia ta erreñuba koberneetan ditubee begiratu biar deutseegu, guraso batzubei leez; ta eurak bere kobernau biar gaitubei, euren seme alabak bagi na leez. Egija esateko, Aita Santu Erromakua geure gurasua da. Obispo ta sazerdote jaunak geure gurasuak dira. Errege ta juezak geure gurasuak dira. Ugazabak eta maisubak geure gurasuak dira. Ta ara emen, neure entzula onak, zenbat obligazioe andi iminten dituban, bai batzubentzako ta bai bestentzako laugarren mandamentubak, aita ta ama ondreetako aginduten dabenian.

Onetarako aituten emongo dotsut dotrina onetan, laugarren mandamentubagaz kunplietako zelan portau biar dogu: 1º Aita Santu Erromakuagaz. 2º Obispo jaunagaz. 3º Kura ta sazerdote jauneekin. 4º Geure errege jaunagaz. Ta 5º geure juezeekin. Geroko doctrineetan esango da, gurasuai ta umiai, ugazabai ta otsegina mandamentu onetan tokeetan jakuena.

I.

Aita Santu Erromakua da, neure entzula onak, Jesukristo geure Jaunaren ordekua luurrian, Elexa guztiaren buruba, kristandade guztiaren agintarija, pedeko ta salbazinoeko gauzeetan kardenal, patriarka, obispo, errege, agintari ta beste kristinai guztiak obeidu biar deutseena, Jesukristori berari leez. Bere eskubetan itxi ditu Jesukristok zeruko giltzak ta giltz mirarizko areen kobernuba. Beti peliada baten bizi biar dau ta bizi da Aita Santu Erromakua, inpernuko arerijuak, ereje gaistuak ta pekatubaren oitura txaarrak pentzielako eta kristinai guztiak ta bakotxari dotrina egijazkua ta zerurako bide zuzenak erakusteko. Ta kristinai guztien obligazioia da, Aita Santu Erromakuari kontu andi bategaz obeidutia; bera aitatuten dogunian erreberenzija andijagaz berba egitia; beraren bizitzia, osasuna, aziertuba, pedia ta salbazinoia gaiti Jangoikuari sarri ta gogoz erregututia.

II.

Obispo Jaunak gaiti bere beste ainbeste egin biar dogu; ta endamas geure obispo jauna gaiti. Bada, obispo Jaunak dira apostolu santuben ordekuak luurrian. Eurak, Aita Santu Erromakuak baño urragoti koberneetan ditubee Elexaak eta elexa gizonak. Eurak ordenau biar ditubee sazerdotiak. Eurak par tidu biar ditubee sakramento santubak. Eurak examinau, ezautu ta probau biar ditubee sazerdoteen, konpesoreen, predikadoreen ta arima gordezallen jakutrija, birtutiak eta bizi moduba, sakramento santubak eta dotrina ona noren kontura isten daben jakiteko. Eurak dira geure gurasuak, ardura andijk eta kargu andijk daukeezanak; ta orregaiti amau biar ditugu, estimau biar ditugu ta jaso biar ditugu geure obispo jaunak. Ondo berba egin biar dogu beti eurak gaiti. Erregutu biar deutsagu Jangoikuari euren bizitzia, osasuna ta Elexako gauzeen aziertu ona gaiti ta prest egon biar dogu euren agindubai ziur obeiduteko.



III.

Kura jaunak eta sazerdotiak dira, oraindino Aita Santu Errromakuak eta obispo jaunak baño bere urraogotik geure arimak zaintutentitubeenak. Salbazinoeko bideetan estropezau bagarik juan gaitezan, zuzenduten gaitueenak. Jangoikuaren berbia erakusten doskubeenak. Sakramentubeen grazija zabaldutentoskubeenak. Kura jaunak eta sazerdotiak dira geure argijak, geure erakuslaak, geure bitartekuak, geure arimen ispillacabak, geure konzienziyen jaubiak, geure grazijaren auribideginkak, geure arerijuen bildurgarrijak, geure pelleburuben zelatarijak, geure aingeru gorputzezkuak edo, berba baten esateko, sazerdotiaren ezpanak eta aua dira, Malakias propeta santubak dinuan leez, zeruko iturribizijaren grazijak eta bendizinoiak geure arimeetara iragoteko kainuba.

Sazerdotiak imini doskuz Jangoikuak bere ordez, geure arimei kuidado egiteko. Eurak emon biako dabee geure arimen kontuba ta errazoa. Eurei entzuten deutseenak, Jangoikuari berari entzuten deutsa; ta eurak desprezietan ditubanak, Jangoikua bera desprezietan dau. Sazerdotiaren estudijetia, errebetzia, meza esatia, kanteetia, konpesetia, prediketia, orazinoe egitia, illten lagundutia, konseju onak emotia, guztija da geure probetxurako.

Orregaiti zor deutsegu, neure entzula onak, sazerdote guztiai, zein abitudunai zein manteodunai erreberenzija, errespetua, lotsa ona ta berbeeta ona, bai euren aurrian ta bai agiri ez dirian lekuban aotan artzen badira. Zor deutsegu borondate ona, amodjua ta eurak gaiti Jangoikuari orazinoe egitia, dauken estadu altubagaz eta pisutsubagaz onto kunplidu daijen. Zor deutsegu ta endamas erriko kura jaunai ta beste sazerdotiak, esan danagaz gañera, obedenzia. Egin biar dogu geure arimiaren onerako ta bakerako agindutentoskubea. Askotan Sazerdote jakitun baten konsejubagaz ta modu onagaz, eskribaurik eskribau ta letaurik letrau bengantzia ta gorrotua darijuela ibiliko litzaatekezan auzi askori samia ebaten jakue guztien esker onagaz. Zor deutsegu kura jaunai ta sazerdotiak, mairako ta soinerako biar dabeena, euren estadubak eskatzen dabent moduban. Eurak emoten doskubetar arimako janarija ta zor jakue gorputzak. Onetarako pagetan dira amarrenak, primiziaak ta beste elexako useetan dirian gauzak. Berba gitxitan erakusten dosku ene ama santa Teresak elexa gizon guztiai zor deutsegun, dinuanian: Beti ondo esan religioso, sazerdote ta ermitañuak gaiti. Esango baleu leez Santa andijk:

Obispo, kura, praile, abade ta beste Elexako serbizalle guztiai beti ondo berba egin biar dozu. Bada, beti guztiai gaiti ondo esaten badogu, beekijken santa Teresak beste enparaubagaz erreztokunpliduko doguna.

Ta ez dozu pensau biar, neure kristinaubak, sazerdoten exenplu txaarrak emoten dotsula libertadia ta eskubidia areek gaiti dongaro esateko ta errespeto txarragaz trateetako. Munduban gagozan artian, onen ta dongen artian bizi gara, ta nai ta nai ez dogula bere bizi biako dogu. Bakigu koroe bat buruban edegijak inor santu egiten ez dabena. Bakigu abitu bat edo mantio bat soinian jantzi arren, pekatarria izan leitekiana ta exenplu arin ona kristinaubei emon leijuena. Baña danik pekataririk andijena bada bere, beti izango da sazerdotia, beti izango da elexa gizona; ta au da asko guk erreberenzijagaz ta errespetuagaz beti begiratuteko.

Judas gaistua zan, pekatarria zan, Jesusen odol dibinua judegubai saldua eukana zan; baña Jesusek beste edozein bere apostolu baisen errespeto ta modu onagaz tratau eban, apari santuban oñak garbitu eutsazanian. Gu dongak izan arren, etxazu zubei tokeetan gu juzketia ta gu gaiti dongaro esatia; ezpada gure pekatubai ta exenplu txaarrari alde batera itxita, guk Espiritu Santubaren lekuti, pulpitiotia konpesonarijoti esaten doguna egitia. Au da Jesukristo geure Jaunak kristina guztiai agindutentoskubea sazerdoteen dotriñaren ta errespetuaren gañian. Neure legia ta dotriñia erakusteko lekuban jarriko dira sazerdotiak, dino Jesukristok. Areek esaten dotsuben guztia eizu; baña aren obrak onak ez badira, ez eizu egin eurak eiten dabeena. Ara emen, neure kristinaubak, sazerdote jaunek, dongak izanda bere, zor deutsegun obedientzia ta errespetua, Jesukristo geure Jaunak klaru esanda. Gauza jakina da edozein bere murmurazinoe, gaiski esate, lotsa txaar, burla edo azinoe gaisto sazerdotiaren kontra, beti dala pekatu andijk[aj]ua. Ta konpesinoian esan biar da, esan eban edo egin eban gauza txaarra sazerdotiaren kontra zala, inor izentau bagarik.

IV.

Esan dirian elexa gizonak dagozan leez Jangoikuak iminita pedeko dotriñia zaintuteko ta erakusteko, sakramentu santubak partiduteko ta kristinauben arimako gauzei begiratuteko, alan dago errege jauna, erreinu guztiai buruba, Jangoikuaren izenian gure bizimodubak koberneetako. Erreñu batek zeinbat arerijo, persekuzinoe ta gatz daukan esaten ez da errez, neure kristinaubak. Gerrak, pestiak, laborerik ezak, lapurretaak,



auzijak, bide bagako erijotzak ta alper askoren naija egin ezinak, gau ta egun sosigu bagarik darabillez errege jauna ta berari lagundu biar deuteenak. Esan lei ez dauala opizijo bat kuidado geijago, ardura geijago, zeregin geijago ta arimako ta gorputzeko arrisku geijago daukanik errege jaunarena baño. Ta guztia geure bakia, kleituba, aziendia, osasuna ta biziizia gordeetako.

Orregaiti geure obligazinoia da errege jauna erreberenzija andijagaz tratetia; aleginagaz zaintutia; bere agindubak egitia; ta beraren osasuna, arimako grazija, portune ona ta erreñuko ditxia gaiti Jangoikuari gogoz ta sarri erregututia. Au da gure guztiun obligazinoia. Baruk propeta santubak Isrraeltarrei esaten beutseen, Nabukodonosor Babilonijako erregia gaiti Jangoikuari erregututeko; san Pedro apostolubak esaten badau, errege dongai ta pede bagakuai bere obeiduteko, errazoe andija da geure errege ona, justuba, *katolikua* ta aita bigun baten erraijak daukazana gaiti orazinoegitia ta aren esanei obeidutia. Santa Teresa de Jesus, beste gauza on guztielan leez, onetan bere artu ginai geure erakuslazat. Aparteko orazinoia egiten eban Santiak errege jaunak gaiti. Ta desietan eban berari Jangoikuak egiten eutsazan mesede grazija utsezkuak, berari kenduta, erregei egitia. Oh, ze karidade andija!

V.

Errege jaunen lekuben dagoz juezak. Oneek dira errijetako burubak, pamelien artian bakia ta uminoia imini biar dabeenak. Errijetako eskan-dalubak, okasinoiak, gabeetak ibiltiak, ordikeriak, lapurretek, maldezi-noiak ta beste agiriko pekatubak eraotzi biar ditubeenak juezak dira. Ordena onagaz ta modu onagaz ezin badabee, kastigaubagaz zaintu biar dabee juezak Jangoikuaren legia. Ez daroie alperriak gerrijan ezpatia, dino san Pablop, ezpada Jangoikuak emonda daukee juezak eskubidia, gaiski egiten dabena kastigetako. Eskandaluben edo agirijan egiten dirian peka-tuben kontuba eurak emon biako deutsee Jangoikuari, erremedijetan ezpaditubee. Egija esateko, ezin euki lei erri batet gauza dongagorik juez epel bat, makal bat, edo juztija parkatutuen dabent bat baño. Kura jaunak eta predikadoriak diadar egin leije pulpitoti, konpesoriak zerbaite esan leije konpesonarijan; baña gurasuak etxian ta juezak errijan parkatutuen badabeen nasaitasun ta libertade guztia, zorigestuan askotan jazoten dan leez, alperriak da kanseetia ez da sekula inor erremedijauko. Zor deutsegu bai juezai errespetua, erreberenzija, ondo esatia, ta euren agindubak egitia. Alan gura izan daijala Jangoikuak. Amen.

LAUGARREN MANDAMENTUKO BIGARREN LEZINOIA

*zeinetan erakusten dan
zeintzuk dirian, mandamentu onen kontra gurasuak,
asko aintzat artu bagarik, egin oi dituben pekatubak.*

Laugarren mandamentubak obligazinoerik estubena ta andijena iminten deutsee, neure entzula onak, gurasuak ta umiai, bakotxari bere moduban. Gurasuak daukez txito obligazinoe andijk euren seme alabentzako; ta seme alabak gurasuentzako. Gurasuen kontura itxi dau Jangoikuak seme alaben aziera ona; ta seme alaben kontura gurasuari zor jakon amodijua, lotsia, errespetua ta obedenzija. Ta ara emen, neure kristinaubak, doctrina onetako ta urengoko salla. Gurasuak zer egin biar dabent seme alabeekin sarritan entzun deustazun gauzia da. Oan esango dotsut, bada, bakarrik *ze sarritan pekatu egiten dabent gurasuak laugarren mandamentubaren kontra, asko aintzat artutenez dituben baña artu biar dituben gaueetan*. Egon zaitez, kristinaubak, atenzinoe guztiagaz; ba, ez da au doctrina guztiuen artien gitxien balijo dotsuna.

Lelengo. Pekatu mortala egiten dabee gurasuak, seme alabak azteko nekia ta trabajuba gaiti seňik ez izatia desietan dabeenian eta atarako zerbaite egiten dabeenian.

Bigarrenian. Pekatu mortala egiten dabee gurasuak, amaren sabelian dauan seña laarregi nekatuta, ilteko pelleburuban iminten dabeenian, dan moduban dala. Bada, zein jaijotakuarri bizitzia kendu zein jaijoteko dauana galdu, bardin da, dino Tertulianok.

Irugarrenian. Pekatu mortala egiten dabee gurasuak, seña txikarrak kuidado gitxigaz eurekin oian eratzota, itoteko arriskuban daukeezanian. Ta ojala onako negargarrijak gitxiagotan jazoko balira! Gauza oneek bautismoko sakramentuban klarubago esango dira.

Langarrenian. Pekatu mortala eiten dabee gurasuak, seña eurak azteko nekia gaiti, beste nezesidade edo premina bagarik, inori azteko emoten deutseenian. Euren erraijetako prutubak dira ta, al dajela, euren bularetan aizi biar ditubeenak dira. Usadijuak ez ditu libreetan pekatu onetati, aberatsak izan arren. Jangoikuaren legiak aberatsei ta pobriai, guztiai bardin diadar egiten deutsee. Ta naturaleziaren legia da amak bere umiak



aztia bere bularrian. Sara aberatsa zan, Samuelen ama aberatsa zan, Makabeo santuben ama aberatsa zan, san Luis erregiaren ama aberatsa zan, baña euren bularragaz ari zituben semiak. Ama baten ondrarik andijena da, dino san Anbrosiok, bere sableko prutuba bere bularragaz aztia.

Bostgarrenian. Pekatu mortalak egiten dabee gurasuak, semiak eta alabak, neba arrebak izan arren lau bost urtera eldu ezkero, alkarragaz oe baten eratzotene ditubenian. Ta baita eurekin oian eratzotene ditubenian bere. Lau urtera eldu ezkero, askok daukee malezija; ta zeubenak bere zubek pensau ez arren, euki leije. Salomonek amar urte zitubaneko eukan seme bat, dino san Jeronimok. Beste ainbeste esaten da, euren oian izan ez arren, euren alboko oetan eratzotia gaiti. Ta baita errenta etxeetan oiak aparte egoteko duina leku egiten ez dabene ugazabaak gaiti bere. Ez da esaten oe bakotxarentzako gela bat egiteko, ezpada kristinaubenean moduban gurasuak eta umiak, gizonezkuak eta andrazkuak aparte lo egiteko duina. Au pekatu mortalaren beeko obligazioa da, bai gurasuentzako ta bai ugazabentzako.

Seigarrenian. Pekatu mortalak egiten dabee, seme alabei bost sei urtera eldu ditezanetik aurrera, umiak diriala ta, esaten dabene ta egiten dabene guztia, parkatubagaz. Umetako libertadiagaz esan ta egiten ditubee gauza txaar asko; ta gurasuak, egitade andi batzuk balira leez, parkatutenean deutsee edo alabeetan deutsee guztia ta azten dira ume lotsa galdukuak, paska bat andijago egin ditezanian inok domau ezin ditubanak. Lelengoti oker azten dan lan daria nos zuzenduten da? Zeubek umetati seme alabak okerrak azita, nai zenduke gero zuzenak izatia? Ori da milagruek Jangoikuari eskututia. Ta ez ditu egiten nasaitasuna ta lotsa txaarra geitureko. Umetan semiari ta alabiari parkatutenean badeutsazu, gero damutuko jatzu, dino Espiritu Santubak.

Zazpigarrenian. Pekatu mortalak egiten dabee gurasuak, seme alabei biar dan moduban dotiria erakusten ez deutseenian. Oh, ze palta andija dauan, neure kristinaubak, gauza onetan! Lelengo lezinoian esan da zerbaite gauza onen gañian. Ez da asko, neure entzula onak, gurasuarenzat, semiari ta alabiari buruz orazinoe batzuk esaten erakustia, ezpada aitu eraien biar jako pekatu mortalaren beian orazinoe bakotxeko berba areek zer esan gura dabeen. Arimiaren espirituzko izatia, grazijaren preminia ta probetxubak, pekatu mortalaren ezaintasuna ta kalte ikaragarrijak, munduko gauzeen iraunik eza ta balio laburra, zeruko ondasunen akaburrik eza ta gozo neurri bagakua, Jesusen bizitzia ta kurutzeko erijotzia, Ama Birjinaren ta santuben debozinoe egijazkua, sakramentuen birtutiak ta zelan prestau biar dan konpeseetako ta komulgeetako, meza santuba zelan

entzun biar dan, erremedio bako erijotzia ta erijotziari darraikon juizijo estuba, betiko zeruba edo inpernuba... oneek dira guraso batek pekatu mortalaren beian seme alabei erakutsi biar deutseezan lelengo gauzaak. Ta erakusten dira?

Oh, ze gitxi! Aita edu egindako seme alabak dagoz asko, dotiriarik bapere sustanziaz ez dakjenak. Errijken jazotene dirian enbusteria, bandade, amore loi ta pekatu jenero guztiak bakijez zortzi amar urte ditubeeneko ta meza bat zelan entzun biar dan ez dakije ezkonduta gero bere. Esan lei alakuen gurasuak gaiti Augusto agintariak Eroles gaiti esaten ebana, seme alaben lekuan lau oñekuak jaijoko balitzakuez, oba leukeela alako gurasuak. Bada, san Juan Krisostomok dinuan leez, gurasuak obeto kuidado egiten deutsee etxeako alemanijai, seme alaben arimiari ta salbazinoiari baño.

Zortzigarrenian. Pekatu mortalak egiten dabee gurasuak, seme alabei lapurretaak, gauza gitxian lantzian izan arren, ontzat eruaten deutseezanian ta areek oostutako gauzia pozik artzeen dabeenian.

Bereratzigarrenian. Pekatu mortalak egiten dabee gurasuak, seme alabei bidauak eta maldezinoiak ezarten deutseezanian. *Diabrubori ta, demoniori ta, itoko al as da, azkenak erango al dituk eta*, beste onako bidauak seme alabei egitia pekatu mortalak da. Ta endamas sarritan bada. Alperrik da esatia gatz bagarik egiten diriala alako bidauak. Beti da exenplu txaarra. Beti da gaiski erakustia ta beti da guraso batenzako pekatu. Bada, Espiritu Santubak dinuan leez, gurasuaren maldezinoiak ondatutenean dau etxe guztia. Intenzinoe txaarrik eukiko ez eban semiari gatz egiteko, Zenobio santubak dinuan amak. Umiak ura eskatu eutsan amari ta amak purijaz ura eskinita, esan eutsan umiari: *antsa, eraik diabrubia*. Ta bertati sartu zan diabruba umiaren gorputzian.

Amargarrenian. Pekatu mortalak egiten dabee gurasuak, seme alabei meza entzutia, konpeseetia ta komulgeetia, edadia euki ezkero, errazoe bagarik eraozten deutseenian. *Zazpi urtera ezkero daukee obligazioa meza entzuteko ta beste Elexako mandamentubak gordeetako, kura jaunak beste gauzarik aginduten ez deutseen artian.* Bapere erreparau bagarik zortzi ta bereratzitako umiak meza entzutera ta konpeseetara eruan bagarik daukeezan gurasuak, begiratu beije zer egiten dabeen.

Amaekagarrenian. Pekatu mortalak egiten dabee gurasuak, seme alabei bidauak eiten, berba loijak eta desonestubak esaten ta beste edozein bere pekatu parkatutenean deutseenian. Esaten da, *parkatutenean*. Alako gauzak seme alabei entzunda, edo esan eta egiten ditubeen jakinda, lotsia ta bildurra ostera egin ez daijen, emoten ez deutseenian. Bada, umetan



eraozten ez bajakuez, azita nekezago erremedijauko dira ta gurasuena izango da erruba.

Amabigarrenian. Pekatu mortala egiten dabee gurasuak, zein gabaz ta zein egunaz pekatu egiteko okasinoeurreko lekubetara juaten edo lagun pelleburuzkuekin ibilten seme alabei isten deutseenian. Nos, zelan eta zetaraño eldutenean pekatu au, sarri entzuten dozu gurasuak. Ta esango da oraindino klarubago, dibersinoeko dotrinia espliketan danian. Artiataráño ez aaztu, kristinaubak, ia nok su emoten deutseenorrako gazzteen arteko ibilera nasaijai, apaindu guriari, modestijarik ezari, berdekeri-jai, maitekerija ezainai, etxian sosegau ezinari ta gurasuertzako dauken errespeto txaarrari.

Zek eraiten dau au guztiau? Jangoikuaren bildur bagarik eta libertade osuan seme alabak umetati ezijak. Edozein bere lekutara juaten ta edozein bere lagunegaz ibilten seme alabei itxjak; bizirik edo minik artu bagarik etxera badatoz, eze ez deutsee ardura guraso askori, euren seme alabak pekatuzko lagunekin egon ta ibili arren. Zer dira au baño beste gauzarik,orrako komedijk, erromerijk, plazaak, saraubak eta bigiraak? Baña ez da oan denporia onen gañian berba egiteko. Oh, gurasuak, zeinbat pekatu mortal irunsten dituzun au ondo dakizula! Erremedijo bagarik negar egin biako dozu, bada.

Amairugarrenian. Pekatu mortala egiten dabee gurasuak, euren alabei besuak eta irunak edo bularrak agirijan erabilteko soinekuak egiten deutseenian ta alako jantzijagaz plazara, pasiora, elesara edo lagun artera zein etxian ta zein kanpuan urtetenean isten deutseenian. Useetan dala esatia alperrik da. Ez dago usaditorik, Jangoikuaren legiaren kontra. Eskritura Sagradubak, Elesako santubak eta konziliuak, guztiak era batera kondeneetan dabee da emakumiak alako jantzi madarikatubagaz ibiltia. Senarrak emaztiari istia alako jantzija, pekatu mortala da; senarrak agindu arren emaztiak jantzten badau, pekatu mortala egiten dau. Gurasuak umiari agindutenean badeutsee edo parkatzen badeutsee alan jantzta, peka-tu mortala egiten dabee. Ta umiak, gurasuak agindu arren jantzten badau ezauberiagaz, pekatu mortala egiten dau. Bada, berez pekatu dan gauzia ezer gaiti bere ezin egin lei. Ta alan jantzta ibiltia, berez ta beti da desonestuba.

Amalangarrenian. Pekatu mortala egiten dabee gurasuak, seme alabei goguaz kontrarako estaduba artu eraiten deutseenian. Ta baita semiak edo alabiak gura daben estaduba artzeen, al dajela ta errazuazkua izan ezke-ro, lagundutenean ez deutseenian bere. Onen gañian esango da zerbait gejago matrimonioko sakramentuban.

Ara emen, neure kristinaubak, andi andika aituten emonda zetan pekaturik geijen egiten dabee gurasuak euren seme alaben azieraean, asko aintzat artu bagarik. Baña guztien artian nekezen erremedijetan dana ta gurasorik geijenak palteetan dabee da, dotrinia azaleti baño ez erakustia, kristinau egijazko baten obligazioiak ez erakustia ta pelleburuzko lagunekin ardura bagarik ibilten istia. Ez dakizu ondo, gurasuak, ze kalte andijkak dakazan onek zeuben mo umeen arimeetara. Baninz inori konseju emoteko duina, dino ene ama santa Teresak, esango neuskijue guraso guztiai; kuidado andijagaz begiratu dajela euren seme alabak umetan nogaz ibilten dirian. Orduban, amar, amabi, amalau urte inguruan, dino Santiaik, dauala kalte andija. Ibilten dira mutilak neskatzekin, gurasuak kasu egin bagarik bisitiaren, pasiuren ta olgeetiaren atxekijan; ta ikasten dabee santa Teresak bere buruba gaiti dinuana. Edo obeto esateko, ez santa Teresak humildadez dinuana, baña bai san Bernardok pena andijagaz dinuana: *intrat solus ad solam pveh, pvh lupus ad oriculum!* Isten jakue mutilei alabeekin bakarrik egoten; edo alabei mutileetara juaten. O lastimia! O negargarrija! dino san Bernardok, otsuak bildotseetara bialdutia edo bildaotsak otsuari emotia!

Oh, gurasuak! Errukitu zaitez zeuben erraijetako prutubeekin. Ez eijoizuz ain erreztzo mundubari ta diabrubari entregau zeuben sabelian pormautako, zeuben bularragaz azitako ta Jesukristoren odolagaz erositako seme alaba tristiak. Ez dajala inos Jangoikuak gura izan alako negargarririk. Amen.



LAUGARREN MANDAMENTUKO IRUGARREN LEZINOIA

zenetan erakusten dan
seme alabak gurasuai zor deutsen ondria ta obedentzia.

Gurasuen obligazinoiak andijkak badira seme alabak Jangoikuaren bildur santubagaz azteko, seme alabak gurasuertzako daukeezanak bere andijkak dira, neure entzula onak. Gurasuak dira, Jangoikuaz ostian, geuri izatia emon oskubeenak; geure umetako miseria guztiak supridu doskubeezanak; geu euren izerdijagaz mantenidu ta jantzi gaitubeenak; geuri dotrinia edo eskolia edo opiztua erakutsi doskubeeenak; geure negar, illeta, maña, tema ta umekerijak gau ta egun penaz lua ta sosiguba galdua, irago ditubeenak; eurak aora daroien kopauba sarri emon doskubeeenak; eurak lua galdua, lo erain doskubeeenak; eurak biloxtuta, jantzi gaitubeeenak; enpin gurasuak dira geure luurreko Jangoikuak ta zor deutsegu *amodijua, ondria ta obedentzia.*

I.

Zor deutsegu gurasuai amodijua. Dinot, neure kristinaubak, amau biar ditugula geure aita ta ama beste proximo guztiak baño geijago. Bada, beste guztiai baño geijago zor deutsegu eurai. Geure gurasuak biar dan moduban ameetako: 1º Desiau biar deutsegu gorputzeko osasuna, bakia, portune ona ta beste gauza guztiak baño geijago arimako grazija ta zeruko gloria. 2º Geure arpegiera onagaz, berbeeta bigunagaz eta klaezia argijagaz erakutsi biar deutsegu gurasuai, eurei deutsegun amodijo pina, bijotzeko karinua ta ondo guria. 3º Erregutu biar deutsagu Jangoikuari, geure gurasuen arimako salbazinoia. Ta au sarritan, Jangoikuak bere eskutti euki daizan, pekaturik egin ez daijen ta salbau ditezan. Modu onetan amau biar ditugu gurasuak, zein onak eta zein arin onak, zein zaarrak eta zein gaztiak; bada, guztiak dira gurasuak ta guztiai zor deutsegu amodijo egijazkua. Ta baita ondra ona bere.

II.

Laugarren mandamentubak klaruben erakusten doskun gauzia da aita ta ama ondreetia. Berba oneetan aginduten doskuz Jangoikuak txito gauza asko geure gurasueganako. Lelengo, beti ondo berba egin biar dogu geure gurasuak gaiti. Bigarrenian, gurasuak paltaak euki arren ta dongaak izan arren, ez ditugu kontau biar areen gaiskeginak, ezpada Jangoikuari eskatu euren erremedija gaiti, leen esan dan leez. Irugarrenian, entzun eta artu biar ditugu grazija onagaz ta borondate humildiagaz, aitak eta amak emoten doskubeezan konseju santubak eta geure probetxurakuak. Laugarrenian, euki biar deutsegu errespeto ta erreberenzia andija, eurak serbietako desiau daukaguna erakutsijagaz. Bostgarrenian, lagundu biar deutsegu alegin guztijagaz aitari ta amari euren premina ordubeetan, bai gaisorik dagozianian, bai inok persegietan ditubanian, bai zer jan ez daudenian ta bai arimako pelleburuban dagozianian. Seigarrenian, kuidado andi bat euki biar dogu geure gurasuak ill ez ditezan sakramento santubak errezibidu bagarik, ta erijotzako orduban kristinaubak nai oi dabeen laguntasuna bagarik. Zazpigarrenian, kunplidu biar ditubee seme alabak gurasuen azkeneko agindubak edo testamentubak.

Gurasuak biar dan moduban ondreetako, au guztiau egin biar dabee seme alabak, beste edozein bere proximogaz baño lasterrago, ziurrago, zintzuago, borondate prestauagaz. Jakin biar dozu, kristinaubak, gurasuen erreberenzijaren ta ondriaren kontra egiten dirian pekatubak diriala txito kasta txaarrekuak. Pekatu guztiak dira dongaak; baña batzuk Jangoikuaren gorroto andijaua dakarree beste batzuk baño. Ta oneetarikuak dira seme alabak gurasuen kontra egiten ditubeenak. Aitari edo amari erremuskada egitia, bekoki iluna imintia, arpegi astuna ta asarria erakustia, gogor berba egitia, burla egitia, euren paltaak eta deskuiduak arpegijan ezartia edo ondorik esatia, preminaan dagozianian ez sokorrieta edo lotsa gitxigaz trateetia dira, neure entzula onak, pekatu batzuk Jangoikuaren bijotza, esateko moduban, erdibi egiten dabeenak ta Jangoikuari seme alaben kontra maldezinoe andijk erasotenean.

Aitari atsekabia emoten deutsan ta amari iges eraiten deutsan semia edo alabia, dino Espiritu Santuabak, izan della desondrauba ta desditzaua. Aitari edo amari burla egiten deutsan umiaren begija, dino Espiritu Santuabak, pikatu daijela errekeetako belaak; edo, klarubago esateko, pikatu daijela ta jan daijela alako ume desbergunzauba inpernuko pristijak. Aitari edo amari bidaio egiten deutsan umia, dino Espiritu Santuabak, ill della, kondenau della ta bere odola beti bere kontra izan della. Maldezinoe



ikaragarri oneek jaurteiten ditu Jangoiko andijak lotsa txaarreko seme alaben kontra. Ez dakit nori ikara eragingo ez deutseen, paska bat pensau ezker!

Esango neuke, ez dauala menturaz beste pekatu jenero bat, Jangoikuaren justizia bai mundu onetan ta bai bestian obeto bengeetan jakonik, seme alabak gurasuen kontra egiten dabeen pekatuba baño. Ta oh, ze pekatu ugarijak dirian oneek! Beti bere izan al da, baña gaurko egunian umiak, zein atzijak eta zein txikijak gurasuengat ez lotsarik, ez bildurrik, ez errespetorik ez daukeena, nik esan bagarik, zeubek autor dozuna da. Alaba batak amari sinu eiten deutsa; bestiak sakatu bat emoten deutsa; bestiak arpegiera on bat sekula erakusten ez deutsa; bestiak bidao eiten deutsa; bestiak atsua edo barritsuba isilik egon della, esaten deutsa; bestiak gabak denporaak emonda, etxetzi lagun txaarretara iges eiten deutsa; bestiak diadar gogor bategaz sardakija, eurak esan oi dabeen leez, sartzeen deutsa; bestiak nai dabena esan, nai dabena erantzun ta nai dabena eiten deutsa; bestiak gura dabentzatela eta bera baixen lotsa galdukutera iges egiten deutsa; bestiak, bere gorputz loija apainduteko, ama erdi biloxik marruxtuta, gosiak illik daukala, etxeko artua edo garria, urdaija edo gatza baño ezpada bere saltzeen deutsa; bestiak laster iltia desietan deutsa (endamas aberatsa ta zaarra bada bere ama), bestiak eskian dabilela, ospitale baten dauala edo gaixorik dauala, kasurik egiten ez deutsa; enpin amarik geijenen kantia da, esker txaarreko ta lotsa txaarreko alabak daukeezana ta areakin iraun ezin dabeena.

Alabak gaiti esaten dana, semiak gaiti esaten da. Bada, semiak ez dira bapere obetuago porteeetan gurasuekin alabak baño. Onako seme alabak gaiti esaten dau, bada, Espiritu Santubak, izan ditezala desondraubak; izan ditezala zorigestokuak; amatau della euren argija; belak etara dajiezala euren begiak; il ditezala ta euren odola izan della beti euren kontra. Zer esan eukian geijago au baño geure Jangoikuak lotsa txaarreko seme alaben kontra? Gurasuekin alan porteeetan dirian umiak eukiko dabeela portune ona, bake ona, ditxa ona edo zaartzona, ezin sinistu lei, neure kristinaubak. Erremedio bagarik jadiutxiko ditu Jangoikuaren azotiar bai mundu onetan ta bai bestian.

Egija da, gurasuak izan leitekez dongaak, ordijkak, bidaotijkak, kastalarriak, okasinoetsubak, desonestubak, lapurrik eta Jangoikuaren bildurrik bapere ez daukeenak, baña etxakue umiak tokeetan gurasuak juzkeetia, ezpada Jangoikuari. Gurasuak izan leitekez seme alabak gaiski atzi ditubeenak, leengo dotrinan esan dan leez, ta seme alaben esker txaarra, lotsarik eza ta zaartzza errukarri desbenturau bat ondo mereziduten ditubee-

nak, baña gurasuen gaiski eginak ez ditu txikituko edo edertuko seme alaben esker txaarreko, lotsagalduko ta esan dirian moduko pekatubak. Konturik zuzenian bai jazoko da: alako gurasuak eta alako umiak munduban gozo bagarik eta portune txaarragaz nekezka bizita, gero guztia inpernuban alkarr bidaoka erreetan egotia. Au da, neure kristinaubak, esan ezin lejian beste gurasori ta umeri jazo jakeena ta aurrerakuei bere jazoko jakuena, bai gurasuak eta bai umiak bizi badira lotsa txaarragaz.

III.

Seme alabak gurasuen esanak egiteko obligazioa daukeena, edozeñek dakijena da. Nos eta zetaraño gurasuai obeidu biar jakuena da, erakutsi biar dana. Berba gitxitan asi ta akabetan dau santo Tomasek, umiak gurasuai zetan obeidu biar deutseen; ta dino, umiak gurasuari obeidu biar deutsala arimako onerako ta etxeko kobernurako tokeetan diran gauzegan. Eskritura Sagradubak eta Elexako maisubak au berau esaten doskubee leku askotan.

Dotrina onetati etaraten dabee Elesako maisubak ta esaten dabee pekatu mortala egiten dabeela seme alabak: 1º Gurasuak dotrinia ikasteko aginduta edo erakutsita, ikasi gura ez dabeenian. 2º Gurasuak meza entzutera ta nosik beinako batzubeetan konpeseetara juateko aginduta, juan gura ez dabeenian. 3º Gurasuak onako edo alako lagunagaz ez egoteko edo ez ibilteko aginduta, esana egiten ez dabeenian. 4º Gurasuak komedijara, erromedijara, saraura, piestara edo bigirara ez juateko esanda, jauten dirianian. (Gurasuak alako lekura juateko esanda umiak lizenzia emoten deutseenian, zelan pekatu eiten dabeen esango da beste leku baten). 5º Gurasuak onako edo alako etxetan ez sartzeeko aginduta, sartzeen dirianian. 6º Gurasuak gabian etxetzi ez urteteko aginduta, urtetan dabeanian. 7º Gurasuak joko txaarrari ta adiskide sospetxakuari isteko aginduta, isten ez deutseenian. 8º Gurasuak nai ez dabentzatzen moduban apaindutzen dirianian, zein gurasuak dakijela ta zein ez dakijela. 9º Gurasuen isilik kartaak euren adiskidai eskribidu ta errespuestak artzeen ditubeanian; edo neskatillak mutilekin ta mutilak neskatillekin, gurasuak nai ez dabentzatzen kartazko adiskidetasuna daukenian. 10º Gurasuak agindutako ondo juakon estudiua edo opiztua ikasi gura ez dabeenian. 11º Gurasuen lizenzia bagarik edo gurasuen borondatiaren kontra ezkontzeko berbia inori emoten deutseenian.



Gauza oneetan guztietan pekatu mortala egiten dabee seme alabak, gurasuai zor deutseen obedenzijaren kontra. Bada, guztiak eta bakotxa dira, edo eurenez pekatu mortalak, edo pekatu mortaleetarako ta saill txaarretarako pelleburu agitijkak. Ta alako gauzeetan gurasuari ez obeidutia pekatu mortala dana,edozeinek daki. Isilikako ezkontzeko berbiaren gañian esango da zerbaite geijago matrimonioko sakramentuban.

Dotrina onetan eta leenaokuan ikusiko dozu, neure kristinaubak, bai gurasuak eta bai umiak, ia geienok bizi zarian moduban bizita, erre izango dan salbeetan. Ia ainbeste lekutan ta ainbeste modutara laugarren mandamentu santuba autsita, zer geratuko dan zeuben erijotzako ordurako. Ia guraso batzuk ilten zarianian, ze ondorenguak isteen dituzun munduban Jangoikua serbietako ta euren ondorenguai Jangoikua serbietan erakusteko. Oh, gurasuak, eta umiak! Begiratu eizu dotrina oneetan, zelan bizi zarian, Eli aintxinako gurasuari ta aren umiai jazo jakuena jazo ez dakizun. Aita ta seme bijak, aita parkatu eutseelako ta semiak gaiski egin ebeelako, il zituban Jangoikuak irurak Jesus esateko asti bagarik. Ez dajala gura izan zeruko Jaun andijkak bere ontasun eta miserikordija neurri bagakua gaiti, beste ainbeste zubei jazotia. Oh, Jesus, guraso guztien gurasua! Entzun eizuz, bada, nire erregubak zeure Ama Birjiniaren erraija bigunak gaiti. Amen.

LAUGARREN MANDAMENTUKO LAUGARREN LEZINOIA

zeñetan erakusten dan
*ugazabaak zelan portau biar dabeen otseginekin; ta
otseginak euren ugazabeekin.*

Gurasuak euren seme alabeekin ta umiak euren gurasuekin zelan portau biar dabeen erakusten dan leez laugarren mandamentuban, alan erakusten dira mandamentu onetan ugazaben ta otseginen obligazioiak. Esango dotsut, bada, dotrina onetan: 1º Ze obligazioe daukeen ugazabaak euren otseginantzako. 2º Ze obligazioe daukeen otseginak euren ugazabenzako.

I.

Ugazaba guztiak akordau biar dabee, zeruban dauan Jangoikua dala gizon eta emakume guztien gazaba. Bardin kosta jakozala Jangoikuari aberatsak eta pobriak. Bere eskuban daukala Jangoikuak andijen ta txiki-jen suertia, ta gura dabenian ugazabaak biurtu leizala krijadu izatera ta krijadubak ugazaba izatera. Pensamentu onegaz estimauko ditubee ugazabaak euren krijadak, Jangoikuaren semiak eta euren anaiak balira leez. Otseginak bere akordau biar dabee ez ditubeela serbietan luurreko gizonak, ugazabaak serbietan ditubeenian, ezpada Jangoikua bera edo Jangoikuaren lekuban dauana. Bada, Jangoikua da kondezinoe atan imini ditubana ta Jangoikuak esaten deutsee krijadu-krijada guztiai san Pablo apostolubaren aoti, begiratu daijuela ta obeidu daijuela gauza guztietan euren ugazabei, Jesukristori berari leez.

Amau, estimau ta zaintu biar ditubee, bada, ugazabaak euren otseginak amodijuagaz, karinuagaz eta modu onagaz. Ta onetarako egin biar dabee ale gin guztia, euren otseginak gorde daijen Jangoikuaren lege santuba. Arimako gauzei tokeetan jakuenez, gurasuak umiari leez, begiratu biar deutsa ugazabak otseginari. Esan da leenaoko dotrinaan nos, zelan eta zegaiti pekatu mortala egiten dabeen gurasuak, euren seme alabei gauza onak erakutsi ezagaz eta txaarrak parkatubagaz; bada, beste ain-



beste esaten da ugazabaak gaiti. Ugazabak otsegina bere etxian dauan artian, guraso baten obligazioiak daukaz ta gurasuak umiari leez kontu artu biar deutsa arimiaren onerako gauzeetan; ta ezpabere gurasuentzako pekatu dana, ugazabarentzako bere pekatu izango da.

Bakit ugazaba askok esaten dabeena, otseginai eraozten asi ezkeron nai dabeen lagunekin ibilten edo, berba baten guztia esateko, arimako gauzeetan nai dabeena egiten, etxetik iges egingo leuskijuela; otsegin Jangoikozko bat topau ezin lejala; bat edo bat biar dabeela ta beste onako errazoe errazoe bagakuak. Bada, esaten jakue alako ugazabai: Lelengo, eurak Jangoikozkuak balira, otseginak bere izango litzaatekezala. Ugazaba onak beti topeetan dau otsegin ona; ta otsegin onak ugazaba ona. Ugazaba txaarrak inos bere otsegin onik ez; ta otsegin txaarrak bere ugazaba onik ez. Esaten jakue bigarrenian alako ugazabai, dana gaiti dala, otseginai arimako gauzeetan kuidado egiten ezpadetsee ta seme alabak gaiti esan dirian pekatu jeneruak parkatuten badeutseez, egiten dabeela pekatu. Ta ez edozein bere modutan, ezpada pekatu andija, san Pablo apostolubak dinuanez: *Ereja baño dongago da etxeiko pamelijken ta otseginen kuidadorik ez daukana*, dino Apostolu santubak. Lelengo kuidadua da arimako gauzeena ta salbazinoiarena.

Onezaz ostian, ugazabaak obligazioe asko daukeez otseginentzako. Ta *lelengo*, emon biar deutsee otseginai etxiak dakarren janaria, gosez euki bagarik; edola bere euren jan ordubeetan. Jaateko urrija ta gosia dauan etxian, otseginai urte baño lapurreta geijago iragoko jakue.

Bigarrenian, ez ditu otseginak erabili biar ugazabak gau ta egun beti biarrian arrastaka ta barautsa darijuela. Bagoz ugazaba batzuk, sekula otseginen biarragaz kontenteetan ez dirianak. Inok azijkak dirian leez, beti biarpian izerdi ja darijuela ikusi gura litukeenak. Ze mirari andija, alako ugazabaak otsegin onik ez topeetia! Ez dira otseginak alperrerijan eukiteko; ezda beti biarrian ituaz erabilteko bere.

Irugarrenian, otseginai mezia uts eragitia, jai domeekeetan biarra eraintia, errazuaz eskatutenean dabeenian, konpeseetara ta elesako gauzeetara juaten ez istia pekatu da.

Langarrenian, otseginai berba astunak, tropiak eta injurijazkuak esatia, areen palta guztiak edo dirian baño geijago kanpuan konteetia ta Jangoikuak aaztuta daukazan edo sobrau batzuk balira leez, desprezijoak ta modu txaarragaz tratetia pekatu da. Ugazabak egin biar dabena da, otsegin txaarra bada, ondu bere pazienzijagaz ta erakutsi onagaz; ta ezpabere denporia dianian etxetia etara ta aren paltaak isilik euki.

Bostgarrenian, erabagita dauan soldatiaz gañeti, emon biar jako otseginari denporia bere erropaak adabeetako, soldataan ajustau zianian, ez emoteko irago ez beebeen. Bada, edozeñek daki, otsegina urte guztian erropa barrijekin edo osuekin ibiliko ez dana ta ibili ezin leitekiana. Ugazabak astia emoten ezpadetsa, edo jaijegunian egin biar dau edo inori eragin biar deutsa. Bata pekatu da ta besterako soldatarik erdija biar dau, edo oostu egin biar dau. Guztijak ugazabaren erruz. Ta gejenian jaijegunian biarra egitia ta oostutia, bijak alako ugazabeen etxeetan dagozan otseginak. Zor deutsee, bada, ugazabaak otseginai euren erropaak tertzioko baten adabeetako denporia; edo adabau biar deutseez euren lepoti.

Seigarrenian, otsegina denporia kunplidu baño leenago etxetia etaratia errazoe bagarik, pekatu da. Ta pagau biar jako soldata guztia, edo topau biar jako beste ugazaba bat. Oneek dira, neure kristinaubak, ugazabeen obligazioerik nautsijenak. Biar dabentz baño jaateko gitxiago (eukita) otseginari emonagaz, errazoiak eskatzen dabentz baño biar geijago gau ta egun eraginagaz ta beste zor deutsana emon ezagaz otseginari kendu deutsana, atzera biurtu biar deutsa ugazabak. Bada, lau errialen kaltera eldu ezkeron, pekatu mortala da. Ugazabaak estimau beijez otseginak, euren seme alabaak leez; erakutsi beijue dotrina santuba, konpeseetia, humilde, zintzo ta on izatia; emon beijue erruki bagarik etxiak dakarren janaria; berba egin beijue ondo, kris tinaubak dirian leez; ez beijuez parkatu pekatu agirrak; esan beijue lelengo egunetia euren etxian onako edo alako gauzarik ez dabela inok egiten ta egin biako bere ez dabela, ta orduban eukiko ditubee otsegin onak. Baña beti arrastaka, beti bidaoka, beti dongaro esaten, beti gose iskija, beti esker txaarra, sekula dotrinarik ez, sekula elexaraterik ez, sekula exenplu onik ez, sekula Jangoikuaren gauzarik entzuterik ez; onetara otsegin onik bere ez. Ta au da ugazaba askori jazoten jakona. Inoren otseginen enbidijaz beti, bera prestubeza dalako.

II.

Otseginak bere amau ta estimau biar ditubee euren ugazabaak ta obeidu biar deutsee, euren arimen onerako ta etxeiko kobernurako aginduten deutseezan gauzeetan. Ugazabari gorroto izatia, dongaro erantzutia ta aginduten deutsan gauzia ez egitia (pekatu egiteko aginduten ezpadetsa), pekatu da; ta konpeseinoan esan biar da, ugazabaren kontra zana. Seme alabak gaiti zer esan dan akordau bitez otseginak ta beste ain Beste obligazioe dauke eurak, arimako ta etxeiko kobernuko gauzeetan uga-



zabai obeiduteko. Onezaz ostian, otseginen obligazioa da ugazabaren gauzei begiratutia. Au gaiti pekatu egiten dau otseginak:

Lelengo, tokeetan jakon edo al daijan biarra ugazabarenzat egiten ez dabentzian. Ta gauza andira eldu ezkero, pekatu mortal. Ez dau ugazabak otseginik biar, alperrerijan egoteko.

Bigarrenian, pekatu egiten dabee otseginak euren paltaz ugazabari gauzaak galtzen jakozanian. Ugazabak aginduta, krijadubak kasurik egin ez deutsalako, etxian, ganaduban edo soluan ugazabari etorri jakon kaltia krijadubak pagau biar dau, bere erruz izan ezkero. Krijada batek, biar dan baño geijago kastaubagaz edo ugazabaren gauzaak ugarijago erabilijagaz, egiten dabentzian kaltia pagau biar deutsa ugazabari. Deskuido bat gaiti ez da au esaten, ezpada otseginen errazuazko kuidadua ta arduria palta daman.

Irugarrenian, pekatu egiten dabee otseginak ugazabaren lizenzia bagarik edo ugazabak inori ez emoteko esanda, ugazabaren gauzeetati limosnia emoten dabeenian. Ta gauza andira eldu ezkero, pekatu mortal, atzera biurtuteko obligazioiagaz. Egija da ugazabaak eurak emon oihabeen edu limosna, eurak etxian ez dagozanian, ateetara datorren esku-kuari emotia ez da pekatu, beste gauzarik ugazabaak aginduten ezpadetsee. Dudia daukanak itandu beijo bere konpessoriari ta aretxen esana izango da segurubeena.

Langarrenian, lapurretako pekatuba egiten dabee otseginak ugazabai lantzian puska bat gauzaak ostutenean. Batian laumai, bestian zortzi-marai ta alan, edo laboria edo jaatgauzia... Au lapurretia da ta Elexa Ama santiak kondenauta daukan. Alperrik da esatia *soldata txikija danka-la; biar laurregi eraiten deutseela* ta beste onako atxekijkak. Soldata erabagiten daman, begiratu; edo beste ugazaba bat topau ta ez oostu. Nosbait jaatbitaartian zerbaite jaatia ez dau inok beinguan pekatu mortalzat emoten. Balitz ugazabak gordeta daukan gauza guztiz estimau bat, au bere pekatu izango litzaateke beraren lizenzia bagarik jaatia edo eraatia. Krijadaak eurak artzeeko emoten jakuen txokolatia saldu leijen edo ez, esango da zazpigarraren mandamentuan.

Bostgarrenian, pekatu egiten dabee otseginak ugazabaren ta etxekuen paltaak eta deskuideak ta etxian iragoten dirian gauzaak, kanpokuai konteetan deutseezanian. Au inok uste dabentzian baño palta andijaua ta ugarijaua da. Etxe baten iragoten dira ta jazoten dira milla gauza, auzuetaukak jakin biar ez ditubeenak; ez gauza txaarrak dirialako, ezpada etxe bizitziarri darraikozanak dirialako. Alan etxian zer jazoten dan, zer iragoten dan ta zer esaten dan kanpuan konteetako ekanduba daukan otseginak ez dau

merezietan egun baten bere etxian inok eukitia. Etxeko gauzaak etxian geratu biar dabee. Konseju on bat itanduteko baño esan biar ez dira.

Ara bada, kristinaubak, aituten emonda laugarren mandamentu santubak, zubei tokeetan jatzunez, aginduten doskuna. Guztioi txito asko importa doskun gauzia da. Errazoia izango da, bada, bakotxak bere aldeti alegina egitia; bai dotrina oneek ondo ikasteko ta bai ikasita, ondo kultipletako. Alan jadiitxiko ditugu munduban bendizinoezko bizitza luzia ta gero eternidadeko gloria. Amen.



EGILIAREN IZENBAGAKO SERMOE BARRIJA, SEME ALABA DONGADUNEN KONSUELOGARRIJA

Curva cervicem eius (filii) in juventute, et tunde latera eius, dum infans est, ne forte induret, et non credit tibi, et erit tibi dolor animae. Eccl. Cap. 30. V. 12.

Ez ejozu umiari iruna gaztetan ta domau ejozuz sajetsak txikija dan artian, gero gogortuta, zeure kon tra lotsagaldukotu ez dedin ta arimako penia ekarri ez dai zun. Eccl. ut supr.

Arimako poz andijagaz ta bijotzeko esan ezin leijan gozo bategaz entzuten dira, neure kristinaubak, seme alabaak ondo azten ditubeen gurasuen bizitzako, zaartzako ta erijotzako atseginak, kontentubak, bendizinoiak eta grazijak. Umiak ondo azten dituban gurasua alegrauko da ta konsolauko da bere semiagaz ta alabiagaz. Alako guraso ona alabauko dabee ta estimauko dabee auzuak eta erriko jentilak bere. Gozotasunez ta pozez betea biziko da ta bere ilteko orduban bere ez da penauko, seme alaba oneetan isten dabelako bere etxura zuzena, ondrauba, baketsuba ta kristinauzkua. Job santuba, Abraan patriarka andija, Tobias ditxosua, santa Susana, Ana Samuelen ama, Eleazar, Jakob, Matatias, Sara, Rebeka, santa Monika ta beste milla dira, neure kristinaubak, egija onen testigubak. Guziak artu zituben ta artzeen ditubee zeruban seme alabei emon eutseen aziera onaren eta santubaren prutu ugarijak, bendizinoiak eta grazijaak.

Espiritu Santubak kasik isildu bagarik, ez dakit zeinbat lekutan, enkargetan deutsee gurasuai seme alaben atziera ona, zuzena, jangoikozkua ta humildia. Opa deutseez bizitza luzia, portune ona, atsegin gozua ta bendizinoiezko sarija, seme alabaak ondo azten ditubeen gurasuai. Ta beste aldeti milla errazoegaz ta xenplugaz erakusten deutsee, seme alabaak bildur bagarik, ezi bagarik, doctrina bagarik eta libertadian azten dituben gurasuai, gero erremedio bagarik eukiko dituben atsekabaak, naibagiak, zaartzta txaarra, erijotza desondrauba ta azkeneko penia.

Ezi eizu, dino, ta domau eizu umetan, txikitán (laubost urte ditubanet) zeure umia, gero gogortu ez dedin, aginak erakutsi ez daizuzan,

lotsia galdu ez daizun ta arimako penia euki ez daizun. Umetati zigorragaz lotsia emoten badeutsazu, aren arimia inpernuti librauko dozu, dino Espiritu Santubak. Ta zigorragaz lotsia emoten ez daben gurasuak gorroto deutsala umiari. Umetati seme alabei lotsia emon biar jakuena, domau biar diriana, temiagaz urteten itxi biar etxakuena ta gauza dongarik parkatu biar etxakuena, Jangoikorik ezaututenez ez ebeen jentilak bere autor dabeena da. Platon, Aristoteles, Plutarko, Zizeron ta beste jentil askok erakutsi lejue kristinau askori, umetati zelan atzi biar dituben euren seme alabaak. Zizeronek dino, obligazioerik andijena, estubena ta geijen balioko dabena, umetati seme alabak zuzen astia.

Au gaiti bada, neure entzula onak, okasinoe gitxi galdu ditut neure sermoietan, gurasuen obligazioe andija edo nausija erakutsi bagarik. Batzubetan eriak ekarrita, beste batzubetan berarrijaz topauta, sarritan ondo esanagaz ta askotan ezer bere parkatu bagarik, nosbait erregutubagaz ta bein batzubetan zamaitubagaz ta kalte ikaragarrijak gogora ekarri-jagaz, dendatu nas gurasuai zer egin biar daben esaten. *Insta, oportune, importune...* Sermoe onetan pensau dot, beste bide bateti juan biar dodala. Guraso asko ikusten ditudan leez zaartzta errukarri bategaz, esker txaarreko ta lotsa txaarreko seme alaba atzijk daukeezalako, areetxek konsoleetako desio bizi bat etorri jat bijotzera. Alan sermoe onetako zeregina izango da *seme alaba dongaak eta esker txaarrekuak daukeezan guraso errukarrijak ainbat onduen konsoletia*. Bienen bitartean seme alaba gaztiak edo ume txikarrak daukeezan gurasuak bere ikasi daikee, tertijo atara eldutene badira, ze konsuelo eukiko dabeen. Ez nas kansauko Zizeronen ta Demostenesen berbeeta oneko erregelak gordeetan aldiha onetan, ezpada datorrena datorren eriaz esan, erremedio konsolagarrija topau artian. Inok esaten badau sermoiaren baño konbersazinoiaren traza geijago daukala, agaz bere ez nas asarratuko. Saillo oni aurrera jarraituteko biar dodan espirituba ta grazija eskatu daijogun seme alaba guztien Aitari, geure zeruko Jangoiko onari. Ama Birjina guztiz santia bitarteko iminteko, esan daigun bijotzeko debozinoe guztiagaz *Abe Marija*.

Curva cervicem eius in juventute...
ut supra.

Egija esateko ez dakit, neure kristinaubak, zer egon leitekian pena-garrijagorik edo minberaagorik iru edo lau seme alaba edo geijago azita daukazan guraso zaar baten bijotzarentzat, areen esker txaarra ta lotsa



txaarra baño. Ya edadian jausita, zaartuta, kansauta, sepulturara bidian dauan gurasuari, izerdija darijola nekez azi dituban sableko prutubak, bere semiak edo alabaak, batak kasurik egiten ez deutsala; bestiak erresposta txaarra emoten deutsala; bestiak begirakune on bat egiten ez deutsala; bestia sekula agur eitera juaten etxakola; bestiak burla egiten deutsala; bestiak zerbait esan orduko, aoti atzera erresuesta sartzeen deutsala; bestia jaaten dabent arto edo ogi kopaubari asko deitxola; bestiak ezetan bere obeidu gura ez deutsala; bestiak auziak eta endreduak etxera ekarten deutsazala; bestia justizjak karzelaan daukala; bestiak agiraka egiten deutsala; bestiak bere denporako paltaak eta deskuiduak burlaz arpegiyan esaten deutsazala; bestiak illda balego naijago leukiala; dinot, neure kristinaubak, menturaz ez dauala luurraren gañian guraso batenzat sentimendu andijagorik, penagarritzagorik ta desesperazinoe mingotxagorik, berak nekez azi dituban seme alabaak modu onetan portetia baño.

Guraso batek desesperetako,ernegetako, negar egiteko, bijotza erdi bi egiteko ta bere buruba akabeetako penia dau au. Semiak azi ditut, dino alako guraso triste errukarrijak, ta eurak dira neure zaartzako penarik andijena. Semiak azi ditut ta eurak dira neuri begijak etaratzen deusteezanak. Ez dauka luurraren gañian nora begiratu, atsekabia ta naibagia ez daukan lekurik. Ez nas espanteetan, alako guraso tristiak egunian milla bidaia ta maldezinoe bere umiari eginagaz. Bada, egunian egunian dauka bataganik albista txaarra, bestiaganik desprezjua, bestiaganik bekoki iluna ta guztieganik penia. Ez nas espanteetan, guraso askok euren seme alaben lotsa gaistua ta esker txaarra ikusita, areek eskura ekartiagaz desesperau-ta, ernegazinoiagaz ta purijaz desietan dabeen iltiagaz, beste munduban zer ikusirik ezpaleukee leez. Ez nas espanteetan, guraso asko urte geijagotan biziko litzaatekezanak, seme alaba dongaak diriala medijo leenago illagaz ta, eurak esan oi dabeen leez, munduko bakia eginagaz.

Oh, seme alaba gaistuak eta lotsa galdukuak daukeezan guraso zaar errukarrijak! Oh, triste desbenturaubak! Oh, ze zaartzeta penagarrija ta mingarrija dan zubena! Oh, ze karidade andija onako gurasuen bijotz tristiak konsoletia! Baña zelan erremedijau lei onako gatz andija? Zer egin leije, negar ta desesperau baño beste gauzarik alako seme alaba gaistuak daukeezan guraso edadekuak? Ija eurak baño andijago dirian ume lotsagaldukuak daukeezanak? Ondo esaten badeutsee, gaiski erantzuten deutsee. Elexara asistietako esaten badeutsee, *bai zeu bere elexa zalia izan zaratza* esanda, burla eiten deutsee. Jo gura izan arren, indarrik ez daukee, edo umiak eurak jo leije edo sakatu bat emon lejue. Zerbait esaten bajar-

kue; *beti barriketan jardun bagarik, isilik egon zaite*, erantzuten deutsee. Zer egingo dau edo nora begiratuko dau, bada, alako guraso errukarrijak?

Kristinaubak, egija esateko, ez dakit ze botikatan topau leijan alako bijotz baten konsuelua. Baña orraitino bere ez dogu guztiz desesperau biar. Dendatu biar dogu alegin guztiagaz, guraso errukarri areen konsuelua topeetako. Medikubak esaten dabeenez, gaxtari erremedijua imintera orduko ezautu biar da bere asieria ta sustraja. Bada, ondo ezaututenean gatxa erreztuago ta lasterrago erremedijetan da. Guretzako bere bide au izango da segurubena. Examinau daigun lelengo, nundi datorren alako gurasuen penia. Topau daijoguzan sustrajak guztiak ainbat onduen ta ondorik ezarriko deutsagu botikako bat, guraso triste areek artzeen badebe, guztiz gozatu ta konsolauko ditubana. Asi gaitezan, bida, bene benetan.

Seme alabak esker txaarrekuak, lotsa galdukuak ta gaistuak daukeezalako da gurasuen trabau ta pena guztia. Examinau daigun, bida, oan, ia nundi edo zelan gaistotu ta lotsagaldukotu dirian seme alaba areek, nok galdu ete ditu alan zuben seme alabak? Galdu ete ditu Jangoikuak? Ez. Jangoikuak onak, humildiak, zintzuak, lotsa onekuak, inozentiak, isilak eta santubak entregau otsuzan zeubei, batiatu zenduzanian. Zeuben sabel-eti ekarri ebeen pekatubaren mantxia bere kendu eutseen. Euzkija baño argijago, lirijuak baño ederrago, luurra baño humildiago, aingeru santu batzuk eginda, entregau otsuzan Jangoikuak batiatu zianian orrako seme alaba lotsa txaarreko orrek. Ta bautismuan artu ebeen grazijagaz, edertasunagaz, humildadiagaz, modestijagaz ta santidadiagaz gorde zituban Jangoikuak errazoiaren usura eldu artian. Ta arik ona bere ezin esan lei, Jangoikuak galdu ditubala zuben umiak.

Mundubak galdu ete ditu zeuben seme alaba gaisto areek? Ez. Diabrubak lotsagaldukotu ete ditu? Ez. Aragi dongiak ekarri ete ditu, zeubentzako esker txaarrekuak, gogorrak eta lotsa gitxiakuak izatera? Ez. Bada, munduba, diabruba ta aragia zeuben seme alabentzako ta beste guztientzako bardinak dira. Ta orraitino guraso edadeko asko dagoz seme alaba humildiak, zintzuak, Jangoiko zuak, isilak eta estimaubak daukeezanak. Euren zaartzan laguntasuna, poza ta atsegina emoten deutseenak. Sekula, eurak esan oi dabeen leez, buruko min bat emon ez deutseenak. Jangoikuaren bildur santuban ta kristina egijazko baten moduban, bai arimako gauzeetan ta bai bizitzakuetan, askok enbidija deutseela bizi dirianak. Onan bizi dirian seme alaba bedeinkatubak eta estimaubak euki dabee zeuben seme alaba lotsabagakuak eta desbergonzaubak euki dabee leezko munduba, diabruba ta aragia. Begaz, mundubak, diabru-



bak et[a] aragijk ezin euskijuen zeuben seme alabei kalte geijago, besteenei baño. Begaz, mundubari, diabrubari ta aragijari ez deutsazu zubek bere erru geijago ezarri biar seme alaba duka zuzalako, onak, humildiak, justubak, maitiak eta estimaubak daukeezanak ezarten deutseen baño. Seguru egon zaite guziotik, mundubak, diabrubak edo aragijkak ez ditu galdu zeuben seme alabak.

Lotsagaldukotu, edo dongatu ete dira, bada, eurak euren artian, euren bakarrian? Ori bere ez. Berekauten ez da inor dongatutenean. Bakarrian bere ez. Berekauten edo bakarrian inor galdu tekua izan balitz, Moises santuba, Dabid erregia, Elias propeta andija, san Juan Bautista, Madalena, san Anton, san Pablo ta Santa Maria Etxiztia izango zian lotsagaldukuenak, desbengozaubeenak, eta gaistuenak. Bada, eurak dira bakarrian ta eurenez gejen azi ta luzaruen bizi izan dirianak. Begaz, ez dira zeuben seme alabak bere eurenez ta bakarrian gaistotu ta lotsagaldukotu.

Ze mirari izan da, bada, au, kristinaubak? Jangoikuak onak, inozentziak, santubak eta aigerubak emon otsuzan. Arik ona Jangoikuak ez ditu galdu, mundubak bere ez, diabrubak bere ez, aragijkak bere ez, eurak eurekauten bere ez. Zek egin dau, bada, triskantza andija au zeuben seme alabeetan? *Quis semi narit hic zizania?* Leen humildiak; oan soberbijotsubak. Leen zintzuak; oan ardura bagakuak. Leen isilak; oan desbergonzaubak. Leen zeuben bijotzeko maitiak oan zeuben arrabijo ta gorrotogarrijak. Leen zeubentzako arpegiera bigunekuak; oan trumoe illunaren bekokidunak ta oñaztubaren begirakunedunak. Leen zeuben esana egiteko prestak; oan eurei ezer esaten azartutenean ez zarianak. Leen berbeeta gozua, bakezkuak ta pozezkua; oan bidaua, asarria ta errespuesta txaarra. Leen zeubek gura zendubana egiten ebeenak; oan zeubek gura dozun gauzarik bat bere egiten ez dabeenak ta eurak nai dabentzitza egiten dabeenak. Leen zeubek laztan zindubeezanak; oan illda bazengoz bere ardura ez deutseenak. Leen berba donga bat entzuten ez zeuntseenak; oan on bat esaten ez dabeenak. Enpin, leen guztiz onak, santubak, aimjerubak; oan guztiz dongaak, lotsabagaak, gogorrak eta konzienzia txaarrekuak.

Zek allagina engaňau ta itsutu ditu, bada, zeuben seme alabaak? Bildur nas, gurasuak, zeubek galdu ete dituzun zeuben seme alabak! Baña ez nas azartutenean baietz esaten, lelengo paska bat examinatu bagarik. Ia examinatu daigun, bada, iru, lau, zortzi, amar, amabi ta amalau urte ingurura artian, orrako oan andi eginda duka zuzun seme alaba lotsagalduko orrei *zer esan deutseezun, zer erakutsi deutseezun, zer agindu deutseezun, zer parkatu deutseezun*, *zer entzun dotsubeen ta zer ikusi dotsubeen*. Atenzinoia gurasuak.

Zer esan deutseezun zeure seme alabei urte bi edo iru zitubeeneti amabi amalauren ingurura artian? Intenzinoe txaarragaz edo onagaz kasik egunian egunian ta egun bakotxian askotan esan deutseezun: plagiaren izena, barrabasa, arraijua, sekulakua, diabrubua, errementauko al dabela, itoko al dala... batian zeuben ernegazinoiagaz ta beste askotan izkune txaarragaz. Lagun batek deskuiduan txopin bat eginda negarrez ikutsi badozu zeuben umia, altzuan artuta, ondo palagauta esaten deutsazu, *ia zetako arri bategaz musturrik ausi ez deutsazan beste lotsagalduko zaar ari*, edo onako berba txaarren bat. Deskuiduan auzoko persona nausibatek belaarondo-ko bat emoten badeutsa zeure umiari, pikaerdijen bat egin deutsalako, persona aren ta aren jenerazinoe guztiaren kontra ez zara isildutenean gañeko zortzi egunian, zeure umiak daantzubela. Sei urteti aurrera edo leenagotii zeure umiaren paltak gitxitutia, edertutia, ezkuteetia, eurak palageetia ta aboneetia izan da zure zeresan guztia. Guztiak dakienean ta ezkutau ezin dozun pekatu bat egin badau zure semia edo alabiak, aren erruba bere inori ezarten deutsazu. Mutil donegen batek galdu izango dau zeure alabiaren onestidadia. Ordi jokolarien batek engaňau izango dau zure semia, bestelan berez ez daki gauza gatzik egiten. Onakotse bidauak, izen txaarrak, errazoe arruak, bengantzakuak ta euren palagukuak ume guztiak arrotuteko, gaistotuteko, libertade geijago artzeeko eta lotsagalduko izateko asko dirianak dira zeuben umiai iru urteti amabi amalauraño esan deutseezuzanak.

Zer erakutsi deutseezun? Gauza onik bat bere ez; gauza txaarrak asko. Zuben umiak zortzi amar urtegaz bere dotrinarik ez ekien, konpeseetan ez ekien, meza bat entzuten ez ekien ta oraindino bere (trazia daukan) ez dakienean. Ariman probetxu egingo deutseen gauza bat sustanziaz erakutsi ez deutseezun. Ta beste aldeti, bost sei urte ditubenten koloria mudau bagarik esaten ditubee zure umiak, auzuetan ta errijan jazoten dirian endredo guztiak, demanda guztiak, banidade guztiak, nauskontu guztiak ta (lau urte ditubeenien) kanta lojik bere bai, nautsi batek leetxe. Zelan au? Zeubek erakutsita. Ez bere ariaz, ezpada erriko naaste guztiak ta salsa guztiak zeubek umeen aurrian sarri erraparu bagarik kontauta ta eurak esaten ditubeenian, zeubek aua zabalik eurei entzunda, dotrinia esaten balegoz baien bijotz arruagaz. Zeubek esaten dozuna ta egiten dozuna, umiak ikasten dabee. Zeubek eiten dituzu gauza txaarrak ta areek ikasten dabee beste ainbeste. Zeubek ez deutseezun gauza onik erakusten ta areek ez dabee ikasten.

Zer agindu deutseezun? On izateko esaten deutsegu. Ori bada zeuben agindute guztia, ori Turkubak bere egiten dabee euren umeekin. Baña iku-



tsi daigun ia zelan aginduten deutseezun on izateko. Agindutia ta parkatutia era batera artzeen ditut emen. Bada, gurasarentzako bardin da umiari agindutia ta parkatutia. Ia, bada, ze gauza on aginduten deutseezun. Geijenak, jai domeeketan mezia esaten dan artian elexanegotia. Ez meza entzutia (ori ez dakije zer dan), ezpada elexanegotia. *Gurian dotrinia bere ikasi biako da alakoen baten*, esatia. Gauza txaarren bat edo biarren bat oker egiten dabeenian, purijaz bidao bat edo maldezinoe bat jaurteitia edo, alemania bat leezi, ostikada bat emotia, ostera egin ez daijan. *Ez da, bada, gurian aspaldijan inor konpeseetan bere izan*, nosik beñekoena baten esatia. Emen akabeetan dira ausaa zeuben aginduterik oneenak.

Baña, zer beste gauzarik aginduten deutseezu? *Aginduten deutseezu*, edo parkatuteneutseezu titja eraaten dabeeneti, aitari edo amari txopinga egiten ta ozta ikasi dabeen berba dongia lagunari edo nausijuari esaten, zeubek barrez zagozala. Aitak jotera egiten badeutsa, amak palagau ta txistuba eskatu, aita joteko; amak lotsa paska bat emon gura badeutsa, aitak altzuan artuta, amari sinu egiten erakutsi. Oneek dira bularra artzen dabentartekeo lezinoiak. *Aginduten deutsazu*, bost, sei edo zazpi urte ditubeeneko, esanak ondo-egitia gaiti piestara eruatia. Ta apainduta piestara zeubek eruateko, erropa barri bat egitia. Gurasuak ez daukazu beste gauzarik, zeuben ume inozentziak animeetako, poztuteko, biarra ereiteko edo isilik eukiteko, piesta batera, sarau batera, dantzako ibilbatera, bigira batera, erromedija batera edo pekatuko okasinoe batera agindutia baño. Ondo eginaren paguzat eta sarizat aginduten deutseezu sei, zortzi, amar eta amabi amalau urteko umiai pekatuko lezinoia, pekatuko eskolia, pekatuko lagunak eta pekatuko okasinoiak. Piestara bialdutia aginduten deutseezunian, aginduten deutseezu zeuben umiai itxiko deutseezula, pekatu zelan egiten dan ikasten, pekatubak egiten, lotsagalduban, nasaitasunian, errespeto bagarik, onestidade bagarik Jangoikuaren bildur bagarik, pekatu mortalian banidade, engaňu ta malezija guztiagaz bizi izaten. Au aginduten deutseezu zeuben umiai piestara, erromedijara, saraura, komedijara edo bigirara aginduten deutseezun guztian. Gauza onen gañian ikutsi dot zerbait geijago eskribiduta gere euskeeran, argitaratrateko ustia gaza an topauko dabee geijago nai dabeenak.

Zer parkatu deutseezu? Parkatu deutseezu, esan dan edadeti asita, diabruba, barrabasa ta demoninua esaten edo alemania bat i edo lagun bat i edo nausijago bat. Parkatu deutseezu, auzuetaukai lotsia galtzeen, erantzuten edo areek gaiti gaiski esaten. Parkatu deutseezu zeubeen gogoko ez dan auzuari kalte egiten, ta bengeetan edo ume txikarretan edo ganaduen baten edo soluan edo basuan. Parkatu deutseezu zorti amar urteti

inguruban dirian nauskontubak, endreduak, salsaak, banidadiak, ezkontzaak, neska mutileen arteko tratubak, amoriak ta beste enbusterija guztia esaten. Dirianak kontetan ditubee zuben umiak zortzi bereratzit urte daukeezaneko, nausi batek baisen ziatz, zeubek arro arro eginda entzuten zagozala. Lastimia! Dotrinia ikasten dira atzeratxubak, eze zuben umiak baño obarik eta akordaubagorik ez dago inun bere.

Zer parkatuteneutseezu? Parkatuteneutseezu biar ez dan moduban ta tokeetan etxakuen moduban, janzten. Elexarako balitz, dezenzijaz janztia gauza ona da. Baña piestarako, plazarako, saraurako, bisitarako, muniduba, diabruba, aragija ta banidadi serbietako da zeuben umeen apainduri ja soineko desonestidade guztxi txikitati. Kolpe andi bat gero egingo dabeen senalle agirija da au. Ta orraitino gurasuak eurak tatarraska, elexarako dezenzija bagarik geratuta, zorrian edo lorrian apainduteneutseezu umiak ta eurak euren eskubekin jantzi ta inguru guztietati zelan dagozan begiratuta, *aurra, zuaz lagunekin* esanda, bialduteneutseezu zorti, amar, amabi urteko umiak pekatu guztia ikasteko ta egiteko lekubetara ta lagunetara. Parkatuteneutseezu juan edo etorri, egon edo ibili nai dabeen orduban, nai dabeen moduban ta nai dabeen lagunagaz egiten ta endamas domeeka ta jai santubetan. Ta au amabi, amalau, amasei urte ditubeeneti aurrera. Mailezija begijak edeten asten daneti aurrera. Mutilai neskeekin ta neskai mutilekin ibilten isten deutseezu gabak denporak emonda bere, zeubek onto ta zuzen dakizula areek zer egin al lejen. Oh, ze eskola garbia erabiliko dabeen! Oh, ze lezinoe onak ikasi biar dituben!

Parkatuteneutseezu pekatu mortalian egoten. Bada, aitak eta amak jakin arren zuzen semia ta alabia pekatu mortalian dagozana, pekatu mortalista eta gauzia eurak entzun edo ikutsi deutseelako, ez deutseearen gañian lelenguan agiraka paska bat baño egiten, urte bete osuan konpensau bagarik badagoz bere. Ez deutsee minik emoten gurasuai, seme alabak pekatu mortalian egonak.

Zer entzun dotsubee zeure umiak? Bidauak, maldezinoiak, purijazko errazoe txaarrak, andiarizko, banidadezko eta arrokerijazko berbak, zeure gaztetako pekatuzko desapijuak eta panparrerijak, murmurazinoiak, berdekerijak eta desonestidadiak. Entzun dotsuben guztia edo geijena luxurrijarena, enbidijarena, kodizijarena, banidadiarena edo bengantziarena. Edo zeure kontra edo emaztiaren edo senarraren kontra edo umen kontra edo gurasuen kontra edo seniden kontra edo auzuen kontra edo andijien kontra edo pobreen kontra edo praireen kontra edo abadeen kontra edo... geijenian entzun dotsubee zuri umiak pekatuzko berbetia.



Zer ikusi dotsube zeure umiak? Jai domeeketan mezia esaten dan artian elexan egotia; (askotan ardura aindi bagarik mezia bere uts eginda), erro-sario bat erdi luan edo prisaka nosbait errebetia ta urtian bein edo birritan ozta konpeseetara juatia. Ara emen ikusten dotsubean gauza onok. Ta zer ikusten dotsubea? Etxian ta kanpuan agirakia, zitalkeria, bake txaarra, tabernia, ordikeria, probia, desapijua, jokua, okasinoia, piestia, dantzia, bigiria, sarauba, bisitria, modia ta kasik kasik pedebagako baten bizi-moduba, zeuben umiak ikusi dotsubea. Berba baten, agindutene jakue umerik geijenai biarra egiteko; endamas baserrijetan ta esaten jakue lapurretan ez egiteko. Au bere ez beti. Bada, kale aldeetan bizi zarianok umiak alperrerrian azten dituzuna ta lapurretak bere parkatutene deutseezuzana, gauza agiri da. Kaleko umia baseerriruz urten ezkerro, zazpi zortzi urtekua izan arren, nekez etxera juango da, edo artuburu bat edo gaztina batzuk edo sagar batzuk edo kalabaza bat edo aza bat edo esiol bat edo beste gauzaren bat oostu bagarik. Ta aitak eta amak ondo esanda artzen deutsazu pozik alan oostuta dakarrena.

Ara emen bada, kristinaubak, entero asko uts egin bagarik esanda,orrako guraso zaar seme alaba donegekin iraun ezin dozun errukarrijok, zeuben umiari urte bi edo iru zitubeeneti emeretzi ogei urte dituben artian, euren buruben jaube egin artian, zeubek baño senduago ta andiago egin artian, *esan deutseezuna, erakutsi deutseezuna agindu deutseezuna, parkatu deutseezuna, entzun dotsubea ta ikusi dotsubea*. Guztia maldadia, guztia libertadia, guztia lotsagaldukokeria, guztia nasaitasuna, guztia pekatuba, guztia diabrubarena, guztia mundubarena, guztia aragijarena. Gauza on bat bere ez sustanziaz; ta donga guztia sustraiz.

Zer egingo dozu, bada, oan, seme alaba lotsabagaak daukazuzan zaar tristiak? Zeubek baño indar geijago daukee ta ya eskura ekarri ezin zinaiz. Justizijaren bildurrik ez daukee; egun batzubetan karzelaan egon arren, ardura ez deutsee. Konpessoriak ezer ezin lejue; asolbizinoia ukatu arren, penarik artzeen ez dabee. Sermoe batera juaten badira, sermoiari ta sermoeginari burla egiten deutsee. Zer egingo dozu alako umiak daukazuzan gurasuak? Zegaz kenduko dozu zeuben bijotzeko pena gogorra? Ara, gurasuak, gatxori kentzeeko botikako bakarra. Beste erremediorik ez dago. Zer, bada? *Isilik egon ta padezidu*. Seme alabak dongaro azi dituzulako, guztia ta geijago zeubek merezietan dozula sinistu ta *isilik egon ta padezidu*. Seme edo alaba gaistuak bida bat egiten badotsu, *isilik egon ta padezidu*. Sorgina edo barritsuba esaten badotsu, *isilik egon ta padezidu*. Zeure leenaoko paltak edo gaztetan agertu jatzuzan deskuiduak arpegijan esaten badotsuz, *isilik egon ta padezidu*. Ill arren palta andirik egiten ez

dozula esaten badotsu, *isilik egon ta padezidu*. Purijaz sakatu bat edo bota-kada bat egiten badotsu, *isilik egon ta padezidu*. Belaarrondoko bat eskini edo emoten badotsu, *isilik egon ta padezidu*. Arto puska bat oian nekez zagozan lekura borondate txaarragaz jaurteiten badotsubee, *isilik egon ta padezidu*. Bekoki illuna ta arpegi zitala beti iminten badotsube, *isilik ego[n] ta padezidu*. Txakurrak entzun ezin leizan errazoiak, lantzian lantzian esaten badotsubez, *isilik egon ta padezidu*. Eskian ibilita, gaisorik egonda edo ospitalian zagozala, kasurik egiten ezpadotsubee edo bisitetan ez bazaitubee, *isilik egon ta padezidu*. Euren moduko neskak eta mutilak gabian etxera ekarrita, zeure aurrian edo oian zagozala, milla pikaerdija egiten badi-tubee, *isilik egon ta padezidu*. Zeure semiak edo alabiak ezkondu baño lee-nago bat edo bi nor mantenidu etxera ekarten badotsubez, *isilik egon ta padezidu*. Erri guztia zeure seme alaben maldadiak esaten gorrotoz ikus-ten badozu, *isilik egon ta padezidu*. Justizija etorten bajatzu gabaz edo egunaz zeure semia edo alabia karzelara eruatera, *isilik egon ta padezidu*. Zure umiak egin dituban pikaerdijk gaiti eskribauba etorten bajatzu etxian dozuna enbargetara, *isilik egon ta padezidu*. Zeure semia edo alabia deste-rrau dabeela edo urkamendira daroiola entzuten badozu, *isilik egon ta padezidu*. Zeure semia edo alabia inpernuban erreetan dauala jakiten badozu, santa Brijidak eta san Jeronimok esaten dabeenak leez, *isilik egon ta padezidu*. Ta gero zeu seme alabeekin inpernura juaten bazara, Arbiol jakitu-nak dinuana leez, an bere *isilik egon ta padezidu*.

Zeubek zeuben umiak desbongonzau azi dituzu, zeubek lotsagaldo-ko azi dituzu, zeubek galdu dituzu; bada, oan zeubek *isilik egon ta padezidu*. Jangoikuak zuzenak, humildiak, inozentiak, onak eta santubak emon otsuzan batiatu zirianian. Zeubek txiki txikitati gauza txaar guztiak eraku-tsi, gauza txaar guztiak esan, gauza txaar guztiak parkatu ta gauza txaar guztiak esan deutseezuz; bada, oan *isilik egon ta padezidu*. Au izango da zeuben gatxaren konsuelo bakarra: *isilik egon ta padezidu*.

Ara kristinaubak, seme alaba lotsabagak daukezan guraso zaarrak zelan konsolau leitekezan erakutsita, nai badabee artu konsuelo au. Ta oraindino ez aaztu, umiak dongaro azijagaz egin dituzun pekatu guztiak; zeure ume gaiski azijak egin dituben pekatu guztiak; oan zaartzan aren kon-tra egiten dituzun bidao ta beste pekatu guztiak, zeure umiak zeuben kon-tra egiten dituben guztiak ta beste auzuetakua ta errkuai zure ume lotsa-baga gaiski azijak erain deutseezan pekatu guztiak pageetako daukazuzala.

Alako guraso baten konsuelua geituteko, esango dotsut Arbiol leen izentau danak dinuana. Gurasuak gaztetan atzi ebeen libertade andijan alabia. Beste nasaitasun askoren artian, erakutsi eutseen edo parkatu



eutseen besuak eta bularrak agiri zitubala jantzita ibilten onestidade bagarik. Gero erremedijau gura izan ebeen gurasuaak alabiaren jantzi desonestuba, baña alperrik. Eldu zan ezin geijagoraño alaba gaiski azijaren atrebimentuba ta esan eban azkenian soberbijaz: *Onan nai ez banau Jangoikuak, bota najala nai daben lekura. Bada, nik neure gustua kunpliduko dot ta ez nas beste modutan jantzita ibilikoa.* Au esanagaz batera, Jangoikuak ill eban neska gaiski azi zorigestoko a. Enterrau eben elixan aren gorputza, baña gabian sepulturiak kanpora bota eban neska aren gorputz illa. Bere aitak andi artuta bota eban itxasora; ta itxasuak bere nai ezda, bota eban kanpora. Aitak ikusi ebanian ez lurruk ta ez itxasuak euki gura ebeela bere alabiaren gorputz illa, asariaren subagaz ta purijagaz esan eutsan alaba illari: *Bada, Jangoikuak ez luurak nai ezau ta demoniuak eruan daijala ire gorputza inpernubetara.* Au aitak esanagaz batera, etorri ziran demoniuak ta eruan ebeen gorputz lojia inpernuban euan arimiagana.

Kristinaubak, ara sermoe onetan ispilla argi bat, guraso guztiak ikusi daijezan klaru euren ta euren seme alaben bizitzak eta arimak. Eskatu daijogun zeruko Jangoikuari, egija oneek ondo aituteko ta gordeetako argija ta grazija, Jesukristo geure Jaunaren pasinoe santuba ta Ama Birjinaren grazijazko erraija bigunak gaiti, guraso ta ume guztiak jadiitxi daijen zeruko bendizinoia ta eternidadeko gloria. Amen.

Gurasuak jakin biar dabee,
txit ondo dabeela merezidu,
umiak gaiski azi ezkero,
isilik egon ta padezidu.

Laugarren mandamentuko dotrinak imini ditudanian, ikusi dot sermoe au eskriduta; ta pensau dot, imini biar dodala euren ondorik, bostgarrena asi baño leenago.

[BOSTGARREN MANDAMENTUBA]



BOSTGARREN MANDAMENTUKO LELENGO LEZINOIA

zeñietan erakusten dan
lelengo, noberaren bizitzia ez galtzeia gaiti,
nos eta zelan ill eijan projimua.
Bigarrenian, deskuidozko erijotzaak ia pekatu dirian.
Irugarrenian, zelan pekatu eiten dabeen,
bata bestia joteko okasinoietan sartzen dirianak.

Bostgarren mandamentuban agindutenean dosku Jangoikuak, ez inor ilteko. *Non occides*. Mandamentu onetan eraozten da Jangoikuak, proximari bizitzan edo gorputzian kalte egitia. Projimuaren izenagaz aituten dira gizon eta emakume guztiak, lelengo mandamentuko zazpigarren dotrinan esan zan leez. Ta baita amaren sabelian sortuta jaijo bagarik dagozanak bere, bautismoko sakramentuan esango dan leez. Proximo guztiak enzerretan ditu bostgarren mandamentubak, ta edozein bere proximori, justiziek eskubidua emon bagarik bizitzan, osasunian edo gorputzian kalte egitia da bostgarren mandamentu santuba austia.

Esaten da: *Justiziaren eskubide bagarik*. Bada, jueza da onai sarija ta dongai kastiguba emon biar deutseena; ta bagoz pekatu batzuk, ain andijak eta itxusijak, eze areek egin ditubanak ez dau merezietai bizi izatia, ezpada iltia. Alan agindu eutsan Jangoikuak Israeltarren juezari, Moisi: *Ez ejuela itxi donegi bizi izaten; ill eizala*. Juezari tokeetan jako, bada, gizon edo emakume bat azoteetako, urkatuteko, erretako edo kastigetako agindutia. Alan borregubak eta soldaubak (gerraan) gizonak ill arren, ez dabee pekaturik egiten.

Onezaz ostian asko dagoz bostgarren mandamentuan, kristinaubak jakin biar ditubanak. Bada, ill lei proximua, edo guztiz akabeetaiko intenzinoiagaz edo kolpe batzuk emonda isteeko ustiagaz; edo noberak bere eskubekin, edo inori aginduta; edo malezijaz, edo deskuiduan. Ill lei, edo nobera ill gura dabelako, edo kleituba galdu gura deutsalako, edo zerbait oostu gura deutsalako, edo onestidadia galdu gura deutsalako. Ill lei edo kalte egin leijo projimua, jan eran laurregi emonagaz ta beste modu askotara. Proximua gaiti esaten dana esaten da noberaren buruba gaiti. Ta egitia gaiti esaten dana, desietia gaiti. Bada, bostgarren manda-

mentubak noberaren ta proximuaaren bizitzako ta osasuneko egite txaa-rak eta desio txaarrak, guztiak eraozten ditu. Guztiari asieria emoteko, esango dotsut dotrina onetan: 1º *Ia noberaren bizitzia zaintutia gati, proximua ill lejan*. 2º *Ia deskuidozko erijotzaak pekatu dirian*. 3º *Ia alkar joteko okasinoetan sartzeen dirianak, pekatu mortala egiten dabeen*. Proximua, bai adiskidiak eta bai arerijuak, zelan amau biar dirian esan da lelengo mandamentuban.

I.

Ez dago bada, neure kristinaubak, ezer bere grazijaz ta salbazinoiaz ostian, bizitzia baño gauza estimaubagorik. Beste edozein bere gauza padezietara leenago etorten da kristinauba, illtera baño. Askok esan leije: *Onan bizi baño illda egon oba da*. Baña erijotziaurrera eldu ezkero, guztiak bizi gura leukee. Ta deskuiduan norbaitek bere buruba ito edo urkatu badi, alakua gaiti esaten da edo euala guztiz desesperauta edo euala zoratuta. Santu ta santa batzuk topeetan dira bakarrik, erijotziaren bildurrik ez eukeenak ta Jangoikua laster ikusteko desia gaiti iltia desietan ebeenak. Ta orregaiti, bizitzia dan leez luurreko gauzeen artian estimau-beena, iltia da proximuarri egin leijon kalterik andijena.

Karidade egijazkua noberaganik asten da. Edozein bere premina ta nezesidate bardinetan, noberaren buruba leenago da proximuaarena baño. Alan, izan arren poximua iltia berez pekatu andija, nobera illtera datorren proximo dongia, bestelan bere bizitzia librau ezin dabenian, ill lei. Donga bat badua kutxiluagaz, ezpatiagaz edo eskupeta bategaz zeu illtera ta inundi bere librau ezin badozu zeure bizitzia, ez ondo esanagaz, ez iges eginagaz, ez kolpe batzuk emonagaz, orduban ill zinai zeure areriju, aren bizitzia baño zeuria leenago dalako. Etxako desia biar iltia, etxako desia biar kondeneetia, etxako desia biar bengeetia, ezpada noberaren bizitzia gordeetako duiña egitia. Ta areriju ill bagarik librau ezin bida, a iltia ez da pekatu.

Egija da, zeu illtera datorrenaren estadu errukarrija ikusita, a betiko kondenau ez dein zeuk alan illda, itxiko bazeuntasa berari zeu ilten zeuk bera ill bagarik, egingo zenduke Jangoikuaren aurrian karidadezko obra andi bat. Au izango litzateke arerijuaren arimako ona gaiti nobera iltia. Karidade andija. Baña onetarako, noberak egon biar dau grazijan. Bada, nobera pekatu mortalian dauala, ezin itxi leijo bestiari ilten, bizirik librau al della. Au da santo Tomas eta beste Elexako maisuben dotrinia.



II.

Onezaz ostian, jazo leiteke ustez uste bagarik edo deskuiduan proximo bat iltia, edo tiro bategaz, edo arri bategaz, edo beste deskuidoren bategaz. Deskuidozko ta intenzinoe txaar bagako erijotzak nos pekatu dirian jakiteko, dino santo Tomasek, gauza biri begiratu biar jakuela. Erijotzia egiten daben deskuidozko azinoia bada berez ona ta egiten bada noberagan dana inor ez ilteko, ez da orduban pekaturik egiten, deskuiduan proximua ill arren. Mediku batek deitxon erremediju gaixuari emotia gauza ona da; ta menturaz erremediju dala uste dabengaz ilten dau gaixua, baña ez dau pekaturik egiten medikubak, beragan dana egin ezkerro. Berezko azinoe oneti ta inoren erru bagarik erijotzia jazoten danian, ez da pekaturik egiten.

Erijotzia jazoten bada inor ilteko pelleburuzko azinoe txaarreti, orduban, kuidado guztia imini arren inor ez ilteko, pekatu da deskuiduan proximua iltia. Alan, menditi beera arri bat boteetan badozu zelan doian ikusteko gustua gaiti, aleginagaz zuk begiratu arren ia inor parian dauan, deskuiduan inor azertetan bada ta joten badozu edo banatuten badozu, egiten dozu pekatu mortala. Igirijan edo ugar ondo ez dakijena sartzeen bada ura andija ala txikija dauan ez dakijan ibaijan, egiten dau pekatu. Kristinauba ill edo banatu leitekian zepo bat iminten dabenak, pristija bat artzeeko izan arren, jentia dabilen edo ibili leitekian lekuban, inok ondo ikusi ezin daben moduban, egiten dau pekatu. Azinoe oneek dira inor ilteko pelleburuzkuak ta biar ez dirianak; ta orregaiti alakuetati jazoten bada deskuiduan inor iltia edo banatutia, pekatu da.

Onankuen artian iminten dabee Alejandro irugarren Aita Santu Errromakuak eta san Antoninok ta esaten dabee, amak edo seinzainak, beragaz oian daatzala itoten badau seiñ, egiten dabela pekatu. Zerbait inok oostu ez daijon, ultziak ortuban edo soluan imintia, errijari edo auzuei jakin erain bagarik, pekatu da. Ta jakin erainda bere, ez da ondo. Bada, ez dakijan urrineko batek, ta ezer oostutera ez doian batek euki lei andi irago biarra, ta geratu leiteke mankauta. Deskuidozko erijotzen gañian esaten dana da bada, neure kristinaubak, gauza on bat egiten diar-dubela, noberaren erru bagarik jazoten bada inor iltia, ez da pekatu ta libre dago Jangoikuaren aurrian erijotzia egin dabena. Baña inor ilteko pelleburuzkua dalako eraotzita dauan gauza bat egiten badau ta andi jazoten bada erijotzia, deskuiduan ta ustez uste bagarik izan arren, pekatu da.

Emeti ezautuko dozu zelan portau biar dozun, alan inor deskuiduan ilteko edo banatuteko pelleburuba daukeen gauza txaarretan.

III.

Nobera edo inor ilteko okasinoietan sartzen dirianak austen dabee bostgarren mandamentu santuba. Onakuak dira: Lelengo, lapurretarra duazanak, zein gabaz ta zein egunaz, zein etxeetara ta zein bideetara. Bada, lapurretarra doia nak, inor ilteko intenzinoerik eruan ez arren, estutten badabee ta norbait illda edo banatuta librau al badai bere buruba, egingo dau. Beste aldeti, lapurrak urteten deutsana edo etxera jatorkozana, lapurra illda edo mankauta gorde al badai bere gauzia ta librau aren eskubetati, geijenian egingo dau. Orregaiti, lapurretarra doianak beti darua arriskuba, edo inor ilteko edo banatuteko, edo bera banatuta edo illda geratuteko. Alan lapurra ilten dabenak, pekatu egiten daben edo ez, esango da geroko dotrinaan. Baña lapurretarra doianak pekatu egiten dabena, ez bakarrik zapzigarren mandamentubaren kontra ezpada baita bostgarren mandamentubaren kontra bere, gauza jakina da. Bigarrenian, burru-karijak, makilakaarijak ta okasinoetsubak pekatu eiten dabee. Ta modu askotara: 1º Alkar banatuteko (ta ilteko bere, sarri jazoten dan leez) pelleburuban jarten dirialako. 2º Egiten dabeen baño bere gatx geijago egiteko intenzinoia daukeelako, al baleije, alan burruka diardubeenak. Eurei begiratuta agiri da amurratu baten itxuria daukeena, peliadaan dabizanian. 3º Alako okasinuetati geratutenean jakue alkarren odijua ta gorrotua ta oste-ra bere bengeetak desia. Egiten ditubee desapijo barrijak ta egoten dira luzaro eriaren zain, alkar joteko. Au guztia pekatu mortala da. 4º Alako okasinoiek etxeko pamelijari emoten deutsee atsekabia, bake txaarra ta kastu alperrikakua. 5º Errijken emoten dabee zerosana, eskandaluba ta askori naibagia ta buruko mina. Modu oneetara guztieta egiten dabee pekatu mortala, ez bat, ezpada asko alako gizon edo mutil burrukarrijak, makilakaarijak eta okasinoetsubak. Beti dagoz alakuak pekatu mortalian ta inok bere asolbidu ezin leiz, ekandu gaisto ari itxi artian. Bada, beti dagoz prest okasinoerako ta esan dirian kalte guztiak euren burubai ta inori ekarteko. Eurak esan oi dabeen leez: *Nik okasinoia emon ezkerro, inori bere ez parkatu.*

Alako inori bere ez parkatuteko oitura inpamia daukeenak, berba erdi bat oratuta, lekuban lekuban etaratenean dabee okasinoia. Bakia gura dabeenak ez dakije euren aurrian zer esan. Bildur diriala dagoz, laster auti



berbia artuta, okasinoia emon ez daijuen. Ta bago au baño kondezinoe inpamiagorik edo prestubezagorik giza arterako? Dudau lei, ia alako lagunekin trago bat eraa tera juatia pekatu dan edo ez. Ta puska bat examinau ezkero deitxat, geijenak esango leukeela pekatu dala, inundi apartau al della, alako lagunagaz trago bat eraaten batzeia. Batzuk uste dabee, ta esan bere eiten dabee, *lapurra ez dan guztia dala lagun ona.* Ta okasinoetsuba, burrukaria ja beste pekatu dirian gauza asko euki arren, azunbre bat ardaio kastetan badaki premina bagarik, a gaiti esaten dabee *gizon ona dala, prestuba dala, giza artekua dala; tentau ezkero okerra dala, baña osterantzian on ona dala.*

Amar mandamentu dagoz, kristinaubak. Lapurretia areetati bat da. Lapurra izan ez arren, beste mandamendubak alan agirian austeko ekan-duba daukana, lapurra baixen lagun txaarra da. Lapurrik baño pekatu geijagotan sartu lejjan laguna da. Lapurrik baño arima geijago kondeneetan dituben lagunak dira alako okasinoetsubak, makilakaarijak, kastalarrijak, jokolarijak, auzilarrijak, etxia zorrez beteta, emaztia ta umiak gosiak illik ta erdi biloxik daukeezala, erijarik erija, traturik tratu, probarik proba, tabernarik taberna dabizanak. Ze lagun izango dira berdekeria, desonestidadia, diabrubaren ta demoninuaren izen txaarra, burrukia, desapijua, jaatia, eraatia, orditutia, jokua, asmo txaarra ta alperrerrija jai ta aste gura leukeen perdularijuak? Oneek badira lagun prestubak eta ondraubak, onetarikoz beteta dago inpernuba; ta ez daukee araxe juan baño, lagun oneekin ego-tera. Bizijo madarikatu onek ain indar andija artu dau gure errijetan, eze esan al dein guztia da gitxi, alperrak eta okasinoetsubak merezieta dabeen gorroto mortala zuben bijotzetan iminteko. Eskatu daijogun Jangoikuari miserikordia... Amen.

BOSTGARREN MANDAMENTUKO BIGARREN LEZINOIA

zeñetan erakusten dan
lelengo, ia kleituba gaiti inor ill leijan.
Bigarrenian, ia onestidadia gaiti inor ill leijan.
Irugarrenian, ia ondasunak gaiti inor ill leijan.

Esplikau ezkero leengo dotrinan inorena baño noberaren bizitzia leenago dana, deskuidozko erijotzak zer dirian eta gizon okasinoetsubak zelan pekatu egiten dabeen, erakutsi biar jako kristinaubari, ija *kleituba gaiti, onestidadia gaiti edo ondasunak gati ill leijan inor,* pekatu egin bagarik.

I.

Egija esateko, irurak dira txito gauza estimaubak. Ta kleituti asita, esateko bakotxa bere lekuan. Kristinau batek bere zuzentasunagaz ta bizimodu onagaz irabatzi daben kleituba asko estimeetan dau. Kleituba ta pamia galdu ezkero, mundubarezat zer galdu andirik ez dauka kristinaubak. Kleitu ona daukana, bera ez galtzeia gaiti, inori zer esanik ez emotia gaiti, sarritan apartetan da gauza txaarrak eta zaatatsubak egiteko okasinetuati.

Ez dau alperrik esaten Espiritu Santubak kleitu onari begiratuteko. Bada, bere kleitu ona nai dabena aparteetan [da] lotsatuko dan gauzeetati ta oituten da, leenago kleituba gaiti egiten zituban gauzaak, gero Jangoikua gaiti egitera ta au da kristinaubaren on izate ta kleitu egijazkua. Bein kleituba galdu ezkeroko gitxi ikusi dira onduta. Geijenak bai leen baño lotsa galdukuago, atrebidubago ta edozeinbere gauza txaar egiteko prestago. Begiratu begiue zerbait gaiti justizijk kastigau edo desterrau dituban guztiai ta alan ikusiko da.

Izanik, bada, ain asko estimeetan dana kleituba ta ondria, jazo leiteke ta jazoten da askotan, guzur ta enbusterija bategaz kleituba ta injuriya andiko burla bategaz ondria galtzeia. Ta orregaiti itanduten da, ia kleituba ta ondria zaintutia gaiti inor ill leijan. Esango balitz leez: Bakizu zuk zuzen, zeure areijo bat guzurragaz ta enbusterijagaz zeuri kleituba gal-



tzeeko bidiak egiten dabilena ta bizirik isten badeutsazu, erremedijo bagarik kleituba galdu biar dotsuna; ia persona a iltia, zeuri kleituba galdu ez daizun, pekatu dan edo ez. Ta erantzuten da pekatu dala, kleituba gaiti inor iltia. Elesa Ama santiak erabagita daukan dotrinia da au, neure kristinaubak. Ya inok bere ukatu ezen lei, Elexiak erakutsi ezkerro. Bada, kleituba ta ondria izan arren balijo andikuak, geijago balijo dabena da proximaren bizitzia. Kleituba ta ondria erremedijau leiz paska bat juezaren aurreti eta nobera on izanagaz; baña bein illezkerokua ostera biztu ezin lei. Inoren guzurrik eta enbusterijkak mundurako galdu leijo bati kleituba; baña Jangoikuaren aurerrako galdu ezin leijo. Jangoikuaren aurrian guztioi agertuko gara garian moduban. Enbusterubak enbusteruben moduban, guzurtiak guzurtijen moduban, dongaak dongen moduban ta onak oneen moduban. Kleiturik oneena ta segurubeena da konzienzia garbia. Au daukanari, mundubak guzurragaz kleituba galdu arren, Jangoikuak biurtuko deutsa oso osorik zeruko, munduko ta inpernuko guztien aurrian. Ez da, bada, kleituba inor ilteko duina balijo dabena. Orregaiti kleituba gordeetia gaiti inor iltia pekatu da.

II.

Onestidadia edo birjinidadia da, neure entzula onak, beste gauza bat bai zeruban eta bai luurrian txito asko estimeetan dana. Ez bakarrik kristinauben artian, ezpada baita arako Jangoiko bagako jentil nasaijen artian bere birjinidadia ta onestidadia adoreetan zitubeeen jentilak, Jangoiko batzuk balira leez. Birtute estimau oni jasoten eutseezan tenplubak, egiten eutseezan altaraak ta imini eutseen izenzat: *Egijaren lekuba*. Birjinidadiari eutseen errespetua gaiti, beste askoren artian imini ebeen Erromako jentilak lege bat, zeinek eraozten eban birjina zian emakumiai injuria txiki bat bere egitia. Lege au kontuz gordeetia gaiti, Seianen alaba birjiniak iltia ondo merezietaen eban gauza donga bat egin ebanian, ez zian juezak atrebidu ilteko setenzieta emoten, lelengo birjinidadia galdu erain bagarik. Alan opizjo bijak egin zituban borregubak emakume desbentrua agaz. Jentilen artian ainbeste estimeetan bida onestidadia ta birjinidadia, kristandadian milla bidar geijago estimeetan da.

Zeruban estimazinoerik andijena daukan birtutia, birjinidadia da. Orregaiti esaten dau san Juanek, birjinak jarraituen deutseela Jesus zeruko Bildots maitiari doian leku guztira. Kristinauben artian ez dago inor bere birtute oni enbidija ez deutsanik. Galdu dabeenak sentietan dabee

euren artian, ez dakit zelako lotsa bat eta pena bat, sekula bijotzeti kendu ezin dabeena. Ta birtute onegaz jantzita dauanak erakusten dau lagun artian buru eitxi bat eta kontentu bat, balijo andiko gauza baten jaube dana ondo aituten emoten dabena. Ez beste gauza gaiti au, ezpada Jangoikuak berak gizon eta emakume guztien bijotzeten silluba ezarrita itxi ebalako birjinidadiaren ta onestidadia amodiju ta baliju. Errazoiagaz, bada, emakume askok estimeetan dabee birjinidadia ta onestidadia, munduko ondasun guztiak eta euren bizitzia baño bere geijago. Ta emeti etorten da dudia, ia emakume batek, berari birjindadia edo onestidadia galdu gura deutsan gizon bat iltia pekatu dan.

Esaten da, bada, san Agustinegaz, onestidadia edo birjinidadia daua la noberaren borondatian, ta nai ez dabenari inok bere kendu ezin lejola. Orregaiti dino santubak berak, *munduko legiak librau arren kastiguti alako eri-jotzia egiten daben emakumia, Jangoikuaren legiak libreetan dabela esateko, ez dot errazoierek topeetan*. San Agustinek dinuanez, birjinidadiaren izatia dago borondatian; borondatia da bere leku nautsia; borondatiak nai ez dabent artian, ez dau inok galtzeen birjinidadiaren koroia. Borondatian dauen gauzia inok bere kendu ezin leijo, nai ez dabenari. Ill leije, zatitu leije, erre leije, baña nai ez dabenari nai erain ezin leijo. Begaz, emakume bat onestidadia mundu guztiak bere kendu ezin leijo. Begaz, ez dago errazoierek, birjinidadia edo onestidadia gaiti inor ilteko. Egija da, emakume batek alako lantze estuban ilgo baleu gizon bat, juezak ez leuskijo ezer egingo; baña pekatu egingo leuke, berak gura ez dabela inok galdu ezin lejon ta kendu ezin lejon gauzia gaiti, proximua il dabelako.

Euren burubak garbitutia gaiti ta pekatubak edertutia gaiti beste gauzarik esaten dabeen emakumiai, etxakue sinistu biar. Ta, ojala sinistuko ez balitxakue! Onestidadia ameetan dabent emakumiari, garbi izan gura dabenari, Jesus openditu baño bizitzia galdu bere naijago dabenari, ez deutsa Jangoikuak inos bere grazija palteetan. Danik lantzerik estubeedea ta okasinoerik andijena iragoko dau, berak nai badau, birjinidadiaren ta onestidadia edertasuna ta merezimentuba gitxitu bagarik. Subak amatauko ditu, itxasuk agortuko ditu, otsuak mantotsuko ditu, edo aingerubak bialduko ditu Jangoikuak, biar bada, bera bijotz guztiagaz ameetan dabent emakume garbi bati inok onestidadia galdu ez daijon. Irakurri bitez santa Ursula ta aren lagunen, santa Inesen, santa Luzijaren ta beste donzella garbi guztien bizitzak, ta an ikusiko da zeinbat miraari andi egin dituban Jangoikuak bere espouseen garbitasuna ta onestidadia zaintuteko; ta zelan sekula, borondate ta bijotz garbija daukan emakumiari kalterik egin ez deutsan gizonezkorik atrebidubenak. Isildu bitez, bada, emakume



loijak, lotsatu bitez onestidadia galdu dabeenak ta esan beiye, eurak nai ebeelako, eurak gura ebeelako, euren borondatez mantxau ebeela arimia ta galdu ebeela onestidadiaaren loria. Pekatu da, bada, onestidadia gaiti inor iltia. Egija da, beragan dan guztia egin biar dau bizitziak dirauba artian, gauza txaarrik egiten inori ez isteko. Ta ain Jangoikuak bere eskuti itxitakua balitz gaiski eragin gura deutsana, zein da iltara doian pekatu egingura ez dabentz emakumia, orduban nobera ill ez daijan, ill lei alako gizon galdua, leenaoko dotrinaan esan dan leez. Baña onako lantze estubak esan egiten ditubee emakumiak, jazo nekez.

Dotrina onetati etaratzen dana da: 1º Nai ez dabentz emakumia, ez deutsala inok pekatu eraiten. 2º Inori erru guztia ezarrita, euren burubak garbitu gura dituben emakumei etxakuela sinistu biar. 3º Pekatu eiten ezpadau ilgo dabela gizonezkuak esan arren pekatu eiten istia, pekatu dala. 4º Birjinidadia ta onestidadia dirian leez nai ez dabentz emakumia, inok kendu ezin leiozanak, areek gaiti inor iltia pekatu dala.

III.

Ondasunak dira beste gauza batzuk asko estimeetan dirianak. Sarritan jazotzen da, edo alidian, edo etxian, edo beste leku baten daukazan ondasunak inok oostu gura izatia ta oostutia. Ta emeti etorten da dudia, *ia lapurreta datorrena ill lejjan pekatu egin bagarik, bere gauzaak oostu ez dajozan*. Oni erantzuteko jakin biar da lelengo, gauza batzuk dagozala Elexa Ama santiak erabagita ta beste batzuk Elexako maisubak examinauta. Elexa Ama santiak erabagita dago: 1º Jazo oi danez, urrezko eskudo batgaiti inor iltia pekatu dala. 2º Gero eukiko ditugun, baña oraindino ez daukaguzan gauzaak oostutera datorrena iltia, pekatu dala. Berbigrazia: Bakit eun dukat neuri emoteko daukeezana, baña oraindino ez deusteez emon; bada, areek oostu ez daizan inor iltia, pekatu da. 3º Noberari tokeetan jakon aziendia edo ondasunak, auzijagaz edo osterantzian eraotzi ta atzeratuten deutsana iltia, pekatu da. Onetan ez dago dudarik.

Ta onezaz ostian bere esaten da, ondasunak gaiti beste bagarik, ondasunak andijak izan arren, ezin inor ill lejala. Alan erakusten dosku san Agustinek, dinuanian: Ze modutan pekatutti librauko da, galdu biako dabeen ondasunak gaiti inor ilten dabena? Elexiaren erregeela batek bere esaten dau, ondasunak kendu ez daizuezan inor ilten dabenak, erijotzia egiten dabela. Errazoiak erakusten dosku ta Jangoikuak agindutzen dosku, gauza gitxi bat gaiti inori kalte andirik ez egiteko. Bada, munduko onda-

sunak gauza gitxijak eta ezer ezak dira, proximuaren bizitzagaz ta salba-zinoiagaz bat egin ezkerro. Ta orregaiti oostutia baño beste gatzik ezin lejan lapurra, oostu ez daijan iltia, pekatu da. Eskopeta ta armeekin guztiak zamaitubaz etxe baten sartzeen dan edo derrigorrian sartzeera doian lapurra iltia, ez da ain beinguan pekatu mortalzat emoten. Bada, alako lapurrik pelleburu bardinian iminten ditu ondasunak eta bizitzia. Ta ondasun utsak gaiti ill ezin balei bere, bizitzia gaiti iltia ez da pekatu, leen esan dan leez. Dotrina onetati ezaututen da, neure kristiñaubak, pekatu mortala egiten dabeela bostgarren mandamentubaren kontra: 1º Proximua ilten dabeenak, ilteko agindu edo lagundutzen dabeenak eta ilteko konseju emoten dabeenak. 2º Pekatu egiten dabee proximua gaixotu edo banatutzen dabeenak, proximuaren osasuneko edo bizitzako kaltiagaz kontentu artzeen dabeenak ta esan dan modubetan, zein desiuagaz ta zein azinoiagaz, proximuari kalte egiten deutsanak.

Eskatu dajogun Jangoikuari, erakutsi daigula proximo guztiak ameetan ta estimeetan, geure burubak leez. Orduban eukiko dogu munduban bakia, grazija ta bendizinoia ta zeruban eternidadeko gloria. Amen.



BOSTGARREN MANDAMENTUKO IRUGARREN LEZINOIA

zenetan erakusten dan
*zelan pekatu egiten dabeen mandamentu onen kontra,
 indarrak probeetan dabizanak ta kodizija gaiti gorpu-
 tzari tratu txarrak emoten deutseezanak.*

Esanda geratu da, neure kristinaubak, bostgarren mandamentubak eraozten dabena, ez bakarrik proximuarti bizitzan edo osasunian kalte egitia, eze baita bakotxak bere burubari egitia bere. Ta oraindino geijago. Orregaiti proximua iltia baño bere buruba iltia, pekatu andijaua da. Proximuarti erijotzia desietia baño bere burubari desietia, pekatu andijaua da. Proximua iteko pelleburuban imintia baño bere buruba imintia, pekatu andijaua da. Proximua osasuna galtzeia baño noberarena galtzeia, pekatu andijaua da. Ta modu onetan beste gauza guztietan. Onezaz gañera, esan dot leengo doctrineetan, nos eta zelan austen dan bostgarren mandamentuba, proximuarti osasunian edo bizitzaa kalte eginagaz. Ta doctrina onetan esango dot zelan austen dan, noberaren osasunari edo bizitzari kalte eginagaz. Oneek dira: 1º *euren indarretan pijauta, areek probeetako desapijuak eta temaak egiten ditubeenak.* 2º *Kodizija gaiti edo gauzia aurreratutia gaiti, osasunaren kaltian gorputzari tratu txaarrak emoten deutseezanak.* Egija da, onakuak ez bakarrik euren bizitziareni ta osasunaren kontra, eze beste gauza askotan bere pekatu egin oihala sarritan. Bada, bere indarrekin arrotuta dauanak, eltzeen dan leku guztian dauka okasinoerako bidia, beti dago prest endredorako, beti dauka eskandaluba ta ari darraikoa gorrotua, murmurazinoia ta zeresana. Kodiziosuak beti dauka dirubaren gosia ta egarri. Ta egarri andija daukanak edozein bere uri tira esaten deutsan leez, kodizija daukanak beti gauziari beregana tira esaten deutsa, topeetan dabentz lekuan topeetan dabela. Aberastuteko desio andija daukanak lege guztiek erabiliko ditu oñazpijan, ta diruba gaiti ez dau ezetan bere erreparauko. Baña oan ikusiko dogu bakarrik, esan dirianak zelan austen dabeen bostgarren mandamentu santuba.

I.

Egija esateko, errukarri andija da, neure kristinaubak, bere indarrethan pijauta, areek probeetako temaak eta desapijuak egiten dituban persoa. Bada, inok bere ez dauka indar geijago, ez gitxiago Jangoikuak emon deutsan baño. Ez dago gure izatia indar asko edo gitxi eukitian, ezpada Jangoikuak emon deutsan osasunagaz edo gaixuagaz, indarragaz edo argaltasunagaz ta errazoe zuzenagaz bizi dana da guztien artian sendueña, andijena ta estimaubena. Gizonaren izatia errazoezkua da, juizijozkua da ta Jangoikozkua da. Ta gizonak, errazoiaren ta legiaren kontra gorputzko inda rrekin arrotuta, bere buruba erakutsi gura dabentz, ukatutentz dau gizonaren izatia ta emoten deutsa bere burubari lotsaaririk andijena.

Pensau egizu dauala errijan gizon bat, beste guztiak baño andijaua, lodijaua, indar geijago daukana ta karga geijago jasoten dabena edo bestiak baño jaateko ta eraateko geijago sabelian sartzen dabena. Ta gizon a dabillela, bere indarrekin arrotuta, bere lagunak desapijetan ta okasinoe emoten. Zer esan biar da, bada, alakua gaiti? Zer aituten emoten dosku alako arruak? Bestiak baño alemaniajandia andijaua dala bera. Bada, gorputzko indarrak ez dira gizonaren gizona dan leez, ezpada alemaniajandia dan leez. Gizona dan leez dauka entendimentuba ta borondatia; ta alemaniajandia dan leez dauka gorputza ta gorputzari darraikona. Orregaiti esaten da gizona dala *errazoezko alemaniaja*. Gizonak, bere indar andijkak panparrerijazta desapijoka erakusten ditubanian, esaten dosku bestiak baño alemaniajandia andijaua dala bera.

Ara emen, kristinaubak, ze ondra andija egiten deutsan bere burubari alako gizon arruak. Zelan isilduko dogu, bada, alako panparroia? Ez da entero gatz, neure kristinaubak, alako desapijoka ta panparrerijetan dabilen indartsuza isildutzen ta lotsatuten. Bada, mando batek egin leijan gauzia da, berbeetan baleki. Jangoikuak indar asko emon badeutsa alako gizon panparroia, geijago emon deutsa manduari; geijago emon deutsa artzari; geijago emon deutsa otsuari. Ta zeinbat alako goituko lituke kamelu batek, zein burruka ta zein kargatan? Zeinbat elepante batek? Zeinbat alako gizon indartsu ta panparroe kopau baten tripan sartuko lituke balee batek edo krokodillo batek? Nun dira, bada, alako gizonaren panparrerijak eta indarrak, alemaniajandia bat edu ezpada? Oh, indarretan arrotutentz dan zoro koitauba! Artz baten onduan aorik edegi biar ez dau. Mando baten aurrian lotsatuta geratu biar dau. Oh, indartsuak! Oh, pan-



parroiak! Oh, gorputz zati bat bestiak baño geijago daukazulako, edo zan lodiauak daukazuzalako, edo sabel andijaua daukazulako, zeuben lagunak desapijetan, zeuben indarrak probeetan ta bestiak okasinoe emoten zabizanak! Ez zara lotsatuko, bida, zeuben burubak alemania egiten dituzunian? Ta zeubek geijen zariala uste dozun gauzaan, alemania bat edo ez zarianian? Ojala pensauko balebee ondo erri oneetako indartsu panparroiak, ze kleitu ederra euren burubai egiten deutseen giza arterako alako banida dezko desapijuekin! Ojala pensauko balebe, gorputzko indarrak diriala egun sentiko lino loria leez! Ointxe badira, gerotxubago ez dira. Gizon asko indar oneekin gabian oian etzin dira, ta bijaamon goxeko il dira. Soineko erropia aldatutenean leez, kasik esateko, indarrak aldatu ta mudeetan dira. Ojala, dinot, au guztiau pensauko balebe alako indartsu onkasinoetsubak; bake geijago emongo leukee errrijetan, emoten dabeeen baño. Ta zubek inok inos desapijetan bazaitu bere indarrekin *zu baño geijago nas, zuk baño karga geijago jasoko neuke...* esanda, ez eijo zu alakuari kasurik egin ta pensau eizu zeuben artian a gaiti: begaz, *ni baño alemania andijana zara. Bagoz, bida, zu baño andijanak bere.* Auxe izango da ari emon zineijon erresuestarik oneena.

Onezaz ostian alako indartsubak pekatu eiten dabee bostgarren madamentubaren kontra. Inok bere ukatu ezin lei, zein karga jasoten, zein karga eruaten, zein jaaten ta zein eraaten, alako indarrezko temia edo desapiju daukanak, despeidengo punturaño probeetan ditubana bere indarrak. Ta orduban beragaz darua beti, edo gorputzari eraso bat emoteko, gero biarra egin ezin daben moduban, edo zanen bat urratuteko edo errementetako pelleburuba ta arriskuba. Asko ta askori jatzo jakuen leez. Bada, alan nezesidade bagarik, premina bagarik, banidadez ta panparreriaz, bere osasunari ta gorputzari kalte andija egiteko arrisku agirijan jartia, beti da pekatu mortala bostgarren mandamentubaren kontra.

II.

Ez dira guztiak banidadez indarrak probeetan osasunari kalte egiten deutseenak. Baña bagoz asko, premina bagarik ta Jangoikuak eraotzita daukazan gauzaak gaiti osasuna galtzen dabeeenak ta bostgarren mandamentu santubaren kontra pekatu egiten dabeeenak. Oneek dira arako aberastutiarren beti gorputza biarpian ta osasuna galduz darabileenak. Aitu biar dozu, kristinaubak, doctrina au ondo, utsegiten bategaz geratu ez zaitean. Ez dozu pensau biar nik aboneetan ditudala alperrak eta burugig-

nak. Ori ez. Jangoikuak guztiai aginduten deutsee, bakotxari bere estaduban, biarra egiteko. Ez dosku ordu erdi bat bere emoten, alperrerijan ego-teko. Adan lelengo geure gurasuari ta aren seme alaba guztoi esan osun Jangoikuak, geure arpegiko izerdijagaz irabatzita jan biako gendubala ogija. Ez aberatsik, ez pobrerik ez dago libre biarra egiteko obligazinoeti. Alberra (zein aberatsa ta zein pobria) da munduban sobrauba, inoren izerdijagaz mantenietan dana ta Jangoikuaren aurrian lapurra.

Batzubetan preminia bere egoten da, biar geijago egiteko. Menturaz gau ta egun kopau bat jaateko asti andirik ez dauala bere bai. Ta au bere Jangoikuak ontzat emoten dabena da, preminia dauanian. Ta alako biar neke andikoti gorputzari gaixo bat etorri arren, ez da pekatu egiten. Beste battzuk dagoz zorpian ta osta manteniduten diriala ta areek, osasunari probetxu andirik egiten ez deutseena askotan ikusi arren, popuertza egin biar dabee arrastaka ta biar geijago, ta geijenian janari argalagaz edo gosiazag. Ta onakuak bere, ezautu arren osasuna jausijaz juakuela, ezin egon leitekez biarra egin bagarik, manteniduko badira. Erregela onetati kampora dagoz: 1º Seña egiteko dagozan emakumiak. Bada, sabelian daukan seña galtzeko arriskuban, ez pobrezia gaiti ta ez mundu guztia gaiti bere, emakumiak ezer egin biar ez dau, pekatu mortalaren beian. 2º Pobria izan arren ta zor andijk pageetako euki arren, osasuna galduko deutsana zuzen dakijen gauzarik ez dau egin biar kristinaubak. Gauza bat da osasuna mankaubaz juatia, biarrian sarri tertziua baño geijago nekatutenean dalako; ta beste gauza bat da, trabaju bat edo gatx bat etorriko jakona zuzen edo kasik zuzen dakijela, alako gauzia edo biarra egitia. Au beti da pekatu; bestia ez, preminia egon ezkerro.

Esan dan guztia da premiak eta nezesidadiak eragiten dabena, ta osasunaren kaltian askotan izan arren, ez da errez erabagiten pulpitot i nos dan pekatu ta nos ez dan. Baña errazoiak eta lege guztiak erabagita dauenak da, kodizija gaiti, gauzia aurreratutia gaiti ta aberastutia gaiti osasuna galtzeia, pekatu dala. Onakuak izaten dira, Jangoikuak tertzioko baten zegaz bizi emonda, euren estadubari jaokan moduban jaateko ta bizi izateko duina euki arren, gordeetia gaiti ta aurreratutia gaiti, artua bere ondo neurrtuta jaaten dabeeenak, euren burubak eta pameli ja gosetik segiduban daukeezanak; inoren lepoti edo maiti jaaten dabeeenian baño bestelan sabelari biar dabena emoten ez deutseenak; gau ta egun beti arrastaka diardubenak; gorputzari, emon al daijen guztia, egunian egunian emon eraiten deutseenak; ta betiko nekiaren nekiagaz, ta esan dan gosiagaz osasuna gitxitu ta bizitzia laburtutenean dabeeenak.



Oneek dira kodizijaren krijadubak. Sekula Jangoikuak emoten deuteenagaz kontentu ez dirianak. Beti geijago baño geijago nai leukeenak. Gorputza ta osasuna bere dirubari konsagreetan deutseezanak. Jaateko guztia kopau baten iruntsi gura daben txakur gosia leez, euri ta aterri, gau ta egun izerdija ta barautsa darijuela, gose ta egarri etxia ondasunez kolpe baten bete gura leukeenak. Ondasun puska baten truke, euren osasuna galtzeen dabeenak.

Ondasunen desio laarrregija, gorputzari onako tratu txaarra emon bagarik bere, pekatu da ta pekatu guztien asieria. Zer izango da, bada, osasuna galdu eraiten dabenian? Osasuna galtzeko arriskuban meza entzuterik ez dago, baru egiterik ez dago, zorrak pageetarik ez dago, gauza onai bere itxi egiten jakue osasuna ez galtzeia gaiti; bada, zer izango da, kodizija gaiti, dirubaren gosia gaiti, berez gauza txaarra ta pekatu dana gaiti, osasuna galtzeia? Jangoikua gaiti ta karidadia gaiti gorputzari errazoez padezidu eraitia, gauza ona ta santuba da; baña, esan dan moduban, kodizija gaiti padezidu eragitia, geure burubari zor deutsagun karidadiaren kontrako pekatuba da.

Begiratu eizu, bada, kristinaubak, kodizija inpamiak oratu ez daizun zeuben bijotzetan. Ez eizu gorputzaren erruki laarregi euki. Domau eizuz zeuben gorputzak, mortipikau eizuz, baña Jangoikua gaiti, karidadia gaiti, lege santuba gordetia gaiti, pekaturik ez egitia gaiti; ez ondasunak batzeia gaiti ta aberastutia gaiti. Biurtu daiguzan geure begijk eta bijotza zeruko Maisubagana ta eskatu daijogun bere lege santuba ziatz gordeetako grazia, zeñegaz jadiitxiko dogun eternidadeko gloria. Amen.

BOSTGARREN MANDAMENTUKO LAUGARREN LEZINOIA

zeñetan erakusten dan
nos eta zelan ordijak pekatu egiten dabeen.

Jan eranian dauan laarregija da, neure kristinaubak, gauza bat, txito nekez ezaututen dana ta nekezago erre[me]dijetan dana. San Pablo Apostolubak aintxina ezautu eban, ze kalte andijak ekarten dituban kristinauben arimeetara jan edan laarregijak. Ta esaten atrebietan da apostolu santuba, alako ordijak eta jaatunak ez daukeela sabela baño beste Jangoikorik ta euren despeidia dala kondenazinoia. Ezin geijago esan eukian ordijen kontra. Isaías propeta santubak dino kasik beste ainbeste: Zorigestokuak ardaua edaateko gogo onagaz beti prest dagozanak! Esango baleu leez: Zorigestokuak eta desditxaubak, eria dabeen guztian ordituteko prest dagozanak! Emakume ordija, dino Espíritu Santubak, dala bijotzeko sugar andija edo kolera andija, ta ez dabela ezkutauko bere desonestidadia ta desondria. Nun ordija, an diabrubia; nun jaate andija, nun berba loja, an demoniuak dantzian, dino san Juan Kristostomok. Orditutia, dino san Basiliok, dala arimiari bere guraz ezarten jakon demoniuua. *Demon voluntarius*. Egija esateko, ordi batek demoninuaren itxura biziak duka. Batzubetan begijetati suba darijola bidaoka ta maldezinoeka. Beste batzubetan inun dirian kantark berdeenak ta berbarik lojenak esaten ditubala. Beste batzubetan beragaz dagozan gizon eta emakume guztiek tentetan, diabrubak berak leez; batian jokora, bestian eraatera, bestian burrukara, bestian dantzara ta bestian pekatura. Beste batzubetan bideetako arbola ta ormaak albo alboka joten ditubala. Ta beste batzubetan basatza edo bide baten etzinda, aotí bitsa ta ardaua darijola ta gorputza oñen gañian euki ezin dabela. Ipiní lei mundukok demoninuaren itxura agirijagorik, ordi batek alda batera ipinten daben baño? Orregaiti esaten deutsee Elexako santu guztiak ao bategaz orditutiari lujurijaren, bake txaarraren ta maldade guztien geija, asieria ta ama; ta ordijari, ez gizona, ez emakumia, ezpada alemanija edo demoninuua.

Gauza ona izango da bada, kristinaubak, zubei erakustia jan eran laarregijaren gañian: 1º Zetan dauan ordijaren pekatuba. 2º Zeintzuk dirian,



gizona edo emakumia orditu dana ezaututeko senallik. 3º Ze pekatu egi-
ten dabeen jan eran laarregijagaz.

I.

Orditutia gauza ezaña, itxusija eta lotsarizkua dana juizjua daukeen guziak ezaututen dabeena da, neure entzula onak. Ez da ezautu denporarik, ez jenerazinoerik, orditutia ontzat emon danik. Jesukristo geure Jaunak uragaz naastau bagarik ez eban inos bere eran ardaorik. Ta atara bere gitxitan. San Pablo apostolubak, ardauaren paska bat eraateko lizenzia emon eutsan Timoteo bere diszipulubari estomanguko gatxa gaiti. Senalle agirja da au, orduko kristinaubak ardaua nekez eta gitxi eraaten ebeena sinistuteko. Maoma erejegin paltsuak, kasik pekatu guztiak egiteko lizenzia moruai emonda, eraotzi eutseen ardaua eraatia. Asko kanseetan dira examineetan, ia zegaiti eraotzi eutseen Maomak ardaua eraatia, berak emondako legia gordeetan dabeen moruai. Nik esango neuke, bee-
kijala Maoma paltso madarikatubak, ez gauza onak, ez txaarrak luzaro iraun ezin leijana ordijen artian. Ta euren lege okerrian ta pekatuzkuan pirme egon ditezan, eraotzi eutseela ardaua eraatia.

Ordikerijaren malezija guztia da, neure kristinaubak, errazoiaren usuba galtzeia. Naturaleziak gizonari emon deutsan doerik estimaubena da errazoa ren usuba. Au dala medijo erabagiten da gizona alemanijetati. Errazoerik ez bageunka, alemanijak edo arrijak edo beste gauza illen batzuk izango ginaatekez. Zer egiten dau, bada, ordijak? Jangoikuak emon deutsan entendimentuko argija ta errazoiaren usuba illundu, ezkutau ta galdu, bere eskubekin orditubagaz. Gizon ordijak ez zer egin daben daki, ez zer egiten daben, ez zer esaten daben. Ordija ez examinia egiteko da, ez damuba pormeetako, ez konpeseetako da; ez bere gauzen kontu ta errazoa emoteko, ez gizonaren egitaderik daukana da; pekatuzko alemanija bat baño ez da. Au gaiti da, Jangoikuak ordijari deutsan gorrotua. Au gaiti da, mundubak daukan ordijaren ikusi ezina. Au gaiti dira, ordijen kontra egin dirian lege gogorrak. Au gaiti da ordijaren pekatuba; berak bere naiz, dakijela ta ezaututen dabela, trago bat arda ardoa geijago sabelian sartzear gaiti, errazoiaren usuba galdu ta alemanijaren gisaan bere buruba iminten dabelako. Ara, kristinaubak, berba gitxitan esanda, zetan dauan ordijaren pekatu egitia. Ikusi daigun oan, zeintzuk dirian kristinaubak laa-
rregi eran dabena ezaututeko senallik.

II.

Ardaozaliak uste dabee, eran dabeen guztia sabelian koberneetan badabee, ez diriala orditutenean, asko eran arren. Au sinistuta bizi dira ordirk geijenak pekatu mortalian. Eran dabeen lekuti atzera etaraten ezpadab-
bee ardaua, ez dabee penseetan, pekatu egin dabeenik. Baña juez txaarrak dira ordijak, gauza onetan eurei sinistuteko. Santo Tomasek eta beste Elexako erakuslaak esaten dabee, orditutia dala biar dabentz baño arda geijago eraatia. Ta au edozein bere arda jenerotan. Bada, guztiak dira, tertziyoti aurrera irago ezkerro, juizjua galtzen dabeenak. Kristinau guztiak ez dirian leez janian ta eranian bardinak, ezin imini lei guztientzako neutrri bat. Baña guztiak ezautu leije ta ezautu biar dabee, nos dan laarregi. Ta jakin daizun kristinaubak nos eraaten dabeen biar dan baño arda geijago, iminten dira erregela batzuk, zeintzubetati ezaututen dan klaru nos orditutenean ardaua eran dabena.

Lelengo, ardaua eran dabentz bijaamonian zer esan dabentz edo zer egin dabentz, ardaua eran bagarik dauanian leez, akordau ezin danian esaten da orditutia dala. *Bigarrenian* esaten da orditutia dala kristinauba, ardaua eran daijanian, bestelan esaten ez dituban edo egiten ez dituban gauzaak esan edo egiten dituban. *Irugarrenian* esaten da orditutia dala, eran bagarik dauanian leez, gauza onak eta txaarrak erabagi ezin dituban. Kontu bat etarateko, zer egingo dabentz esateko edo leenago egindakuen errazoa emoteko, ardauak juizjua laino artian leez naastauta iminten deutsanian ta burubaga-
z ondo erabagi ezin ditubala iminten dabentz. *Langarrenian* esaten da orditutia dala, ardauak berbaak ondo erabagi ezin dituban moduban, miina laztu ta moteldutentz deutsanian. Bada, laarregi eranak ekartentz arda arda, *Bostgarrenian* esaten da orditutia dala, oñen gañian zuzen juan ezin dan tertziyora ta albo alboka egitera, ardauak ekartentz dabentz. Ta baita ikus-
ten dituban gauzak, etxiak eta arbolak eurekautan balebilz leez, begitandutentz jakozanian bere. Bost erregela oneetati ezautuko dau gizonak nai emakumiak, ia tertziyoti aurrera ardaua eran dabentz edo ez; ta ia laarregi eranagaz pekatu egin dabentz edo ez. Bada, guztiak erakusten da klaru, nos illundu ta borreetan dan ardaugaz errazoiaren usuba. Ta errazoiaren usuba illundutia edo lañotutia eranagaz, berez beti da pekatu mortala. Baña obetuago aitu daizun, esango dotsut azkenian, zelan pekatu egiten dan jan eran laarregijagaz.



III.

Inok bere ukatu ezin lei, neure kristinaubak, orditutia pekatu dana. Ta ez edozein bere pekatu, ezpada pekatu ezaína, lotsarizkua ta txito Jangoikuaren gorroto andikua. San Pablo apostoluba azartutenean da esaten, *ordijkak ez dabeela gozauko zeruko Erreñuba*. Esan da ze malezijia daukan orditutiak, esan da zetan dauan orditutia. Baña orraitino bere esan biar da zerbait gejago, nos eta zelan pekatu egiten dan ezaututeko.

Jazo leiteke, kristinaubari ardaau burura igotia ta pekaturik ez egitia. Au izaten da, edo gorputzaldi txaarra daukalako, edo jan zaarian daualako, edo besteetan eraaten ez dabene arda jenerua dalako. Alako okasinoe baten ustez uste bagarik eta akordau orduko arda puska batek gizona galtzeia, ez dau inok esaten pekatu mortala dala. Ta endamas inos orditu ez oi dan personia bada. Beste ainbeste jazo leiteke, arda gitxi eran arren, berak gatx egitia ta menturaz egun bateko buruko mina ta gorputz aldi txaarra emotia. Onek bere, besteetan juizijua galdu bagarik eran oi dabene beste eran ezpadau ta berak aintzat ez eukala galdu badau ardaauak, ez dau pekaturik egiten, pekatu mortalik ez beintzet. Bada, gauza bat da gorputzaldi txaarra daukalako arda puska batek burura igotia ta gatx egitia ta beste bat da orditutia. Lelengua ez da pekatu, bigarrena beti. Egija da, kristinaubari beti kontuz eran biar dau ardaau. Ta, edo jan bagarik dauenian, edo bustita dauenian, edo gorputzaldi txaarra dauenian, edo arda mudauba eraaten dabenian, obeto begiratu biar deutsa bere burubari. Ta gatx egingo deutsana edo burura igongo deutsana dakijela eraaten badau, gauza gitxija izan arren, pekatu eiten dau.

Osterantzian, zein gizonak eta zein emakumiak, leenago esan dirian bost erregeletati baten nai baten tertziiora eldu artian eraaten badau edozein bere arda jenero, egiten dau pekatu mortala. Bada, guztietan eta bakotxian iminten dau kristinaubak bere buruba errazoiaren usu osua bagarik ta egiten deutsa kaltia osasunari. Eria dabene guztian edo sarritan ordituteko oitura inpamia daukan gizona edo emakumia, beti dago pekatu mortalian ta inok bere asolbidu ezin lei, erremedijau artian edo orditutiari isteko berba pirmia ta senalliai emon artian. Ordituten danak ez deutsa gatx bat bakarrik ekarten bere buruari, ezpada asko. Galtzen dau errazoiaren usuba ta geratutenean alemanijaren gisan. Galtzen dau osasuna ta iragotenean gau txaarra ta bijamoneko buruko mina ta gorputzeko aginterik eza. Galtzen dau arimia; bada, esan dan leez, ordituten danak egiten dau pekatu mortala. Galtzen dau azienda; bada, gauza jakina da, ordijkak preminia bagarik eta modu txaarrian asko kasteetan dabena. Ez dago begi-

ratu baño, ordijk ze itxuratara ekarri ditubeen euren etxiak, aziendaak eta pamelja. Galtzen dau bere kleituba; bada, umeetarañoko guztiak barre ta burla egiten deutsee ordijkari. Auzuak ez dabee ordirkik gura izaten importa dabene gauzatarako. Errijak bere ez deutsa ardauan jausten dan gizonari, entzutia daukan opiziorik emoten, nora ezian edo suertian baño. Galtzen dau bakia; bada, senarra edo semia ordituta doian etxian nekez paltako da agirakia ta bake txaarra.

Enpin kontau ezin leiz gizon ordijkaren pekatubak. Ardaua aora darioianian uste dau, dino san Lore[n]zo Justinianok, artzen dabela eztia ta sabelian sartu daijanian, bieztuna ta berenua da. Oh, ordi tristiak eta desbenturaubak! Oh, ezautuko bazendu zeinbat kalte ekarten deutsazuzan zeuben arimiari, zeuben bakiari, zeuben kleitubari, zeuben aziendari ta zeuben osasunari! Ta gizon ordijk onako itxura txaarra ta lotsaizkua bidauka, emakume eraaliak milla bidar txaarra dauka. Emakume ardaozaliak, euki leizan gauza on guztiak galdu daukaz edo galtzeeko arrisku agirijan daukaz. Orregaiti esaten dau Espiritu Santubak, emakume ordijkak ez dabela ezkutauko bere desondria ta desonestidadia. Berba oneetan esaten dau, emakume ordija desondrauba ta desonestuba dala. Ta onen gañera esaten dau, ordija izan ezkerro emakumia, ez dabela ezkutauko bere desondria ta desonestidadia; agiriko dala, ezaguna izango dala, publiko izango dala emakume ordijkaren desonestidadia ta desondria. San Juan Krisostomok dino, ezer bere ez duala loiagorik eta torpiagorik emakume ordija baño. San Jeronimok, Klemente Alexandrinokoa eta beste Elexako maisubak esaten dabee, guztiz dala loijsa, guztiz dala atsituba, guztiz dala zikina emakume ordija. *Nihil turpis. Nihil foedius. Admodum turpis.*

Erroman eukeen lege bat, etxian ardaau eraaten eban emakume ezkonduba, adulterazat kastigetako agindutenean abana. Mezenak ill eban bere emaztia, ardaau eraaten ebalako ta juezak ez eutseen kargurik artu, ill ebalako. Luzio erregiak beste ainbeste egin eban bere emaztiagaz, dino Arnadiok. Guztien eitzijan egija da, emakume ordijk senarrari pedia gordeko ez deutsana; zaarra bada, berdia ta pekatu estalgilia izango dana; ta gaztia bada, galdua.

Oh, kristinaubak, begiratu zeuben arimaak gaiti, bizi jo inpame oni leku emon baño leenago; bada, beragaz dakaz beste pekatu jenero guztiek. Emakume ordija daukan etxiak edo errijak diabru bat truke emon al balei edo kendu al balei, tratu ona egingo leuke nire eitzijan. Bada, diabrubaganik apartau geintekez erreztzo; baña ezin erremedijau leiz emakume ordijkaren kaltiak. Ta onegaz akabetan ditut lelengo partien lezinoiak.



Eskatzen deutsat bijotz osuagaz Aita Eternuari miserikordija, Seme Dibinuari bere pasinoe santuko merezimentubak, Espiritu Santubari kari-dade bizija, Ama Birjina guztiz santiari laguntasuna, aingerubai sokorru-ba, santubai erregubak ta zubei guztioi zeuben orazinoe garbijak eta egi-jazkuak, Elexa Ama santiaren pediagaz, esperantziagaz ta karidadiagaz entregetako Jangoikuari geure arimaak ta eukiteko zeruban eternidadeko bitzitza ditxosua. Amen.

Lelengo partiaren despeidia.

O. S. J. S. R. E. K. A.